

IRRIBARRE BAT

Xabier Amuriza

*Hainbeste iritzi eta diskurtsoren artean
aringarri atsegin bat eskertuko luketenei*

Hitzaurrea

Irribarre bat eragin nahi duten kontakizun hauek euskaldunen ingenioa dute oinarri nagusi. Neure bizitza luzean, asko jaso izan dut iturri ezberdinetatik. Iturri bat neure burua izan da, jakina. Idatzi ere hainbat egin izan dut han-hemen, adibidez, Egin egunkariko *Herri eta irri* izeneko kolaborazioan. Liburu honetan birmoldatze eta selekzio handiak egin ditut, unibertso zabal horri kontakizunen forma berdintsu bat emanez.

«Umorea» esan ohi dena sarritan barrea edo barre-algara bilatzen duten pasarteekin bat egiten da. Ni, kasu honetan, txiste antzeko jeneroa bahetzen saiatu naiz. Izan ere, uste dut kalitatezko umorea irribarra sortzetik neurtu behar dela, nahiz eta, tarteka, barre-algara bat ondo etorri. Barre jarraitua komikoen zelaia da. Niri ingenioa interesatzen zait.

Lehen kontakizuna *–Zein ongi bizi zen Ulises–* ondorengo atal guztien sintesi moduko bat da, ordu eta laurden inguruko emanaldi batera ekarria. Pasarte batzuk hurrengo ataletan berriz agertzea bidezko da, haietatik atereak izan baitira kontakizunera. Horrelaxe uztea erabaki dut, kontatzeko era ezberdinak direla pentsatuz.

Zein ongi bizi zen Ulises

I

Bat-batean konturatu nintzen «Ulises» nintzela. Berrehun mutiko, nik hamar urte, denak isil-isilik, «estudioa» deitzen zen areto batean. Ni erdi aldeko lerro baten erdian, hegalei beldurra bainien, horma kontrara ez bazen.

- Izena? –hots egin zuen diziplinako prefektuak.
- Ulises –erantzun nuen. Edo saiatu nintzen, barre-purrustada bat entzun baitzen.
- Nola esan duzu? –prefektuak oihu.
- Ulises. –Oraingoan komunitate osoa algaratu zen, zergatik ez zekitenak barne, normalki gehienak.
- Isilik! Ulises esan duzu?
- Bai, jauna.
- Eseri! Gero hitz egingo dugu.

Eseri nintzen, baina lurpea nahi nuen. Ekitaldiaren ondoren, komunitatea jolas-ordura bidali zuten, eta ni prefektuaren gelara. «Nireak egin du oraintxe!» –pentsatzen nuen bidean. Prefektuak, neuk itxaron baino amultsuago, jaulki zuen:

- Zuk ezin duzu izena izan ... Ulises!
- Ni Ulises deitzen naute denek eta denean.
- Abizena nola duzu?
- Makaldi.
- Bigarrena?
- Erdiguen.
- Ulises Makaldi Erdiguen?
- Bai, jauna.

Galdetu zidan ea banekien nor zen Homero, eta nor, bere pertsonaia nagusia. Historia fantastiko batzuk kontatu zizkidan, nire irudimenean kabitzen ez zirenak, eta jolas-ordura bidali ninduen. Patio eta zelaietan, deiadarka hartu ninduten: *Ulises! Ulises!* Eta berriz konturatu nintzen Ulises nintzela.

Kalabaza koloreko jantoki heze batean, berrehun buru txiki, isil-isilik, seinako mahaietan, zopa gris baten gainetik tortilla albino bat jaten. Ulisesen mahaiko mutiko zapo batek, tortilla zatitu aurretik, esferaren erdi-erdira txistu mardul bat jaurti zuen, plof, marraskilo aplastatu bat bezala. Diziplinako prefektua mahairik mahai pasatu zen gero, jateke zegoena janarazten.

Ulisesek ere jan zuen bere marraskilo zatia. Hots, ahoan gorde zuen, gero komunera botatzeko, baina atean prefektuak alto eman zion: «Zer daroazu ahoan?». Ulisesen matrailak igel kantaria bezala puztu ziren, eta lehendik larri zetorren ahotik marraskilo-zatia prefektuaren sotanara disparatu zen, plast. Eta hilaren azkeneko notetan, urbanitatean zero, eta tortillak aurrera. Zero hura balentriatzat hartua izan zen, ikasle gehienek interpretazioa izan baitzen disparo likin hura nahita izan zela. Jolasorduan, berriz ere «Ulises! Ulises!» oihu zegiten, baina oraingoan, heroi batenganako miresmenez. Eta berriz konturatu nintzen Ulises nintzela.

Ez zen lehen aldia hori gertatzen zitzaidana. Herri-eskolako lehen egunean, bost urterekin, maisu luzanga eta zeharka okertu batek ikasle berriak lerroan jarri gintuen.

- Izena?
- Eliseus –erantzun nuen.
- Ulises? –galdetu zuen harriturik, eskua belarran-da.

Ezin izan nuen erantzun, eskola guztia barre-algaran lehertu baitzen. Maisua hurbildu zitzaidan, eta ia belarrira galdetu zidan:

- Ulises esan duzu?
- Bai, jauna –erantzun nuen, beste astrapala bat ez abiatzarren.

Lehen jolas-orduan, denak *Ulises! Ulises!* aritu zitzaizkidan, batzuk burlaz, beste batzuk barrez, gehienak halabeharrez. Gehiago inork ez zidan deitu neure izenez. Pentsatu nuen nire izenaren eskolako ordaina izango zela. Nire erdal izena, alegia. Etxeraino ere iritsi zen oihartzuna, eta aitak esan zuen: «Denek Ulises badiote, etxean ez gara ibiliko diferente egiten».

Beharbada, izen-aldatzea naturalizat hartzeko gehien eragin zidana izan zen ezen, geroago, internatuan, prefektuak Homero aipatu zidanean, nik ezagutzen nuela izen hori, gure aititak ahari bat baitzuen, «Homero» zeritzona. Ezagutzen nuen behi bat ere, «Goldameir» zeritzona. «Geldi, Golda, geldi!». Eta aker bat, «Newton» zeritzona. «Gaur Newton ez dabil gustura! Txokolatea nahi du» –esaten zidan osaba Timeok, eta ni saiatzen nintzen Newtonentzat txokolatea jiratzen. Eta bai jan ere aker demonioak! Izeba Urianak bazuen untxi bat, deitzen ziona «Pandora».

Gure amama Megararen etxean bazen makera izugarri bat, jan da lo eta umeak egin besterik egiten ez zuena. «Marconi» zuen izena. «Gure Marconik apropos egin du!» –haserretu zen amama Megara-. Erroak dituen baino txerrikume bat gutxiago. Nahi al duzu erro hori zeuk edoski, Ulises?». Amamak bazekien «Marconi» makerak beldur handia ematen zidala. Eta askoz handiagoa «Platon» apoak, osaba Liparkorenean zegoenak. Izen hutsak ere –«Platon!»– izua ematen zidan. Aitita Eoliok basurdekume bat bizirik ekarri zuen etxera, ume guztion pozerako. «Kafka» jarri zion izena, eta piztiatxo hura ikusita, izen aproposa iruditu zitzaidan. Basurdea oso ondo konpontzen zen «Frida» ahuntzarekin.

Txakurretan ere, Zuri, Txiki, Zoli eta abarrez gainera, auzo guztietan baziren Puzkin, Trostki, Roosevelt eta halakoak. Puzkinak ertain iletsuak ziren, beti enberazuan. Trostkiak mastinak ziren, eta baziren Rooseveltak ere, bulldog beldurgarriak. Hala ere, gero, internatuan, gauza berriak ikasten hasi nintzenean, gehien harritu ninduen Txurtzil izan zen.

«Txau, txau, txau!», hankaperaino sartzen ziren txakur xiztrin haien izen naturala «Txurtzil» zela beti uste izan ondoren –«Txurtzil! Alde hortik!»–, ezin nuen izen hura bat egin bigarren mundu-gerrako gizon kupel harekin. Konparazioz, askoz zentzuzkoago iritzi nion ni Ulises izateari, bat-batean konturatu nintzenean Ulises nintzela.

Bostetik hamalau urtera bitarteko eskola mistoa izanik, mutil handiagoez aise abusatzen zuten txikiekin, babesten zintuen klanen batekoa ez baziren. Zorionez, baziren neskek ere mutil nagusien adinekoak, batzuk errespetu handia sortzen zutenak. Eta nik, futbolarik eta borrokarik eta halako dema dohakabeak saihestearren, hantxe ikasi nuen nesken gonapean sartzen, ezkutatzeko. Onartzen eta defendatzen ninduten, eta balantzean, onetik gehiago jaso nuela uste dut txarretik baino.

Zortzi urte egin nituen egunean, apaizak esan zidan: «Gizontxo bat zara, Ulises!» Baietz esan nuen, ezetzari beldurra bainion. «Nahi al zenuke akolito izan?». Apaizen galdera batzuk agindutzat ulertu behar ziren. «Ba...» Eta apaizak: «Tori pezeta bat, barkiluak erosteko». Txanpon gorriska bat. Norbaitek orain esango luke kaptazio zikin bat izan zela, baina nire lehen sentsualitate kontzientea uste dut diruarekiko harreman intimoa izan zela.

Akolitotzak status bat, kategoria bat eman zidan. Aldaretik dena genekusan, eta denek pasatu behar zuten gure kandela edo patenapetik. Haurtxo Jesusi muin ematera hurbiltzean, zoragarria izan zen neskatxo haur bat galdetzen entzutea: «Apaizaren haurtxoa al da hau?». Pentsa nolako lotsaria amarena! Neskatxo hark berak, telebistari gurasoek uste baino adiago begiratzen zionak, galdetu zuen urte batzuk geroago:

- Arzallusi zergatik esaten diote «jesuita»?
- Izan zelako! –darantzu amak.
- Zer da «jesuita?» –haurrak, eta amak:
- Ba, Arzallusen modukoa izatea.

Lan bat asko gustatzen zitzaidana diru-batzea zen. Txilintxoarekin, txintxilin-txintxilin, harro eta agintari sentitzen nintzen, saskia eskuan. Andre batek esan zidan: «Ni ez naiz hemengoa». Atzeko andreak esan zion: «Hango diruak balio du hemen, e!» Beste andre batek, kandelen usain fuertearen konfiantzan, isil-putz bati jarein zion, antza. Ustez ondo neurtua, baina jabetu zenean zer zetorren, atzerantz begiratu zuen, eta andre batek galdetu zion: «Zer uste duzu, ba? Ikusi egingo duzula?».

Gehien harrotzen ninduen hiletako segizio-buru joatea zen, gurutze eramaile. Hura zen larruak ezin hartua! Gizon bat zihoan hilkutxan, eta bere betiko txikitero-laguna, Afrisio ferreteroa, tabernako atean zegoen geldita, tristerik, segizioari begira. Hilkutxa parean pasatzean, auhen egin zuen: «Gure Hilario ez da ondo egongo, elizara zuzen joateko, tabernan sartu gabe».

Nire ilusio gorena apaizari gaixoak bisitatzen laguntzea izaten zen, etxe guztietan ematen baitzidaten zerbait. Emakume bati apaizak galdetu zion:

- Zelan, Adonia?
- Hementxe, jauna, alimentu sanoak jaten gaixotuta.
- Jainkoa beti ari da ematen, Adonia.
- Bai, jauna, bai. Jainkoa emankorra da, baina aukeran, gutxitxo ematen du.

«Karpan» ezizeneko gizontxo bat hil-hurren zegoen, eta apaizari azken sakramentuak ematera lagundu behar nion, eta ni pozik. Bazen ukazioen erritu bat, non galdera bat zen: «Ukatzen al duzu deabrua eta bere egintza guztiak?». Gizontxoa

isilik zegoen, nik hilda uste nuen, eta apaizak ekin zion: «Baietz esan behar duzu, Karpan!». Honek, arnasa doi-doian, erantzun zuen: «Jauna! Batek ez daki noren eskura iritsiko den, eta nik ez dut inorekin haserre joan nahi».

Gure amak Heliore zuen izena, eta bazuen dendatxo bat, harrigarriro denetik saltzen zena, ia ezertarako tokirik ez zegoela. Eskolatik etxeratzean, irrikaz egoten nintzen amari «laguntzeko». «Hemen ez da behar inor!» –esaten zidan trabatik kentzearen, baina gutxiago kostatzen zitzaion egoten uztea, sartzen nintzen bakoitzean bidaltzea baino.

– Zahartzearen txarrena badakizu zer den? –jaulki zuen andre batek–. Hileta askotara joan beharra.

– Ez da hainbesteko izango, norbera ere hil daiteke eta –erantzun zuen amak.

«Tantulo» ezizeneko gizon puska batek erantsi zuen:

– Hiletara zertarako joan, berarekin hitz egin ezin bada?

Tantulo honek baserri urrun batean bakarrik bizi zen andre bati galdetu zion ea beldurrik ez zeukan gauez, hain bide luze eta ilunetan. Erantzunak dardara luzea utzi zidan. «Beldurra badaukat, baina nik ere beharko dut lagunen bat, ezta?».

Gehiago ikaratu ninduen aitak afalostean esan zuenak, nola irratian entzun zuen, heriotza baten iragarki ondoren: «Gorpua Zumaiako tanatorioan egongo da tente». Hain biziro zauskatu ninduen detaileak, ezen ikaraz itzartzen bainintzen, ohe barrenean tentetasun mortal bat ikusiz. Heriotzak ez ninduen beldurtzen, baina bai haren irudiek.

Haurtzaro ez dakit amesgarri, baina beti amestuak nire bizitzako hamargarren urtean izan zuen eten handi bat, internatuko lehen ekitaldian jabetu nintzenean, gorago kontatu bezala, ez nuela beste erremediorik, Ulises izatea baizik.

II

Hazi nintzen, nagusitu nintzen, jarduera pretentsibo batzuetan bizimodua probatu nuen, eta azkenean, oposaketak tranpan gainditu ondoren, postari sartzea lortu nuen. Ulises bati ondo zetorkiona berau, emanik Ulises jatorrizkoaren balentriei zailegi irizten niela niretzat. Hala, larunbat goiz batez, egunero bezala, bezperatik utzitako posta kaleka eta auzoka sailkatzen hasi nintzen, «Katuen testamentue» postari erara kantatuz.

*Non da, non da gure katue, badau, badau zer banatue.
Urliantzako, Urliantzako zabor-uren kontue
Sandiantzako, Sandiantzako Txinatik abarka narrue.
Berendiari, Berendiari maite-gutun txuntxurtue
Ez dino nori, ez dino nori isun madarikatue.*

Abiatu nintzen neure vespa horian, eta lehen atarian, Febina izeneko ama desesperatu bat aurkitu nuen, zeinak ez zekien zer egin lau urteko ume batekin, bere senide txikiago batekiko jelsiagatik. «Baina, laztantxo! Zure arreba txikia ere neure sabelean egona baita!». Umeari gorrotorik gordeenetik irten zitzaion: «Ba, jan berriz!». Ez nintzen ausartu «on deizula!» esaten.

Txankarra kaleko azken kantoian, Don Temisto apaiza eta Zefino artzaina aurkitu nituen, biak goiz. Bikote popularra ziren herrian, beti elkar tentatzen. Orduan ere teman ziharduten zeinena ote zen «artzaintza» zailagoa. Artzainak esan zion apaizari:

- Zuri ardiak etorri egiten zaizkizu. Nik bildu egin behar ditut.
- Nire ardientzat txakurrak ez du balio –Don Temistok.
- Zureak janari mehearekin konformatzen dira –Zefino artzainak, komunioagatik, eta apaizak:
- Bai zeureak ere, bildotsen esana ulertuko bazenu: «Mehehehe!».

Don Temisto gizon korpulentoa zen, batez ere zapatetara begiratzen bazenion. Soro eta larreen bedeinkapen baten ondoren, baserritar batek galdetu zion: «Jauna! Zeremonia honek balioko duela uste al du berorrek harrak eta zomorroak hiltzeko?». Apaiz zapata-handiak ez zuen dudarik izan: «Nik zapaltzen ditudanak bai!».

Behin ikusi nuen Don Temisto zangarra hitzik gabe gelditzen. Mendietxe urrun bateko gizona hilik, apaizak, ohituraren arabera, gorpua jasotzera igo behar zuen, baina denborale zakur bat zela bide, errepidean itxaron zuen, ofiziantze jantzita. Segizioa iristean, on beharrez esan zuen: «Badakarzue?». Andari nekatu eta beratu batek erantzun zuen: «Bai, jauna. Hau badakargu, baina arima goian gelditu da, eta haren bila berorrek joan beharko du». Don Temisto korpulentoak burua makurtu zuen. Denboralearen urruma baizik ez zen entzuten. Minutu batera, Don Temistok esan zuen: «Ondo dago! Molda dezagun lehenik alde ustelkor hau. Arima hilezkorrak itxaron dezake».

Nork zuen arrazoia? Ez dakit. Maite ditut denetik dakitenak, baina larritzen naute denetik gehien dakitenek. Hurrengo atarian banekien Tafano izeneko gizon aspertu bat aurkituko nuela, bere istorioak kontatzeko irrikaz beti. Gaztetan, gaitz arraro batek jo zuen soldadutzan. «Hauxe da Errezildik Nekezbizira pasatzea!» –pentsatu zuen

mutilak. Ebakuntza urgentera altxatu zuten. Lasai hartzeko esan zioten. Gaitz haren arriskua milatik batekoa zela. Gaixoak galdetu zuen: «Bat hori hilda al dago?». Sendatu zen, soldadutzatik itzuli zen, eta handik urteetara, beste gaixoaldi batean, medikuak galdetu zion:

- Familian aurrekari hurbilik izan al duzu?
- Ba, aitita biak urte berean hil ziren. Amama biak ere bai, hamahiru urte geroago. Aita iaz hil zen, eta ama aurten joan da, gajoa.
- Ño! Orduan, argi dago zeu ere hilko zarela.

Kaletik mendira, Zabalguren auzora igo nintzen, non borda batean gizon bat bizi zen, indartsu eta sano, satorrei larrua kendu, babekin egosi eta huraxe janez.

- Zer moduz aurtengo sator okela? –galdetu nion, eta erantzun zuen:
- Oso ona, baina harrapatzen zaila.

Hitzak hitza ekarriz, kaleko nahikeriak aipatu nizekion, eta argudiatu zuen:

- Aizu! Angulak onak izango dira, baina bat izatekotan, nik sardinzarra nahiago.

Satorjalearen anaia bat, Kinetok zeritzona, hirira ezkondua zen, eta auzotik bueltan, Akilon kaleko 47an topatu nuen, gaitz batetik senda berri. Eztulak eraso bide zion, eta ez zuen bakerik eman, medikuagana eroana izan arte.

- Zelako eztula? Handia ala txikia? –itaundu zuen medikuak, eta Kinetok:
- Ikaragarria, jauna! Hiltzeko modukoa.
- Egingo al zenuke bat bertan?
- Airezko itzulia baino errazago.

Kinetok eztul bat egin zuen, eta medikuak esan zion:

- Eztul hori egiteko gai denak ez dauka hiltzeko arriskurik.
- Orduan, hemen, ez entzuteko eztula egin behar al da? –tematu zen Kinetok, eta medikuak:
- Hil nahi baduzu, bai. Hilerrian entzun al duzu eztulik?

Aketegi tabernan, korrespondentzia entregatzen nuen bitartean, ama gazte baten ahotsa nentzuen atzean, bost urteko mutiltxoari serio-serio esaten:

- Begira, Elaintxo! Munduan hiru pertsona mota daude: txarrak, gaiztoak eta zantarrak. Zure gelako lagun hori txarra da, gaiztoa da, eta zantarra da. Zeozer egin behar diozu, ze bestela bizi guztian ezingo duzu atzetik kendu.
- Oskua! –pentsatu nuen–. Hauxe izango da heziketa alternatiboa.

Ahalegin pedagogiko guztiak eta zaintza eta prebentzio ideal guztiak amaitzen diren puntutik harantz, nola defendatu behar duzu zeure umea? Akinos kafetegian, nagusiak zertifikatu bat sinatzen zidan bitartean, mutur batean entzun nuen:

- Zerri galanta zu!
- Utziozu, mozkor baitago –esan zuen solaskide batek, eta mozkorrak:
- Orain mozkor nago, baina hori mozkortu aurretik pentsatua da.
- Gauden bakean! –bigundu nahi izan zuen aludituak–. Zerriok ere amaren umeak gara.
- Ni ez! –mozkorrak–. Ni zaharrena naiz, eta gure ama neuk egin nuen ama.

Mozkorrak Kintziño zuen izena, edo ezizena, inork ez zekien garbi. Eta harrotzen zen lanik ez egiteaz, lana sobra zegoenean. Hala ere, aurkeztu zen lantegi batean, eta nagusiak orro egin zion:

- Eguerdiko hamabietan lan eske?
- Ez da neureztat. Anaiarentzat da. Oraindik ohean dago.
- Hara! Ez al zuen beste gizonik, komisio hori egiteko?
- Bai –erantzun zuen Kintziñok–. Bilatuz gero, atzemango zuen, baina zureztat neu ere nahikoa naizela pentsatu du.

Ohean gelditua zen beste anaiari amak orduerdi geroago deituko zion, esanez:

- Ala! Jaiki, seme, siesta ere egin beharko duzu eta.

Pobreen bizimoduak berdintsuak izan daitezke, baina ez buruerak, eta are gutxiago mihiak. Sekula ez nuen pentsatuko norbait entzungo nuenik gure aititari erasaten:

- Zu ere putakume galanta, asko bezala!
- Hara! Etxeko berri jakiten da azken –erantzun zuen aititak–. Zu bazinena banekien aspaldi, baina neu ere banintzela, ez.

Gizonak bazerraien zitalean eta gaizki-esanean, inguruan ez zela gizonik, eta hala. Bera salbu, noski, eta aititak kargu hartu zion:

- Hitzen esanahitik joanda zabiltzala esango nuke, adiskide. Zu bezalako hamarrekin ere ez dago gizon bat osatzerik.
- Asmatu duzu bapo! –hots egin zuen Kintziño mozkorrak albotik–. Batekin gertuen, hamarrekin eta urrutiago!

Salikon kaleko 36an, Sandalio izeneko arrantzale bat irten zitzaidan. Irudikatzen al duzue lau urteko mutil koxkor bat «Sandalio» deitzea? Ba, birekin eta batekin ere, Sandalio izana zen. Maistrak A hizkiaren gainean hatza jarri eta galdetu zion: «Hau zer da?». Sandalio isilik. «Hau zer da?» –ekin zion maistrak behin eta berriz, eta Sandalio mutu. Sufritzen ari zen arreba zaharragoak jolas-orduan haserre egin zion:

- Baina, Sandalio! Zergatik ez diozu A esan, zuk hizki hori badakizu eta?
- Bai! Esan A, eta gero E, eta azkenean denak esan behar!

Nagusitzean, marinel joateko zortea edo destinoa izan zuen. Lehorreratze batean, konfesatzera belaunikatu zen, eta apaizak galdetzen zion guztiari Sandaliok ezetz ziotsan.

- Orduan zer konfesatzera zatoz? –ernegatu zen apaiza.
- Hara, jauna! Nire pekatua hauxe da: edan egin behar.
- Zenbat?
- Ahal dudan guztia.
- Tira! –lasaitu zen apaiza–. Hori baino gehiago edaten ez baduzu, barkaturik zaude.

Sandaliok jubilatzeke zortea izan zuen, eta apaizari ez zitzaion hainbeste gustatu haren arrazoi bat: «Zahartzaroan, jauna, onena da erlijio guztiak hartzea, baten batek huts egin baleza ere».

Gehiago ere zahartu zen, ondoez batek eman zion, eta urgentzietara altxatu zuten, ez guztiz bere gogoz. Itxarongelan larri samar, alabari esan zion: «Hemen, hiltzeko ere itxaron egin behar al da?». Deitu ziotenean, benetan larria izan zitekeela ikusirik, apaiz kaperaua etorrarazi zuten, zeinaren galdera sakramentaletako bat izan baitzen:

- Barkatzen al diezu gaizki egin dizutenei?
- Segituan hil behar bada, bai. Bestela, ez.

«Pentsatzen dut, beraz naiz». «Naiz» diot, eta ez «banaiz», dilema ez baita «bai ala ez», baizik «izan ala ez». Ba, bai. «Pentsatzen dut, beraz naiz». Descartesez esan nahiko zuen (nork jakin!) izatearen edo existentziaren funtsa pentsamenean datzala. Zertarako genuke izatea, bagarela konturatu ezik? Ba, nik, René, alderantziz nerrake: «Naiz, beraz pentsat». Ezin duzu «naiz» esan, pentsatu gabe. Badakit zure arrazoi nirea baino ospetsuago izango dela, baina nirea zurea baino arrazoiago da. Eta finean, ni naiz Ulises, eta zu ez.

III

Efesto kalean nenbilen. Mikonos kafetegira sartzeko nintzela, burundada handi bat gurutzatu zen zeharkale batetik, txaranga eta jende zaratatsu ugarirekin. Neu ere murgildu nintzen masan, eta haurtxo batek eskutik heldu zidan, auskalo nor nintzelakoan.

- Nola duzu izena? –Erantzun zuen, baina ez nion entzun, eta nik:
- O! Bai izen polita! Ni Ulises naiz.
- Ja, ja! Gure gelan ez dago horrelakorik!
- Zenbat urte dituzu?
- Hiru! –Hau ondo ulertu nuen jarri zituen hiru hatz harroetan–. Laster lau egingo ditut.
- Ni Olentzeroren lehengusua naiz. Intxaurrek eta ezta eramaten diot. Esne freskoa ere gustatzen zaio. –Neskatxoaren betarte liluratuak ipuin guztiak justifikatzen zituen–. Zuri zer ekartzeko esango diot?
- Pistola bat! –esan zuen duda izpirik gabe.
- O! Niri beldurra damait horrek!
- Niri ez!

Haur hura bera, bi urterekin ere, norinahi segitzekoa izan zela entzun nion gero bere aitari. Galdurik zebilela pentsaturik, norbaitek galdetu zion:

- Zure amak nola du izena?
- Amatxo.
- Eta aitak?
- Aitatxo.

Datu hauekin eta pistola bat eskuan, ez dago beldurrik munduan. Mikonos kafetegian, beste haur bat zebilen barra barruan.

- Gizontxo hori nor dugu? –galdetu nuen mutikoa seinalatuz.
- Esaiozu nor zaren –amak umeari.
- Nor izango naiz, ba? Ni!
- Arrazoia hori ere! Eta nik jakin ez! Hau postari ineptoa daukazuena!
- Kiriltxo harro dabil –esan zuen amak–. Gaur joan da lehen aldiz ikastolara, eta oraintxe etorri.
- Hara! –hots egin nuen–. Hori balentria handia da. Eta? Asko ikasi al duzu?
- Ez, antza, ze andereñoak esan du bihar ere joateko.

Posta baten zertifikatuak sinatzeko, sukaldera sartu ginen, Kiriltxo harrotu zen, ez zen isiltzen, eta aitak esan zion:

- Baina, Kiriltxo! Ez al dakizu, handiek hitz egiten dutenean, txikiak isilik egon behar dutela?
- Eta txikiok hitz egiten dugunean, handiek zer egin behar dute?

Eta kito! Amaitu ziren egun hartako posta-lanak. Otarteko bat agindu nuen, eta bitartean, telefono bat markatu.

– Ama! Ez egon nire zain bazkaltzeko. Mikonos kafetegian nago. Seguruenik, zuzenean abiatuko naiz Bilbora. Gaua ere apur bat luza liteke, bai. Esan amamari kandelarik ez pizteko, eguna argitu arte.

IV

Bilbora bidean, Itziarko restopean geratu nintzen. Neska zerbitzaria harritu zen berriz agertu nintzelako, hainbeste denboran falta izan ondoren. Soldadutza atzeratua eginarazi zidatela esan nion. Ez dakit sinetsi zuen, hurrengo tartean galdetu baitzidan:

- Soldadutza luzea, ezta?
- Bai! Zigortuta eduki naute gehiegizko apunteriagatik.
- Txarra al da hori?
- Izatez ona, baina komandanteari ez zitzaion gustatu. Bera mendi tontor batean eta ni bestean, tiro-proban jarduten ginen, eta balek bide erdian elkar jotzen zuten. Batzuetan puntaz, beste batzuetan orpoz. Barka! Telefonoa ari zaidala uste dut.

- Bai?
- Aizu! Goizean zure andreari esan diodanez, kilo bat zankarroki eta beste hezur batzuk...
- Aizu...Ez, ez! Hau ez da harategia.
- Baina zu Felipe, ezta? Esaiozu andreari ...
- Ez, ez! Hemen ez dago Feliperik. Txarto markatuko zenuen.
- Nik txarto markatu? Zeuk hartuko zenuen txarto!

- Lehenera jorik –jarraitu nuen neska zerbitzariarekin–, komandantea pozik zegoen bere mailako tiratzaile bat aurkitu zuelako. Behin, lehenago tiratzen deskuidatu nintzen, eta bala komandantearen kanoi puntatik sartu zen. Grazia egin zion, antza, hiru hilabeteko luzapenera zigortu baininduen. Berriz telefonoa. Barka!

- Bai?
- Ulises! –Oraingoan bera naiz, bai–. Kapiro nok. Gure ahuntzak ikusi dozak?
- Atzo hortxe goiko landan jagoazan –erantzun nion.
- Heu atzoko lekuan al hago?

Ba, ez. Itziarren nengoen, Bilborantz bidean. Bilbon, Fotinio izeneko gizon txatxar baten tailertxoan pakete bat utzi behar nuen, utzi nuen, eta orduantxe bai! Amaitua zen astea. Alde Zaharreko taberna sekular batean, sagardo lasai bat edatera eseri nintzen, gauari hasiera suabe bat emateko. Berehala agertu zen nik nahi nuena, Teofan santurtziarra, zeinarekin plana egina bainuen aurretik, Santurtzin sardina-jan bat egiteko.

Ez ginen bakarrak inguruan, barkuak ere martxan itsasoan. Jan genuen ezpainak pitzatu arte, edan genuen pitzadurak berdintzeko beste, eta azkenean hor amaitu genuen kafetegi ilunsko batean, non harritu nintzen mikroonda beltz bat ikusten zela fondoan, oso handia, okupen lokal batean bezala.

- Goazen aurrera! –ausartu nintzen.
- Lasai, Ulises! –atxiki ninduen Teofanek–. Niri Euskaltzaindiaren erritmoa gustatzen zait.
- Nola da hori? –beldurtu nintzen.

– Euskaltzaindiak bere lana amaitzen duenerako, euskara galduta egongo da.

Lasai, baina aurrera. Pixka bat barrurago, berriz harritu nintzen jendearen hibridotasun nagiaz. Ia hondoraino jorik, ohartu nintzen mikroonda hura, diagonaliki begiraturik, hilkutxa bat zela.

- Oskua! –ahopetu nion lagunari–. Nora ekarri nauzu?
- Zuek zer zarete hilarenak? –galdetu zigun gizon esmokindun batek.
- Gu kafe bat hartzera etorri gara –erantzun zuen santurtziarrak.

Hura asedio espektrala gaineratu zitzaiguna! Onez apartatu ginela ospatzeko, tanatorioko atarian despeditu ginen. Rontegiko zubia gainditu baino ez, mutil bat hartu nuen auto-stopean, eta ezaguna gertatu. Isilaldi baten ondoren, esan zuen:

- Jainkoarengan sinesten al duzu?
- Oskua! –pentsatu nuen–. Lekutara goaz oraintxe! –Eta erantzun nion: – Ezetz esatea ez da erraza, ordu hauetan. Zeuk sinesten duzu?
- Bete-betea!
- O! Zurea zailago da, orduan.
- Zailago zergatik? Sentitzea da kontua.
- Nik ez dut, ba, sentitzen, ez betean ez hutsean, baina hori ere ez da, noski, Jainkorik ezaren argumentua. Zure sentitzea ere baietzarena ez den bezala.
- Baina zu apaiz izan zinen!
- Bai. Oilasko-saltzaile ere ibilia naiz, baina orain postari-mezulari nabil.
- O! Bai lanbide zoragarria, bidaiari beti!
- Ba, bai. Atzo, adibidez, Valentzian izan nintzen. Txalupan joan nintzen Teruelen zehar, eta han hegazkin bat erosi nuen. Banindoan bidean ttar-ttar, eta gasolina amaitu! Lainorik laino bultzaka ederki eraman nuen. Baina lainoak gastatu ziren, eta orduan gaizki. Gasolindegia bat derrigor jarri behar da hor goian. Ailegatu nintzen nola-hala, eta tira. Gero hegazkina etxera ekarri eta ganbaran doi-doi sartu zen. Gaur goizean joan naiz, eta ezin inora irten. Hegazkinak hiru ume egin ditu. Ez dago bidaiarik.
- Jesus! Hori da ezbehar pila gizon bakar batentzat!
- Ez hainbeste. Jainkoa neure gainean dabilela uste dut, oso-osorik.
- Jainkoa osorik? Nola?
- Herenegun bildu nuen onttoa bezala. Huraxe eramatera joan nintzen, hain zuzen, atzo Valentziara.
- Valentziaraino, ontto batekin?
- Nolakoa, ordea! Perretxikotan abiatu nintzen, baina asko zegoen, eta asto eta guzti joan behar izan nuen. Tartean, ontto handi bat aurkitu nuen. Ño! Aiztoz ebakitzen hasi nintzen, eta ezin. Astoa onttoari lotu nion, eta motozerraren bila itzuli nintzen etxera. Lasterka egin nuen joan-etorria, baina bueltan, astoa itota aurkitu nuen, zintzilik, onttoa hazi egin baitzen.
- Jesus, gizon! Moisesek ere ez dakit horrenbestekorik egin izango zuen!
- «Jesus» hori ez duzu ondo esan, Moises lehenagokoa izan baitzen. Honek itsasoa erdibitu zuen, eta ez naiz batere harritzen. Neu ere ibilita nago igeltsero, itsaso azpian baldosak ipintzen.

Noizbait etxeratu nintzanean, bide guztian irrikaz nentorren zigarrotxoa piztu nuen, birtualki, erretzeari utzita bainengoen. Gozooo! Eskerrak tanatorioa ez zen izan sagardotegi bat, azken denboraldiko txotxean bezala, Astigarragako lagun batekin. Egunez sartu, egunez irten. Sartu ginenean, artoak ereiten ari ziren baserrietan, eta irten ginenean, artoak erneta zeuden.

V

Garcia Marquezek ere ezin izan zien bizi-legeei iskin egin. Bere agur-gutunak honela zioen:

«Jainkoak bizi zati bat balemaid, gauzei balioa nemaieke, ez balio dutenagatik, esan nahi dutenagatik baizik (...) Lo gutxiago eta amets gehiago egingo nuke (...) Xoil jantziko nintzateke (...) Ez nioke egun batorri ere joaten utziko, maite dudan jendeari maite dudala esan gabe». Eta abar.

Aipu hori norbere erara betetzen hasita, oso antzeko gurariak izendatuko genituzke, bakoitzaren trebetasun literarioan bakarrik ezberdin. Garcia Markezen agur-gutunean, betidaniko egia bat berraurkitu nuen: «Heriotza usnatu behar, bizitzen ikasteko». Berandu, baina seguru. Hots, seguru, baina berandutxo.

Zer egingo genuke berriz jaioko bagina? Besteena ez dakit, baina susmatzen dut neuk zer egingo nukeen. Biltzen dut egin dudan guztia, eta horixe egingo nuke berriz. Eta berriz ere heriotzaren hurbilak irakatsiko lidake bizitzen. Merezi al du gauza bera bigarrenez probatzea? Niretzat nahikoa da behin bizitzea.

Pentsazue munduan haur bat bakarrik dagoela. Haur hori bihotz guztien jabe litzateke. Denak liluraturik, xoraturik lituzke. Beharbada, gerrarik ere ez litzateke inon abiatuko, haur horixe galtzeko beldurrez, dela beltz, hori edo zuri.

Pentsazue orain, munduaren antipodetan, beste haur bat agertu dela. Miraria erdibitu da. Bigarren haurra ez da hain miragarri izango, eta lehenengoak ezingo dio eutsi aurreko xarma guztiari. Bigarrenarekin zer gertatu den ikusita, haurrak ugaltu ahala zer gertatuko den ateratzeko, ez da igarle izan behar. Zer du akatsik lehen haurrak, bakarra zenean bezain miragarri izaten ez jarraitzeko? Ba, uste dut haur hori neu nintzela, bat-batean, ezjakinean, Ulises bihurtu nintzenean.

Carpe

Hain kargatua sentimenduz, non zuhaitza erortzen ari. Aleak jalkitzen, sentimenduak gelditzen. Alderen batek amore eman behar, eta zuhaitza etzan da. Sentimenduak sentimenduen gainera pilatzen direnean, fermentazio bat abiatzen da. Hobe azpitik alde egin. Esan zenuen, Pascal: «Unibertsoa da esfera bat, zeinaren erdigunea toki guztietan baita, eta zirkunferentzia inon ere ez». Ongi da. Errenditzen naiz zure esferan erdigune saihetsezin bat izatetik. Banoa zirkunferentziatik kanpora, erraz jarri baitidazu, baldin «inon ere ez» badago.

Zuk ezin zenuen esaldi hori jaulki zientzialari bezala. Are gutxiago, matematikari bezala. Jainkoaren definizio bat, agian? Ziur nagoena da, formulazioa osatu zenuenean, irribarre bat atera zitzaizula. Esan zenuenean bezala: «Ohi baino gutun luzeagoa idatzi dut, ez baitut astirik laburragoa idazteko». Beste irribarre bat. Horrexen bila noa. *Iribarre bat*. Umorea da (omen) barrea. Irribarrea da (ziur) ingenioa. Udaberria ere abian baita berriz. Badakit alaigarri mingotsa izan daitekeela, «pandemonio» bat ganean dugula. Horregatik, antzinetatik jaso genuen goiburura joko dut: «Carpe diem». Horazio. «Bil ezazu denbora laburrera itxaropen luzea». «Beatus ille... Dohatsua hura...». Egunean poesia bat. Nik irakurtzen dut bat, beti berdina, atzokoa, adibidez:

Carpe diem. Dies illa.
Atxiki eguna. Egun hura!
Gau amaigabe bat
non batu baitziren
ezina eta ez-nahia.
Ezin lokartu pozez
eta ez nahi lokartu
poza eten ez zedin.
Gau eternoa
poz infinitua.

Ume bat hantxe
ni, edozein
egun zoragarri bat
noiz argituko zain.

Carpe diem. Dies haec.
Atxiki eguna. Egun hauxe!
Ez itxaron
gaixotasun batek
irakatsi arte.

Grande kakazaharra

Gure haurtzaroa kontatzen gozatzeko modukoa izan zen, bandera espainola jasotzetik bertatik. «Cara al sol» kantaren eta «¡Viva Franco!» oihuen artean aldarrikatu behar zen, astiro eta banan-banan: «¡España, una, grande, libre!». Mutiko zapo batek, «libre» ordeztu, «kakazaharra» marmartu zuen. Halaxe zabaldu zen herrian «una grande kakazaharra» esamoldea, gero elkarri maiz esango geniona: «Hi haiz una grande kakazaharra!». Nik piltzartasun hori futbolearen sentitzen nuen gehien, beti atezain, porrot guztien errudun.

- Jo baloia! –agintzen zidaten.
- Ezin dut harrapatu –negar egiten nuen.
- Ba, egon geldi berak hi jo arte!

Izu nintzen jo nintzan, eta izuago albotik sar zedin. 5-15 urte arteko eskola mistoan, mutil handiagoei aise abusatzen zuten txikiagoei. Eskerrak baziren neska garatuak ere, errespetua sortzen zutenak. Nik, futbolak eta borroka dohakabeak saihestearren, hantxe ikasi nuen nesken gonapean sartzen, ezkutatzeko. Onartzen eta babesten ninduten, eta balantze osoan, onetik gehiago jaso nuela uste dut txarretik baino.

- Zaindu esnea, ume! –agindu zidan amak iluntzean.

Erratz kirtenarekin atean jarri nintzen. Amak, bueltan, esnea sukaldean zabaltzen ikusi zuenean (harentzat esnea isurki arimaduna zen), oihera egin zuen:

- Baina, txotxo! Esne guztia badoa!
- Zaintzeko ez al duzu esan? Hemendik ez pasako! –erratz kirtena goian nuela.

Aitatxik esperientziak egiteko erabiltzen ninduela uste dut. Oihan trinko batean aurretik bidali nahi ninduen, eta esan nion:

- Ez, aitatxi! Segi zeuk aurretik. Zu pasatzen zaren tokitik neu ere pasako naiz.
- Bai gero? –berak.

Ni lepoa jokatzeko prest nengoen. Zangoak irekiarazi zizkidan, arkuan. Irrigarria aitatxi, nire hankartetik pasatzen, sugea larru zaharra uzten bezala. Pasatu zen, zutitu zen, gorputza astindu zuen eta eraso zidan:

- Ea orain hi nola pasatzen haizen hortik!

Eperra?

Txakurretan, «Zuri», «Txiki», «Zoli» eta ohikoez gainera, baziren «Puzkin», «Trostki», «Truman» eta halakoak. Puzkinak ertain iletsuak ziren, beti traban. Trostkiak mastinak ziren, eta baziren «Truman» batzuk ere, bulldog beldurgarriak. Gero, izen horien benetako jabeak ikasten hasi ginenean, harrigarriena «Txurtxil» izan zen. «Txau-txau-txau», hankaperaino sartzen ziren txakur ziztrin haien izen naturala «Txurtxil» zela beti uste izan ondoren –«Txurtxil! Alde hortik!»–, ezin nuen izen hura bat egin bigarren mundu-gerrako gizon kupel harekin.

Emakume bat txakur gizen bati tiraka. «Beethoven! Zatoz, ba!». Haur-talde bat dortoka bati jarraika. «Donatello! Hain bizkor ez!». Orduan inor ez zen harritzen taberna batean entzuteaz: «Lenin! Atera ardo zikin bana!». «Lenin» tabernari bat zen gure herrian, jenio txarrekoa hilgoran eta mutua ilbeheran. «Karakala» zapatariak kinkila-saltzaile bati esaten zion: «Zer, Vivaldi? Oraindik ere aberasteke?». Tratulari gerri-puztu batek autobusean bi txartel ordaintzen zituen, bakarrean kabitzen ez eta. Txoferrari hitz egiten baitzion, kobratzaileak atzeko jarlekuetara aldarazi zuen. Erremedioak ez zuen balio izan, handik ere txoferrari hizketan jarraitu baitzuen, bere trumoi-ahotsean. Umeok ez ginen beldurtzen hura ikusiz, baina haren izena entzutean –«Badator Herodoto!»–, ezkutatu egiten ginen.

Hartan, zaldun adintsu bat agertu zen herrian, soldadu-lagun bat agurtu nahi zuela eta. Kuarteleko bizitzaz geroztik ikusi gabea omen zuen. 50 bat urte. Taberna batean galdetu zuen:

- Non topa nezake «Larrañaga» abizeneko gizon bat?
- Buf! –tabernariak–. Larrañagak herri honetan atean-atean dauzkazu.
- Izena «Jesus Mari» edo.
- Buf! Izen horiek ere hainbeste baitira herrian! –tabernariak.

Zaldunak ezizen bat aipatu zuen azkenean, «Eperra» edo, eta tabernariak:

- Eperra? O! Eperra neu naiz barren!

Heliora

Emakume adintsua zen jada, «Heliora» zeritzona. «Heliadora», seguruenik, baina berak «Heliora» zioen beti, eta inork ez zion kontra egin. Dendako bezeroen solas batean esan zuen:

- Zaharrak ez du pentsatu nahi gaztetasuna joan zaionik, eta gazteak ez du pentsatzen zahartuko denik.
- Zahartzaren txarrena hileta askotara joan beharra dun –esan zuen «Portzio» izeneko gizon batek, eta Heliorak:
- Ez duk hainbesterako izango, norbera ere hil zitekek eta.
- Heure hiletara ez dun «joan» beharrik izango –Portziok.
- Inorenera ere zertarako, berarekin hitz egin ezin bada? –Heliorak.
- Jesus, Heliora! –hots egin zuen dendari-andreak–. Zuk esaten dituzu esatekoak!
- Handiena esateko zeukanat! –Heliorak–. Atzo sator zuria harrapatu ninan.
- Sinesten dinat! –arrazoi eman zion arteko Portziok–. Neuk ere atzo zozo zuria harrapatu ninan.
- Jesus! –oraingoan Heliorak–. Harrigarria denak egun berean gertatzea!

Heliora mendi urrunekoa zen. Aspaldi alargundurik, bakarrik bizi zen. Urtean lau aldiz jaitsiko zen kalera, urtaro bakoitzean behin. Neguan, San Tomas azokarekin, udaletxeak antolatzen zuen herri-bazkarira. Eta bide batez, negurako jenero batzuk eroatera.

- Zer moduz bazkaria? –galdetu zuen dendari-andreak.
- Ongi, baina triste samar –erantzun zuen emakume batek–. Gazteak falta ziren.
- Utzi bakean! –agindu zion Heliorak–. Zahartuko ditun, guk adina sufritzen badute. Heliora emakume pertxenta izana zen, eta zen oraindik, pertxentki orraztua beti. Eta agurtzeko, esan zuen:
- Goazen, datorren urtean etortzeko ere.
- Heliora! –esan zion dendari-andreak–. Urtea badoa eta egutegi bat ere beharko duzu. Tori!
- O, ez! –Heliorak–. Iazkoa ere estreinatzeko zeukanat. Hartan, agure makur samar bat sartu zen dendan, oinak pixkat narrasean, eta auhen egin zuen erdi inkesan:
- O! Zerbaiten bila etorri naun, ba, ni!
- Joan lasai! –animatu zuen Heliorak–. Etorri haizela gogoratzea ere ez duk gutxi.

Praka ezkutak

Orduan mezak latinez eta herriari bizkar emanaz izaten ziren. Akolitoak ere berdin. Don Deolio geraka ikusten genuen, gorputz-mugimendu bitxiak eginez. Hartan, bulto bat bezalakoa hauteman genuen bere zapata handietan. Sotana eta alba ia zoruraino iristen baitziren, zaila zen bultoa bereiztea, baina gerriari eta hankei eragiten zizkien mugimenduetatik, ohartu ginen apaizaren prakak erortzen ari zirela. Don Deoliok etsi zuen, antza, ezin ziela eutsi. Jarrera liturgikoak besoak zabal eta gora edukitzea eskatzen baitzuen. Eta plast erori zen multzoa, elefantearen gorotza bezala. Zapata handiak libratzea ez gutxi kosta ondoren, oin batekin multzoa apartatu eta agindu zigun ahope irrituan: «Eraman hauek sakristiara!». Horixe egin genuen bi akolitoak, apaizaren prenda ezkutu hari zein ertzetatik heldu ez genekiela. Ikuskizuna herriko kristau-kontzientziaren osagai geratu zen.

Akolitoen ilusio gorena apaizarekin gaixoak bisitatzea izaten zen, etxe guztietan ematen baitzuten zerbait. Zaharretxera ere joan behar zen, eta gu beti pozik apaizari laguntzeko, eskolatik libratzeagatik. Emakume batek, adinez aurrera zihoan arren, oso elegantea izanaren seinale guztiak aldean zituen oraindik, ile urdin luzea barne, nahiz eta apur bat nahasia. Lehen bisitan, Don Deoliok galdetu zion:

- Zelan, Engrazi?
- Hementxe, jauna, alimentu sanoak jaten gaixotua.
- Ez al zaude, ba, ondo zaindua? –apaizak.
- Oso ondo, jauna. Hemendik eskapatzen ez dago erraz.
- Egingo al dugu konfesio samur bat, Jainkoaren bakean?
- Konfesatu zertarako? –hots egin zuen emakumeak–. Lehengo bekatuak orain libre dira eta ni ez nago berriak ikasteko moduan.
- Besterik ez bada, Jainkoa eskertzeko, Engrazi! –haserretu zen pixka bat Don Deolio–. Gure Jainko eskuzabala!
- Bai, jauna, bai! Jainkoa emankorra da, baina, aukeran, gutxitxo ematen du.

Haurren logika

Akolitoek, elizan, gauza asko eta oso hurretik ikusten genituen. Zeremonia maitagarri bat Haurtxo Jesusi muin ematea izaten zen, apaizaren eskutik. Inguruaz ondo jabetzeko oraindik gauza ez ziren txikienak ere zer ikusiko hurbiltzen ziren, zaharragoen arrimuan. Saskiko iruditxoari erreparatzean, neskatxo haur batek galdetu zuen: «Apaizaren haurtxoa al da hau?». Pentsa nolako lotsaria amarena, eta zenbat irribarre zehar inguruan! Neskatxo berak, telebistari gurasoek uste baino adiago begiratzen zionak, galdetuko zuen lau urte geroago:

- Arnaldo Otegi pintorea al da?
- Zer, ba? –harritu ziren etxekoak, eta berak arrazoitu:
- Beti ari baita «markoa» gora eta «markoa» behera.

Urtebete geroago galdetu zuen:

- Arzallusi zergatik esaten diote «jesuita?».
- Izan zelako! –erantzun zuen amak.
- Izan zelako zer?
- Jesuita izan zelako.
- Zer da «jesuita?» –berriro haurrak, eta amak:
- Ba, Arzallusen antzekoa izatea.

Akolitoek eliza guztia zeharkatu behar izaten genuen, diru biltzen. Ni neure txilindun platerarekin, harro eta autoritate sentitzen nintzen. Gizon batek ez zuen ezer ematen eta uste nuen hantxe egon behar zela, eman arte. Atzeko bati entzun nion:

- Mutiko! Ematen ez datorrenaren zain bahago, eskukoak aldeko dik.
- Ni ez nauk hemengoa –esan zidan gero emakume batek, eta atzeko emakumeak argitu zion:
- Hango diruak balio din hemen, e!

Korupetan gizon batek hots egin zidan:

- Aizak, mutiko! Zer kantatzen ari haiz?
- Aingeru jagolearen argiarentzat. –Eta gizonak:
- Esaiok jagole horri iluna ona dela, txanpinoietan bezala.
- Niri ez zait txanpinoirik gustatzen –esan nion.
- Ilunetan egotea ere ez?
- Beldurra ematen dit.
- Bai, ba! –gizonak–. Horiek biak batera baitoaz–. Platera eskuan-da, ez bainuen alde egiten, agindu zidan:
- Esaiok aingeru jagoleari gurean txanponak toki jakinean daudela eta berak hartzeko komeni zaiona.

Onak eta txarrak

Gure aitatxi «jakintsua» zen bere esanean, baina majo estutu nuen, galdetu nionean ea ilargia txikitzean, hango biztanleak nora joaten ziren.

- Hortxe harrapatu nauk!
- Ez zara, beraz, horren jakintsua! –nik.

Denerako baitzeukan tapotza, erantzun zuen jakintsua dela ez dakiena estaltzen dakiena. Esan nion:

- Oraingoan ez duzu ondo-ondo estali.
- Egia! Beti egingo banu, Jainkoa nindukek.
- Jainkoak ba al du, ba, «ez dakienik»?
- Ez zekiat –Aitatxik–. Esan, behintzat, ez dik askorik esaten.

Hurrengo egunean esan nion:

- Amatxik esan du ilargian ez dagoela inor. Deabrua dela egur-zama batekin.
- Amatxik esan badu, dakielako izango duk –berak.

Amatxi oso pragmatikoa baitzen. Txakurra hil zitzaigun, gure «Zoli» paregabea. Elizaldeko andre batek txakurkume berri bat opatu zion, eta amatxik galdetu: «Haurtxoen ipurdia garbitzen ba al daki?». Saltzaileak erantzun zuen haren amak bazekiela eta umea ez zela gutxiago izango, ondo irakasten bazitzaion. Bigarren «Zoli» hura bezalako garbigailurik ez zen sartuko gurean. Ez aitatxi bezala, behin erratzarekin hasi eta amatxik esan zionean:

- Aizu! Garbitzea ez da saskarak tokiz aldatzea, e!
- Ba, orain zaila izango da lehengo tokira ekartzea.

Aitatxi eta amatxi beti zebiltzan marmarrean, beti elkarren beharrean. Eta gutxitan isilik, lutu larriren bat tarteko ez bazen.

- Nora zoaz, ipurtzuloa bistan-da? –kargu hartu zion amatxik.
- Ipurtzuloa bistan nik? –harritu zen aitatxi–. Beti itxita edo beterik badaukat!
- Beti behar ez direnak esaten! –amatxik.

Aitatxik erantzun zuen aspertuta zegoela beti behar zirenak esaten. Ildotik mirariz bakarrik irteten zen amatxik eraso zion:

- Esan beste era batera!
- Ba, hara:

Batak behar ez direnak esan, besteak behar denik ezin jasan horrela konpon daiteke errez, baina luzaro nekez.

- Konpondu beharko dugu, ba! –amatxik.
- Konpondu bai, baina nola? –aitatxik.
- Beti ondo ez, ikusten duzunez.
- Baina zuk nirekin zortea izan zenuen, ezta? –aitatxik. Eta amatxik:
- Bai, noski! Zortea onak eta txarrak izaten dira.

Hilotza tente

Umetan, sosen batzuk biltzen nituenean, dendara sartzen nintzen, galletak edo limonada eroatera, eta bide batez, hango solasak entzutera. Nemesi zeritzon andre adineko batek senarrari kanpoan itxaroteko agindu zion. Txakurtxo bati bezala. Dendari-andreak esan zion uzteko gizonari barrura sartzen, baina Nemesik ezetz. Nahikoa egiten zuela ateraino iristeaz.

- Itxura txairoa dauka, ba! –esan zuen dendariak, eta Nemesik:
- Ez pentsa! Hankak sano dauzka, baina burua ... «Komuneko argia piztuta utzi duzu!». Eta diost: «Noiztik?». Atzo esan nion: «Galtzak atzekoz aurrera jantzi dituzu!». Eta berak: «Zertarako?».
- Gure arazoa da orain –jaulki zuen beste emakume xahar batek– ezer gutxi egiteko gauza izan, eta denbora berdin bete behar.
- O! –hots egin zuen garaile Nemesik–. Naturak asko laguntzen dio zaharrari denbora betetzen. Gauza bat egiten denbora luzea behar, eta beste hainbeste, zuzentzen.

Agure zoli batek esan zuen bere andrea ere fase bitxian aurkitzen zela. Ezertarako gauza izan ez, eta ezer egin gabe ezin egon.

- Ba, ni majo entretenitzen naiz eskela-orriekin! –jaurti zuen Nemesik.

Niretzat solas hartako inpaktanteena andre batena izan zen, baserri urrun batean bakarrik bizi zena bera. Negua eta gaua baitzen, kaleko bezero batek galdetu zion ea ez zeukan beldurrik, hain bide luze eta ilunetan. Emakumearen erantzunak dardaratu ninduen:

- Beldurra badut, baina nik ere beharko dut lagun bat, ezta?

Eta hara gero, afaritan, non dioen gure aitak irratian entzun zuela, heriotz iragarki baten ondoren: «Hilotza Zumaiako tanatorioan egongo da, tente». Ama saiatu zen irudi brutal hura biguntzen, baina esanda zegoen. Hain biziro zauskatu ninduen, ezen gauetan itzartzen hasi bainintzen, ohe barrenean tentetasun mortal bat ikusiz. Heriotzak ez ninduen beldurtzen, baina bai haren irudiek.

Jan berriz

Emakumeak ez zekien ume batekin zer egin, senide txikiago batekiko jelsiagatik. Saiatzen zen mutikoaren begirada krudela gozotzen, baina dena beretzat nahi duenarentzat ez dago laztan neurrikorik. Txikiena altzoan zeukanean, nagusitxo (lau urte) berehala inguratzen zen, ez hainbeste, altzo zati bat konkistatu guran, senide haurtxoa altzotik bota guran baizik. Amak, beste hainbat arrazoi alferrekoren artean, esan zion: «Baina, laztantxo! Zure senide txikia ere neure sabelean egona baita!». Umeari erremun gordeenetik irten zitzaion: «Ba, jan berriz!». Ez nintzen ausartu «on deizula!» esaten.

Ikusi ditut umeak euren senide txikiagoak torturatzen, haur-kotxea amildegirantz bultzatzen, jangar bihurtzen, euren buruak apurtzen, txakurrek bezala hozkatzen. Baita arrazoi sekular bat desarmatzen ere, etxe batean gizon bat irten zitzaidanean, neskato bat eskutik zekarrela.

- Egun on! –agurtu nituen–. Bai neskato liraina ere hauxe!
- Liraina bakarrik? –hots egin zuen aitak–. Ez dakizu zer egin zuen atzo!
- Gauza txarrik ez, behintzat! –espantu egin nuen.

Sei urteko neskato barrurantz ezkutatu zen, jauzika eta barreka.

- Apaizak katekesian esan zion: «Jainkoaren begia gainean dugu beti». Gure neskatoak zuzendu zion: «Jainkoak sei begi ditu».
- Nola sei? –harritu zen apaiza.
- Aitak bi, semeak bi eta usoak beste bi.
- Galdetuko zionat sakristauari –erantzun zuen apaizak.

Geroago jakin nuen sakristauak baietz erantzun zuela, eta apaizak bertsioa ontzat eman zuela. Sakristauen esanean bizi ziren apaizek («karrera laburrekoek») luzeago irauten zuten herrietan. Hurrengo atarian agure bat aurkitu nuen eserita, eskuak makila tenteari atxikiz.

- Zelan, Anton?
- Ondo ez, baina pozik.

Izan al daiteke egia paradoxa antzeko hori? Arrazoiari burualdi batzuk emanik, ez nion gako argirik aurkitu, baina agureak ez zuen gezurrik esan.

Zopak

Gure amak batzuetan barre egiten zuen, baina sarritan senetik ateratzen zuten aitatxi-amatxien kalamatrikek. Eta ama ernegatzen zenean, arriskutsua zen, edozer agintzen baitzizun. «Hartu erratz handia eta garbitu atartea!». Nire aurreko anaia zaharragoari oilar-airea sartu zitzaion, bederatzi urte egitean. «Bederatzi» zenbaki handiagoa iruditzen zitzaion «hamar» baino. Ama betilun sumatzen bazuen, ezabatu egiten zen. Baina gure amak bazuen guk adina malezia, eta buelta batean ez bazen, bestean, laster harrapatzen gintuen zepoan, batez ere anaia hori. Atartea garbitzen jarri zuen, eta han zebilen mutikoa, erratza eskuan eta hortzak kirrizkan: «Ez dagoena garbitzea gogorra da gero!».

Gurean neurritz jan behar izaten zen, neba-arreba mordoa baikin. Aitaxi-amatxiak, gurasoak eta senide zaharrenak mahai batean (altuagoa berau), eta lau edo bost gazteenak beste batean esertzen ginen. Mahai honetatik, anaia marmartiak oihu egin zuen: «Ama! Zopak nahi ditut!». Amak erantzun zuen: «Ez daukagu ogirik, ume». Eskatzaileak ez zuen dudarik izan: «Berdin dio! Nik ogi gabe jango ditut». Eta halaxe jan genituen zopak. Gure ama harrotu izango zen, beharbada, ume konformistak zituelako, baina ez bide zen gehiegi pozten, gerora entzun genionetik: «Umeei ogirik ez daukazula esatea gogorrago da norberak harria jatea baino».

Gure anaia marmarti hura handitu zen noizbait, ustez, eta bere lehen gaupasatik eguna argituta itzuli zen. Isilik eta gordean etxeratu nahi zuen, baina askaurre beti ere ilunean, esne-marmita hutsetako bat jo zuen, eta hankaz gora joan ziren bera eta ontzia, burrunba handian. Aitaxi agertu zen galdez: «Zer gertatu da?». Gure anaiak, amorruez, aitaxik ontziak apropos ipini zizkiolakoan, mehatxu egin zuen: «Jotzen bazaitut!». Eta aitaxik isekaz: «Aurrena altxatu egin beharko duk, ba!».

Zahar-etxean

Akolitoa nintzela, zaharren egoitzara ere joan behar izaten zen. Eta gu pozik, eskolatik libratzeagatik. Egoitzan, emakume bat doi-doi zen ibiltzeko gai, eta apaizak esan zion:

- Bazabiltza, Ambrosi?
- Ai, jauna! –auhen egin zuen emakumeak–. Ibiltzea al da hau? Zertzuk ikusi behar ditugun, arin hiltzen ez bagara!
- Ez al zaude esku onetan? –galdetu zion Don Deoliok, apur bat noraezean.
- Bai, jauna, bai! –baieztatu zuen emakumeak–. Pentsa zein estimaturik nagoen, ez didate uzten inora joaten. Ez joaten, ez egoten! –marmartu zen.
- Jesus, emakume! –hots egin zuen apaizak–. Zaintzaile finen entzutea dute, ba!
- Finegiak, jauna! –hots egin zuen emakumeak ahots irrituan–. «Ibili egin behar duzu! Hau eta hori eta bestea egin behar duzu!». Bizitzaren ustezko luzatze txiki batek merezi al du pairatzea zaharroi eragiten zaizkigun neke guztiak?
- Baina, Ambrosi! Nik ondo ikusten zaitut. Oso ondo, esango nuke.
- Hainbeste ere ez, jauna –apaldu zen emakumea–. Hemen denak ikusiko ditu burumakur. Ba al daki berorrek zergatik? Inguruan zer dagoen ez ikusteagatik!

Pasilloan aurrera gindoazela, Don Deoliok gizon bati esan zion:

- Hemen gure «Gaztelu» ere! Zelan doa bizimodu hori?
- Hau zahar-etxea da, jauna –erantzun zuen Gazteluk.
- Zu ez zara horren zaharra! –losintxatu nahi izan zuen apaizak.
- Ez, beharbada –onartu zuen agureak–. Zahartu naiteke gehiago. Baina hasita nago topatzea hainbeste kostatako gauza bat zertarako den ez jakiten.

Hurrengo gelan, «Karpan» ezizeneko gizontxo bat hil-hurren zegoen. Apaiza azken sakramentuak ematera sartu zen. Konfesio aurretik, bazen ukazioen erritu bat, non galdera bat baitzen: «Ukatzen al duzu deabrua eta gorrotatzen haren izate guztia?». Agurea isilik zegoen, nik hilda uste nuen, eta apaizak ekin zion: «Baietz esan behar duzu, Karpan!». Agureak arnasa doi-doian eta etenka erantzun zuen: «Jauna! Batek ez daki noren eskura iritsiko den, eta nik ez dut inorekin haserre joan nahi».

Sandalio

Orduan ez zegoen telefonorik etxeetan. Sandalio arrantzalea zen, baina baserri batera ezkondu zen. Gabon-afari baten ondoren, kalera jaitsi nahi zuen eta ez zekien zer aitzakia jarri. Hartan, behe-suko laratzari heldu eta kateari soinu batzuk eragin zizkion, esanez:

- Zer, lagunzaharra? Bai! Oraintxe bertan? Uu... ba...
- Norekin ari zara hizketan? – galdetzen dio Anastasi andreak.
- Txankarraneko Ebalisto da. Ea joango naizen euren etxera, oker handia ez bada.
- Jesus, gizon! Hori baino ez bada, egiozu gustua gizonari.

Biharamunean Anastasik emakume lagunei diotse:

- Ikusi bazenute bart gure gizona «tiliponotik» berbetan! Horiek, izan ere, kanpoetan ibiliak baitira.

Behin emaztearekin haserretu zen, eta Sandaliok, lehen pentsamenduari jarraitzeko talentua zeukanak, ospa egin zuen etxetik, betiko zihoala esanez. Bihurgunean ezkutatzear zela, emazteak esaten zion: «Begiratu, ba!». Sandalio aurrera, setati eta marmarti. Ezkutatu aurretik, ordea, ezin izan zion begiratzeari eutsi, eta Anastasik oihu egin zion, gonak jasoz: «Honek ekarriko zaitu!». Eta Sandaliok erantzun: «Ni ez nazgo horrekin haserre, zeurekin baizik!».

Biak eskola berera ibiliak, Sandaliok ez zuen hasiera gozoa izan. Maisuak mahaira deitu zion eta: «Egingo al dugu bokalen errepassoa?». Maisuak A hizkian hatza jarri eta: «Hau zer da?». Sandalio isilik. «Hau zer da?», behin eta berriz maisuak, eta Sandalio mutu. Arreba zaharrago batek ez zuen gutxi sufritu, eta jolasorduan diotsa neba txikiari:

- Baina, Sandalio! Zergatik ez diozu A esan, zuk horiek badakizkizu eta?
- Bai! Esan A, eta gero E, eta azkenean denak esan behar!

Ezkondu eta urteetera, auzoko tertulia batean, Sandalio ere tartean zela, pasadizo hori solasera irten zenean, Anastasik esan zuen:

- Orduantxe hartu nion honi ez dakit maitasuna ala errukia.
- Biak dira onak horiek! –dio solaskide batek, eta Sandaliok erantsi:
- Batera, ez hainbeste. Nik nahiago ditut banaka, bata ez denean, bestea.

Azkurak

Gizon batek zioen goiz askotan jaikitzen zela bezperan non ibili zen gogoratu ezinik. Gure aitatzik erantzun zion berak gaitz hori antzinatek gaitz zuela. «Noan toki guztietan, hango berezitasun bat jaten dut. Gero, atzeko usainetik aise ateratzen dut bezperan non ibili naizen».

Oroimenak huts egin arte itxaron beharrik ez dago, metodo batzuen balioa frogatzeko. Aitatzik idi-proba zuela zen. Dirua ere jokatzen zuen, eta behin, bera sozio zen auzokide baten idiekin, galtzea egokitu. Goizaldean, etxean sartuz batera, abarkak sutara jaurti zituen, biraoka: «Katuekin ere egingo nian horrenbeste!».

Amatzik aitatzikiri esaten zion txerriek odolkiak eginda ekartzeko garaia aspaldi joana zela. («Pepetxu eta Popatxu» ipuinaren aipua). «Zu beti berdindu!», agiraka egin zion amatzik, eta aitatzik erantzun: «Nik beti baino nahiago dut neuk nahi dudanean». Amatzik bazioen haizeak intxaurrak bota zituela, aitatzik erantzun zion haizeak astindu egiten zituela. Bota, arbolak botatzen zituela. Amatzik argudiatu arbolak jarein bakarrik egiten zuela. Aitatzik erantzun, erori, intxaurrak erortzen zirela. Beti teman. Behin amatzik eraso zion: «Zer darabilzu, hazka eta hazka?». Aitatzik ez zuen erantzun, hazka jarraitu baizik. «Baina non daukazu azkura?» –haserretu zen amatzik, eta aitatzik erantzun zion inon ez zeukala, baina, astia zeukanez gero, eginda utzi nahi zuela, behar zenerako.

Nire kasuan, gure ama ez dakit non zen, ni akordeoi baten barruan munduratu nintzenean. Gure soro bat errepidearen kontra-kontran zegoen. Aitatzik maiz ibiltzen zen han, «jendea pasatzen ikusiz», amatzik esanean. Auto bat geratu zen eta gidariak oihu egin zion:

- Zer, lagunzaharra? Txizaginan denen bistan?
- Neure lurrian ere ezin al dut txizarik egin?
- Baina horrela? Errepidera begira?
- Zeuk begiratzen duzu, ba, bazterrera!

Ñoo!

Akolito batentzat egun zoragarria zen apaizari soroak bedeinkatzen laguntzea, nonahi ematen baitzuten zerbait gozoa. Gure erretore Don Deoliori lagundu nion batean, baten baserri urrun bat, nahiko iritsiera zailekoa. Eguraldia ere gaiztoa, etxaldea mendi-zulo sakonean ikusten zen. Tontor betetik apaizak esan zuen: «Bertotik egingo diagu». Bedeinkapenaren ordainez, oilasko pareta edo horrelako zerbait elizari oparitzea zen ohitura. Baserri hartatik ez zen heldu ezer. Etxeko alaba baten ezkontza zela eta, apaizak kargu hartu zion neskaren aitari:

- Zuk baduzu aurretik zor txiki bat elizarekin. Hura kitatu gabe, ez gaitezke pasa hurrengoetara.
- Lurren bedeinkapenaz ari al da berori? –Apaizak baietz, eta gizonak: –Bidali nuen, ba, tontor hartatik oilasko pareta, aginduz: «Zoazte parrokoarengana, zain egongo da eta!». Ez al dira iritsi?
- Iritsi behar al zuten? –galdetu zuen apaiz desnoratuak.
- Ez, beharbada, berorren bedeinkapena bezala.

Akolitotzak dotrinan ere (katekesian) bazuen bere abantaila. Batzuetan libre uzten gintuzten gure zerbitzuen ordainez, baina nik nahiago izaten nuen bertan geratu, Don Deolio zaharra tokatzen zenean.

- Zerua non dago? Goian ala behean? –galdetu zuen solemneki.
- Erdian! –erantzun zuen mutiko zapo batek.
- Eta Jainkoa non dago? –Don Deoliok.
- Toki guztietan –mutiko zapoak.
- Zuen txiza-putzuan ere bai?
- Bai, jauna! –mutikoak.
- Orduan ez dik usain ederra izango! –Don Deoliok.

Hala ere, akolito baten harrotasun nagusia, nirea behintzat, hiletako segizio-buru joatea zen. Buru hierarkikoa apaiza izan arren, gurutzeak joan behar zuen aurrelari. Eta gurutzearen eramaile, nor eta ni. Hura zen larruak ezin hartua! Luziano izeneko gizon bat zen hilkutxan zihoana. Bere betiko zurrut-laguna, Afrisio ferreteroa, tabernako atean zegoen tristerik, segizioari begira. Hilkutxa parean pasatu zitzaionean, hasperen egin zuen: «Ñoo! Gure Luzianok ez dik ondo egon behar, elizara zuzen joateko, tabernan sartu gabe».

Arima goian

Eztabaida beroan ari ziren tabernan. Tartean zen alberritar batek jaurti zuen:

- Herri honetan listotzat zaudete, baina tontoen proportzio bat ere baduk hemen.
- Zuen herrian tontotik listora zer alde zegok, ba? –bertako batek.

Hartan, herriko apaiza eta artzain bat sartu ziren, hauek ere teman beti. Artzainak, tonto-kontua entzunik, esan zuen tontoak eta listoak bereiztea oso erraza zela.

- Tontoa aurrean jartzen da, apaiza bezala, denek ikus dezaten. Listoa atzean beti, artzaina bezala, denak ikus ditzan.
- Zeu ere ikusi izan zaitut ardien aurrean! –apaizak.
- Baina txakurra atzean! –artzainak–. Jakin behar da toki inportantea nori utzi.

Artzainak urte erdi mendian eta beste erdi ibarrean egiten zuen. «Ez apaizek bezala –esan zuen–, kanpai baten azpian geldi». Apaizak eraso zion kanpaia astunagoa zela ardi guztien bulunbak batera baino. Zenbat bulunba beharko lirateke, kanpai bat osatzeko? Kalkuluak laster amaitu ziren, batek, mugikorra eskuan-da, hots egin baitzuen: «Kanpaiari tona bat emanik, 11.000 bulunba». Artzaina haserretu zen hizpide guztia mozten duten «kontakatilu txotxolo horiekin» (mugikorreatatik). Gai bat abiatzerako, zapla erabakia eta bukatua zeresana.

Apaiza bera ere gelditua zen behin zapla isildua. Mendi-etxe urrun bateko gizona hil zen. Ohiturak agintzen zuen apaizak hilotza jasotzera igo behar zuela, baina denborale zakur bat zela bide, beheko errepidean itxaron zuen. Noizbait, ahal bezala, estrata pikoetan behera, segizioak errepidea jo zuenean, apaizak esan zuen:

- Badakarzue?
- Bai, jauna! –andari nekatuetako batek–. Hau badakargu, baina arima goian gelditu da, eta haren bila berorrek joan beharko du.

Denboralearen urruma. Isilune zapalgarri baten ondoren, apaizak esan zuen:

- Ondo dago! Molda dezagun lehenik alde ustelkor hau. Arima hilezkorrak itxaron dezake.

Ezizen ozenak

Abereen izenak edo pertsonen ezizenak ez ziren bakarrik «Zuri», «Bizkor», «Zigor», «Kapur» eta halakoak. Mutikoa «Ulises» zen, maisuak behin, umetan, «Eliseus» esan beharrean, «Ulises» deitu ziolako. Eta huraxe gustatu denei. Bere aitak ere esan zuen: «Denek 'Ulises' badiote, etxean ez gaituk hasiko diferente egiten».

Mutikoa gero seminaria joan zen. Irakasle batek «Homerok» aipatu zuen, eta berak hots egin zuen: «Ezagutzen dut!». Irakaslea harritu zen, mutikoak azaldu zuenean bere aitatzik bazuela ahari bat, «Homerok» zeritzona. Behi bat ere bai, «Goldameir». «Geldi, Golda, geldi!». Eta aker bat, «Newton». «Gaur Newton ez zebilek gustura. Txokolatea nahi dik», esan zuen osaba Trifonek. Mutikoa saiatu zen txokolatea jiratzeko, eta bai jan ere aker demonioak!

«Kalkuta» behorra azoka guztietan ezaguna zen, karrotxo bati lotua beti, eta izeba Urianak bazuen untxi bat, «Pandora» deitzen ziona. Eta «Marconi». Buf! Makera izugarri bat, jan da lo, eta umeak erditu baizik egiten ez zuena. «Gure Marconik apropos egin dik!», haserretu zen amatxi. «Erroak dituen baino txerrikume bat gutxiago. Nahi al duk erro hori heuk edoski, Ulises?». Amatzik bazekien «Marconi» makerak beldur handia ematen ziola mutikoari. Eta askoz handiagoa «Platon» apoak. «Amatxi! Platonek aska zati bat jan du!».

Amatzik bazuen indioilar bat ere, «Einstein» deitzen ziona. Oilanda zela ekarri zuen, eta handitzean, bilobek esan zioten: «Baina, amatxi! Oilo horrek kakara itsusia dauka!». Eta amatzik: «Ikasiko du besteen artean». Ez zuen ikasten, eta itxura ere geroz bitxiagoa hartzen ari baitzen, «Einstein» jarri zion izena. Aitatzik, berriz, basurdekume bat bizirik harrapatu zuen, ume guztien pozerako. «Kafka» zela esan zuen, eta piztiatxo hura ikusita, izen aproposa iruditu zitzaien denei. Basurdea oso ondo konpontzen zen «Frida» ahuntzarekin.

Hondamenen Jainkoa

Suzko infernua izuzko ipuin bat zela sinesten hasita geundenean, hondamenak iritsi ziren: Biescas (ura), Ondarroa (amoniakoa), Zaldibar (zaborra) ... Hondamen infernalak, ipuinak izateko ere lar beldurgarriak. Saiatu ginen hitz egokien bila, eta ez genituen aurkitu. Lehenengoan, apaizak «Jainkoaren burubide misteriotsuak» aipatu zituen. Plazan, koplariak ebidentzia bat kantatzea erabaki zuen, labur, soil:

Ez dago ezer esplikaterik
hitz minduenak esanda.
Kantuz biltzeko baino hondamen
handiagoa izan da.

Itxaroten ez zituen txalo batzuk entzun zituen. Bigarreanean, apaizak «Jaunaren probidentzia ezkutua» aipatu zuen. Plazan, koplariak kantatu zuen:

Baldin Jaunaren probidentzia
bada hain adimentsua
berak azaldu beharko digu
zorigaitz honen zentzua.

Hirugarrenean, apaizak gogoratu zuen Jainkoak oso era ezberdinak dituela bere seme-alabei «aitaren etxera deitzeko». Koplariak, plazan, kantatu zuen:

Fedeak dio joan direla
Jainkoak berak deituta.
Ez al zezaken deitzeko era
xuabeago bat hauta?

Zenbat eta hondamen handiagoa izan, hainbat argiago gelditzen da bizitza dela arazoa, ez heriotza. Horretan, auzia ez da askorik aldatu, lehen gizakia arrazonatzen hasi zenetik. Artzain bat ospakizun samingarri haietako batera jaitsia zen. Elizkizuna amaitzean, apaizak, bera ere gertaerek zanpaturik sentitzen zenak, artzainari goibelki eta sentituz esan zion:

- Dohatsua zu, ia zerua jotzen bizi zaren hori!
- Ez dut, ba, gorago joan nahi, jauna –erantzun zuen artzainak–. Nahiago nuke berorren parean ibili.
- Behe honetan ez dago lainoa eta samina besterik. Zuk, goiera horietan, Jainkoa garbiago nabaritu behar duzu.
- Fedea gutxitzen ari da orduan, jauna –irribarre egin zuen artzainak–. Goietara datozenak berehala itzultzen dira.

Eguneko irribarre bakarra izan zen.

Azken gaua

Haitz tontor zorrotz baten azpiko sakonunean, mendi-etxe bakarti bat. Bi ahizpa zahar bizi ziren bertan, biak ezkongeak. Bata hilzorian jartzea gertatu zen. Bestea larritu zen eta apaizaren bila jaitsi zen berehala. Goranzkoan, elurra gupida gabe hasi zuen, eta mendi-etxea ozta-ozta harrapatu zuten biek. Bitartean, ahizpa gaixotuak, luze iritzita, hiltzea erabaki zuen. Apaiza saiatu zen ahizpa bizia kontsolatzen. Elurra sendotu zuen, eguraldia beldurgarriro zakartu zen eta gauak dena irentsi zuen. Biharamunean hilotza jasotzera berriz igo beharko baitzuen, gaua bertan egitea onartu zuen apaizak, ahizpa biziak eskaturik.

Etxe zahar-zaharra, nonahitik haize-txistua. Keak kedarturiko zurerian, amaraun-poltsak, hotzak uzkurduak. Senak beldurrerantz bultzatzen zuen, baina etxe hartan laurogei urteko emakume bat hilik zetzan, eta apaizak bazekien ahizpa zenduaren arimari laguntzea bezain obra ona zela ahizpa biziaren gogo sorostea. Honi lo ona opaturik, kare hezea zerion horma tripa-handi baten kontrara oheratu zen apaiza.

Biharamun goizean, kontuz irekitzen saiatu arren, hilotzaren gelako atea kirrinkada haserrea egin zuen. Leiho txikiaren kontraleiho sekula ondo itxi gabetik, elurraren nagusigoa nabari zen. Barruratu zenean, izutu zen. Oheburutik hilak eskua jaso zuen. «Hemen nago!». Apaizak hortzak estutu zituen, arima ahotik eskapa ez zekion. Hartan, bi buru hauteman zituen oheburuan. Bigarren susto handiago hartatik seneratu zeneko, ahizpa bizia hilaren ondoan zetzala ohartu zen, eta oihi egin zuen:

- Baina, Luziana! Nola oheratu zara hilotzaren ondoan?
- Jauna! –arrazoitu zuen ahizpa biziak–. Guk elkarrekin lo egin dugu beti. Nola utziko nuen azken gaua beronekin igaro gabe?

Apaiza herio punturaino dardaratu zuen pentsamendu batek:

- Orain bien erdian etzatea al dagokit?

Hil al da?

Haur bat kale jendetsu batean zihoan. Gizon bizardun eta bizartu bati iruditu zitzaion haur hura galduta zebilela, eta: «Neskatxo hau nor dugu?», galdetu zuen. «Neu!», erantzun zuen haurrak. O, bai! Ama non zegoen, eta «hor» erantzun zuen, atzerantz begiratu. «Eta aita?». «Hortxe». Nola zuen izena, eta «Maddi». Zenbat urte, eta: «Hiru! Laster lau egingo ditut». Bai neska handia! Bizardunak Olentzeroren lehengusua zela esan zion, eta haurra poztu zela zirudien.

- Zuri zer ekartzeko esango diot Gabonetan?
- Pistola bat!
- O! Niri beldurra damait horrek!
- Niri ez.
- Amak nola du izena?
- Amatxo.
- Eta aitak?
- Aitatxo.
- Nongoa zara?
- Etxekoa.

O! O! Datu hauekin eta pistola bat eskuan, ez dago beldurrik galtzeko munduan. Bizarduna ez zen ohartu hauraren aita-amak albo hurbilean zetoze, dena entzunez. Tira! Lasaitu zen, eta denak lagun egin ziren. Maddi lehen aldiz ikastolara joan zen egunean, etxekoak arduraz zeuden haurra nola moldatu izango zen. Bueltan, denak bere zain, galdetu zioten:

- Zelan? Asko ikasi duzu?
- Ez, antza, ze andereñoak bihar ere joateko esan du.

Lau urte eginak zituela, etxeko gonbidatu-bazkari batean, Maddi harrotu zen eta ez zen isiltzen. Aitak esan zion:

- Baina, Maddi! Ez al dakizu handiek hitz egiten dutenean, txikiek isilik egon behar dutela?
- Eta txikiok hitz egiten dugunean, handiek zer egin behar dute?

Noizbait joan zen mahaitik, eta amak sukaldean:

- Maddi! Zer entzun dut? Uzkerra bota duzu!
- Baina atzerantz!

Bost urte zituela, haurra artega zebilen. Birramama falta zen. «Joan zela».

- Bakarrik joan al da?
- Ez, laztana! –asmatu zuen amak–. Hegaztirik politenek lagundurik joan da.
- Eta ez da etorriko?
- Ez, laztana! Birramama, seguruenik, ez da gehiago etorriko.
- Hil al da?
- Bai, laztana! –esan behar izan zion–. Birramama hil egin da.
- Hobe! Horrela ez da galduta ibiliko.

Muxante

- Nola zu hemendik, Brigitte?
- Hemendik ere! Jendea hor ari da eguna nola bukatu ez dakiela, eta eni orai ere denbora falta. Non da ene gizona?

Brigitteren senar Muxante nonahi ikusten zen, baina ez zen erraza behar zenean atzematen, gehixko mugitzen baitzen. Herriko apezak begitan hartua zuen eta behin erran zion:

- Muxante! Ikusi zaitut ostatuan, ikusi zaitut ferian, ikusi zaitut plazan, eta behin ere ez elizan.
- Jauna! –erantzun zuen Muxantek–. Toki guztietan batera ez ninteke izan.

Muxante, batzuetan, hots, aski maiz, mozkortzen deskuidatzen zen. Berak «deskuidatu» erraiten baitzuen, apezak ihardesten zion deskuido maiz errepikatuak bazuela bertze izen bat. Apezak «bizioa» erran nahiko zuen, eta Muxantek argitu zuen berea «fideltasuna» zela. Fideltasun horrek eragingo zuen behin gendarmeeek eraman zezaten gizona. Eta apezak ikustea gertatu, zeinak oihu egin baitzion:

- Ai, Muxante! Baharamate?
- Nahiago dut hauek eramatea, zuk eramatea baino –erantzun zuen Muxantek gendarmeen artetik.

Muxantek lan ere gogoz egiten zuen barau-orenetan, igeltsero, pintore eta galdatzen zitzaion zernahitan. Segurik, bigarren aldiz ez zuten hura deituko, baina haren lemak bazuen funtsa: «Bada aski giza maila behin atxiki izana konfiantza». Uda batez, herriko eskola ttipia pintatzea enkargatu zioten udaletxetik. Muxantek zintzo burutu zuen lana, mukuruz agian, errientsak, zorua ere parrastatua ikusiz, erran baitzion:

- Baina, gizon! Goia bezainbat pintatu duzu behea!
- Bai! Eta dena prezio berean.

Pertsonaia hauek sumin dezakete sendi bat, eta alaitu herri bat. Etxekoak kontsola daitezke pentsatuz beraiek ere gozatu ahalko direla bertze etxe batzuetako kondaira alaigarriez. Argi dagoena da sufrimendu zerbait gabe ez dagoela literaturarik. Gutien-gutienik, norbaitek eman behar dio jaten pikaroari.

Tira, ba!

Gorago aipatutako Sandalio, baserrira ezkonduko arrantzalea, gizon patxadatsua zen, lan eta jan martxa berdintsuan egiten zuena, zurruterako bizkortzen zen baina. Garai hartan fraideak ibiltzen ziren eskean, jenero bila edo mutiko fraidegaien bila. Gehienez, biak batera. Txakurraren zaunketara, etxekoandrea irten zen atartera eta fraide bat hauteman zuen intxaurpean. Ea zer eman zezakeen, eta fraideak erantzun zuen:

– Ba, txerri-hankak, indabak, lekak ... edozer.

Horixe esan baizik ez, Sandalio agertzen da etxe albotik eta dio:

– Txerri-hankarik ez daukagu, indabarik ere ez, baina zuk lepo ederra daukazu, lan egin nahi baduzu.

Nahiz ohikoena ez izan, kaputxino bat ere agertu zen behin, eskean. Fraideak atea jo zuen, bere ordenako agur-otoitza hasiz, eta Sandalio irtetea gertatu. Etxe aurrean kaputxino bat ikusi zuenean, sukaldarantz ezkutatu zen, andreari esanez:

– Engrazi! Hemen dago hau potroetarainoko bizarrez eta hanketarainoko arrosarioekin. Ea zer behar duen!

Sandalio ez zen eliztar beroa, baina bai gutxieneko praktikantea, ez hainbeste, sinesten zuelako, baizik, berak zioenez, ez sinesteari harrokeria zeritzolako. Urtean behingo «arbi-lorekoa» (Paskoazkoa) formal egingo zuen, konfesio eta guzti. Beharko, urtean gutxieneko konfesio eta jaunartze bat nahitaezkoak baitziren, bekatu astunaren pean. Ohiko sarrera-formulen ondoren, eta lehenengo bost aginduak eroso pasaturik («inor ez hil» eta halako detaileak), konfesoreak Sandaliori galdetu zion:

– Andrearekin zelan?

– Ondo! –erantzun zuen berak.

– Beste andreekin?

– Hitz asko, baina egin ezer ere ez, jauna.

– Ezer ere ez? –muzindu zen apaiza.

– Hara, jauna! –aitortu zuen Sandaliok–. Nire bekatua hauxe da: edan egin behar.

– Zenbat?

– Ahal dudan guztia.

– Tira, ba! –errenditu zen apaiza–. Hori baino gehiago ez bada, barkaturik zaude.

Probatuko dut

Sandalio arrantzale-baserritarrari gustatu zitzaion konfesoreak «ahal zuen guztia» edateko eman zion lasaitasuna. Urteak aurrera joan ahala, ordea, ohartu zen gutxiago edaten zuela. Hots, andrea ohartu zen, eta hau pozago ikustetik ohartu zen Sandalio bere aldakuntzaz. Hala, edanari utzi ziolako, edo adinak harrizko gogoak ere zimurtzen dituelako, edo agian, «Heriotza» izeneko ipuinaren bertsio serioagoa leihoan ikusten hasi zelako, fedea ere zorrotzago hartzen hasi zen. Baina ez apaiz probidentzial hark nahi zuen norabidean, zeinari behin Sandaliok aitortu baitzion apalki:

– Zahartzaroan, jauna, onena erlijio guztiak hartzea da, baten batek huts egin baleza ere.

Gehiago ere zahartu zen, ondoez batek eman zion, eta larrialdietara altxatu zuten, ez guztiz bere gogoz. Itxarongelan alabari esan zion:

– Hemen, hiltzeko ere itxaron egin behar al da?

Ez zen berehala hil. Eta ez zegoen argi Sandalioren fede-bilakaera zertarantz izan zen zehazki, ze egiazko azken orduan –berak, seguruenik, azkena zenik uste ez zuen hartan– apaizari deitzerik ez baitzuen nahi, hauek «heriotza eskuan-da» etortzen direlako. Baina, aita! Baina, aitatxi! Etxeko bakeagatik etsi zuen, baina bera ez zela konfesatuko. Apaizak, ahal zuen guztia lasai edateko askatasuna emana zionak, argudiatu zuen lasaiago joango zela beste mundura, «mundu honetako kontua emanda». Sandaliok ez zuen dudatu:

– Kontua? Berori baino lehenago noa, eta neuk eramango dut.

– Baina, Sandalio! Jainkoak ordezkokoak ditu, eta neu naiz orain haren eta zure bitarteko.

– Jainkoak bitartekoak behar balitu, ez litzateke ahalguztiduna, eta niri badela irakatsi zidaten.

– Badelako erabaki zuen ordezkoen bidea!

– Ez dut uste Jainkoa horren txotxoloa izan daitekeenik.

– Eta neuk diodan moduan balitz? –apaizak.

– Probatuko dut eta esango diot, berori datorrenean.

Tximur

«Tximur» zuen ezizena, zergatik berak ere ez zekiena. Eta esan ohi zenez, «aldrebes jaioa». Denak zurizko zihoazenean, berak lehen jaunartze «beltza» egin zuen. Elizara bidean ikatza ostu zuen eta ez zuen izan disimulatzeko adimenik. Gero, haur-talde batek ogi egin berriak, oraindik irintsuak, eta lukainka gorriak hauteman zituen errota batean, eta batek azioa egin. Errotari-andrea konturatzen da eta dio: «Nor izan da?». Eta berehala Tximurri: «Eskuak ondo gorde dituk, baina muturrak ez». Irinez eta koipez zikinduak. Gazte zela, oinezko lasterketa bat antolatu zen, oinetako-denda batek babestua. Bakoitzak dendaren dortsal bat eraman behar zuen. Tximurrek ez zuen irabazi, baina bai promozio bikaina egin, oinetakoen dortsala bizkarrean eta bera oinutsik ibili baitzen. Dendak markako bota pareta oparitu zion.

Aurrekari horiekin, zahartzean ere aldrebesa izan behar. «Ameriketako Gotzaina» esaten zitzaiona bere sorterrira bisitatzera etorri zen herriko jaietan. Tximurren etxean prestasun osoz eta zeremonia handiz hartu zuten bazkaltzen eminentzia handia. Mahaietan eseri zirenean, amatxik galdetu zuen: «Aitatxi non da?». Ez zen inon ageri. Hainbat orduren buruan, ganbarako leihoxka baten azpian aurkitu zuten.

- Aita! Zer egiten duzu hemen? –haserre egin zion alabak–. Gotzaina zu ikusi gabe joan da.
- Zeren bila etorri dun hori? –Tximurrek
- Baina, aita! Senidea dugu! Zeure odolekoa!
- Baina gotzaina dun! –Tximurrek –. Handik honaino ez zetorren gotzainik, zerbaiten bila ez bada.

Gaixotu zen noizbait, eta sukaldeko leihora ozta-ozta iritsi zen goiz batez, amatxiri galdetu zion:

- Nor dago gure intxaurpean?
- Zer diozu? Hor ez dago inor.
- Bai dago. Neure heriotza da, bigarren adarrean eseria.
- Hori hor dago intxaurra sartu zenetik!
- Ba, nekatu da egoten. Engrazi! Ni joaten naizenean, isil-poltsa labatiban daukazu.

Eliseus

Eskolako lehen egunean, maisu luzanga eta zehar-okertu batek lehen aldiz zetozen ikasle haurrak –txikienak– aurreneko lerroan jarri ohi zituen, banan-banan zutiaraziz, izen-abizenak eta jaiotze-datak hartzeko. Mutiko bat larri zegoen, ez baitzekien zer zen jaiotze-data. «Izena?» –hots egin zuen maisuak. «Eliseus» –erantzun zuen. «Ulises?» –galdetu zuen maisu harrituak, esku bat belarran-da. Eskola guztia barre-algaran lehertu zen. «Ulises esan duzu?» –maisua berrituen. «Bai, jauna» –erantzun nuen mutikoak, beste astrapala bat abiatzeko beldurrez.

Lehen jolas-orduan, denak «Ulises! Ulises!» aritu zitzaizkion, batzuk burlaz, beste batzuk barrez, gehienak halabeharrez. Gehiago inork ez zion «Eliseus» deituko. Etxeraino ere iritsi zen hotsa, eta aitak esan zuen: «Denek Ulises badiote, etxean ez gara hasiko diferente egiten». Mutikoari ez zitzaion hainbesteko aldrebeskeria iruditu, bai baitzuen osaba fraide bat, osaba Fulbio, gero komentuan «Aita Kelando» bihurtu zena. Eta izeba moja bat, izeba Kirmene, gero klausuran «Ahizpa Karolina» izan zena.

Ulisesek bazuen, bestalde, ideia ez guztiz zehatz bat ezen, han, Anbototik harago, bere izeba amabixirenean, bazela oilar bat, «Ulises» deitzen zena. Bere amak ere oiloei «uuulises!, uuulises!» deitzen ziela iruditu zitzaion. Gogoan zuen nola, hizketan abiatu zenean, galdetzen zioten: «Zer da hau? Zer da hori?». Hasieran, dena «uuu» erantzuten zuen. Gero, noizean kontsonante bat sartuz joan zen: «uuumu, uuumu». Pixka bat aurrerago, oiloengatik «Zer dira horiek?» galdetzean, esaten zuen: «Uuulusek! Uuulusek!». Nagusitu ahala, «Ulises» ezizena bere izen naturaltzat hartuz joan zen. Baita ondorio pozgarrira iritsi ere ezen bere ustezko jatorri-izena, Eliseus, deformazio bat izan zela. Guztiz nagusitu zenean, jabetu zen, noski, fenomenoaz, baina, zorionez, dagoeneko berandu zen.

Aita eta biok

Kalabaza koloreko jantoki heze batean, berrehun buru txiki, isil-isilik, seinako mahaietan, zopa gris baten gainetik tortilla albino bat jaten, txandako irakurlariak tribunatik liburu espiritual bat deklamatu bitartean. Nire mahaiko mutiko zapo batek, tortilla zatitu aurretik, esferaren erdi-erdira txistu mardul bat jaurti zuen, plof, marraskilo aplastatu bat bezala. Diziplinako prefektua, «aita» deitu behar geniona, mahairik mahai pasatu zen gero, jateko zegoena janarazten. Nik ere jan zuen neure marraskilo zatia, hots, ahoan gorde nuen, gero komunera botatzeko, baina atean, prefektuak alto eman zidan:

– Zer daroazu ahoan?

Nire matrailak igel kantaria bezala hanpatu ziren, eta lehendik larri zetorren ahotik marraskilo-zatia prefektuaren sotanara disparatu zen, plast. Hilaren azkeneko notetan, urbanitatean zero, eta tortillak aurrera.

Ikasgelan ere berrehun buru txiki ginen, isilik, arreta guztia pupitreko liburuan. Prefektuak oholtza gaineko mahaitik zaintzen gintuen. Hartan, erdiko pasabidetik atzerantz oldartu zen, zirti-zarta. Ez nintzen bururik biratzen ausartu. Zerbait gertatua bide zen atze aldean. «Klask!» entzun nuen, genuen. Baten batek kaskateko zorrotza hartu zuen hatz-koskorrez.

– Aita! Ni ez naiz izan! –mutiko batek.

– Ba, izan ez zaitezen! –entzun zen prefektuaren ahotsa.

Pentsatu nuen:

– Ez garen bakoitzean kaskatekoa bada, hamaika hartu behar dugu.

Idazlan batean idatzi nuen: «Aita eta biok arrantzara joan ginen». Irakasleak galdetu zidan:

– Nor zen bestea?

– Bestea? –noraeztu nintzen.

– «Aita eta biok» idatzi baituzu! Nor zen hirugarrena?

Ezin nuen ulertu non zegoen gakoa, eta berak barre egiten zuen. Gerora, balio izan zidan «trinitatea» ulertzeko, nahiz eta Espiritu Santuari figura arraro samarra iritzi nion beti.

Gidari alaiak

Bazkaria eskotean ordaindu zuten. Euskaldun lapurtar batek galdetu zuen, estonaturik:

– Bilbon ezberdin jan eta berdin ordaintzen al da?

Eskotetik abantailan irten zen bat alai samar zihoan etxerantz. Alkohol-kontrollean geratu zuten, eta bera harro bere garrantziaz. Putz eginarazi zioten, eta ertzain batek:

- 0,24an zatoz. Ehunen bat gorago, eta infrakzioan zaude.
- Ez al daiteke izan beherantz joatea, hori goia izanik?
- Dezente goragotik zatozela dirudi.
- Orduan, kontrola ere lehenago jarri behar zenuten.

Gidari «alai» guztiek ez dute berdin jokatzeko atakan.

- Putz egin behar al da? –galdetu zuen, paparra zabalik, aurpegiko zainak nabarmenki gorri.
- Zerbait edan al duzu? –ertzainak.
- Ahal nuen guztia.
- Ongi. Egin putz! –ertzainak.
- Buf! Ez dakit putz egiteko moduan nagoen.

Emaitzak legezko topetik gora eman zuen eta gidaria haserretu egin zen.

– Hori bakarrik, nik edan dudanarekin? Tabernari zerri horrek ur-ardoa sartu dit!

Gidariak gero kontatu zuenetik, ez zen argitu zenbatean gainditua izan zuen topea, baina bai errepide bazterrean atxiki zutela, “neurri egokira jaitsi arte”. Ordubete igaro zenean, esan zien ertzainei:

- Aizue! Ez dakit joateko moduan nagoen, baina joan beharra dut. Ordu erdi barru, artaldea ateratzea dagokit. Hemen jarraitu behar badut, ertzainen batek joan beharko du.
- Ardiatara? Artzain itxura gutxi daukazu zuk! –eraso zion jefeak.
- Barka konparazioa, baina zeuei ere, paisano zabiltzatenean, gutxi igartzen zaizue ertzainak zaretela.
- Barkatua konparazioa, baina susmoa daukat zure ardiak ohituta daudela itxaroten.
- Ardiak bai, baina auzoak ez!

Ertzainen furgoian eraman zuten «artzaina», kalegunetik hur-hur zegoen artegi batera. Hurbiltzean, dio:

– Entzuten kontzertu hori? (ardiengatik). Nor salatzeko esan behar diet auzoei, honezkero nire izena madarikatzen hasiak direnei?

Sermoi apokrifoa

San Lorentzo gaizoa, parrillan errea. Abuztuan, gainera! Gure Sallobente suharra. Esku infidelen amorriziotik ezingo zela libratu ikustean, hots egin zuena: «Erre behar bada, neu erreko naiz!». Parrilla gorian bera etzan zen. Lehen odol tantak, lodi-lodiak, azpiko txingarrean gartzen. Haren begiek, minaren minez gorrotoa zirudien maitasunetik, Jainkoaren egoitza bilatu zuten:

– Jauna! Eman kemena, ez ukatzeko zure izena. –Eta borreroei agindu zien: –Zabaldu txingarra oinen parean, alde hori hotzago nabari baitut.

Bere adats luzearen txinka likinak kirats larria hedatu zuen. Borreroak atzerantz biratu ziren, higuin zantarrez.

– Bota olio xorta bat saihets aldera, bizkarra bariletatik aska dezadan. –Sallobente alboz jarri zen–. Beste olio tanta batzuk, ezker alboz etzan nadin.

Borreroek itsuki obeditzen zuten.

– Orain, ahozpez jartzeko, lagundu beharko nauzue.

Ahozpez, sabel lehertutik esteak erioten hasi ziren, eta laguntza gabe aratindu zen. Artean, erre-kirats bereziak (azal, haragi, ile, hatzazal, hezur...) kirats bakar bihurtuak ziren, denen batura baino askoz higuin hilgarriagoa zabalduz. Martiriak burduntzia bi saihets ageriren artean kokatu zuen, bihotzaren parean. Begi oraindik ez hain kiskaliak itxi zituen eta, azken ahaleginaren bultzadaz, bertan josi zuen burduntzia.

Borreroek hiltzat eman zuten, baina martiriaren eskuinak, biziaren inertziaz, burduntzia atera eta zerurantz apuntatu zuen. Begiak ireki zituen une batez, eta bere bihotza burduntzi puntan ikusi zuen. Belea inguratu zen, baina azkenean, usoak eraman zuen organo maitea. Parrillatik jauzi egin zuen eta borreroak izuturik aldenitu ziren. Martiriak pentsatu zuen:

– Bihotz gabe nola predikatuko dut maitasuna?

Eta bere gorputz kiskalitik, infernua jasangarri zela aldarrikatu zuen,
ad Wojtylan Dei gloriam.

Don Temisto

Gure apaiz Don Temisto nonahi aurkitzen ahal zen, «tximinetan izan ezik». Esaera hori sortu zen, Zefino artzainak, sotana hain beltz ikusirik, esan baitzion: «Tximinia garbitzetik al dator berori?». Don Temistok jarki zuen herri hartan ez zegoela tximiniarik, bera osorik pasatzekorik. «Zatika ere ez da komeni, ba!» –onartu zuen Zefinok. Honek zioen bere figuratik zetorrela apaizen «artzain» izate sinbolikoa. Don Temistok ez zuen ukatzen, baina bai argudiatzen:

- Zure ardiak ikustekoak dira. Nik arimak ezin ditut ikusi.
- Berorri ardiak etorri egiten zaizkio –Zefinok–. Nik bildu egin behar ditut.
- Nire ardientzat txakurrak ez du balio –Don Temistok.
- Berorren ardiak janari mehearekin konformatzen dira –artzainak, komunioagatik.
- Bai zeureak ere –apaizak–, bildotsen esana egingo bazenu: «Mehehehe!».

Tabernariak «solisombra» bat atera zion Don Temistori, zeinak baitzioen eguneko lehen zurrutak bietarako balio behar zuela, eguzki eta itzal. Zefinori gaseosa bat, artzainak edari hegalaria behar omen baitu.

- Ardia leizera erortzean, nork ateratzen dizu? Txakurrak? –erasotzen dio apaizak.
- Ez, noski! –artzainak–. Txakurrak nahikoa egiten du ardia aurkitzeaz.
- Ba, nik, arima eroriekin, bi lan egin behar ditut. Aurkitu eta atera! –hanpatzen da Don Temisto.
- Nik, berandu iristen banaiz, bertan uzten ditut –Zefinok.
- Arimentzat inoiz ez da berandu! –Don Temistok.
- Hori diot, ba! –Zefinok gailen–. Berorrek ez dauka azkar ibili beharrik.

Don Temisto gizon korpulentoa zen. Zefino artzainak soro batean hauteman zuen gizona, eta galdetu zion:

- Apaizak lanean hasteraino aldrebestu al da mundua?
- Gizon prestu baten lurak bedeinkatzen ari naiz –apaizak erantzun.
- Zeremonia horrek balioko al du harrak eta zomorroak hiltzeko? –artzainak. Eta apaizak, zapata handiak erabiltzen zituenak, ez zuen dudarik izan:
- Nik zapaltzen ditudanak bai!

Hik eta nik

Don Temistok bazuen bizio bat ordu xelebreetan baratzean aritzekoa, aitzurra eskuan eta sotana gerrian. Zefino artzainak pentsatzen zuen hura txorimalotzat bikaina zela, mugikorra zenez gero. Ardiak larrean utzitakoan, hurbildu eta gozogozi esan zion:

- Ongi, jauna. Txoriak uxatu dituzu. Goazen tragotxo bat jotzera.
- Ba, hara! –Don Temistok–. Nik lanari uzteko ez dut behar heltzeko adina arrazoi.

Tabernarantz bidean, artzainak zioen Jainkoaren ordezkotatik ez zeukala zertan lotsaturik lanari gustura utzi izanaz, Jainkoak zazpigarren egunean zer egin zuen jakinik.

- Nahiz eta apaizek ez duzuen guztia esaten –Zefinok.
- Zer esan behar da, ba? –apaizak.
- «Lanari utzi ziola» ongi dago –artzainak–. Baina ez duzue esaten betiko utzi ziola.

Barraren beste muturrean eztabaida ozena zebilen. Aho-handi batek zioen:

- Hik ez dakik ezer!
- Egia! –entzun zen ahots txakil bat–. Nik ez zakiat ezer. Baina hik eta nik dena zekiagu.
- Nola? –ofuskatu zen aho-handia.
- Hik dena dakik, ergela haizela izan ezik. Eta hori nik bazekiat.
- Ez dakit –esan zion artzainak apaizari ahopean–. Maite ditut denetik dakitenak, baina higuin ditut denetik gehien dakitenak.
- Nik dakidana da –erantzun zuen apaizak ere ahopean– zuk ardi beltzak dituzula, zuriak kontatzeko.
- Hori txarra al da?
- Txarra ez da, baina errazegia.

Argudio klasikoa baitzen ez dagoela apaizarena baino lan zailagorik. Alegia, norberak sinesten ez duena besteei sinetsarazi. Don Temistok zioen apaizaren obligazioa ez zela sinestea, kristauek entzun nahi zutena predikatzea baizik.

- Denek nahi dutena ez al da ezinezkoa? –artzainak.
- Ez hainbeste! –apaizak–. Nork hartu behar du txartzat Jainkoa ona dela, maitasuna lagungarri dela, gorrotoa lagun txarra dela, edo Jesukristo gorria dela, Arantzazuko kriptakoa, adibidez?

Tafano bertsomanoa

Tafano izeneko bertsomanoa sutan zebilen, esan ziotenean Basarri munduko txapeldun atera zela. Gerra aurreko kontuak. Berria tximista bat oskarbian bezala hartu zuen. «Munduko txapeldun, neurekin probatu gabe?». Tafanok Basarriren etxea bilatzen du Zarautzen, eta atera irten zaion emakumeari diotsa:

- Aizan! Hire gizon hori burutik sano al zebilen?
- Ez dakit – darantzu emakumeak, zurturik–. Ez diot igarri.
- Ba, igarri behar hioke! –erronkatzen da gizona–. Nola utzi diozue munduko txapeldun egiten, neurekin probatu gabe?
- Nik zer dakit, ba, zer esan? –emakumeak.
- Orduan entzun! Bota mila pezetako seinalea, hogeita mila duro jokatzeko, berrogeita hamar bertsoara, bertsoetik bertsoa segundo bateko tartea dela.

Hain gizon braboak txapel bat merezi zuela erabaki zuten bere herrian, baina Tafanok uko egin zuen.

- Nik ez dut behar neuk irabazi gabeko txapelik!

Handik urteetara esan zioten:

- Zail izango duzu desafioa. Basarri hil da.

Tafanok neurri bitxiko bertso bat kantatu zuen, zeina harrigarria baita nola jaso zuen tabernari batek:

Sentitzen dut beragatik
ez gutxiago neugatik.
Baina joan bada horrela
ken bezaiote txapela
bizi den arte Tafano.
Eta gero, betirako.

Bertso hori amaituz batera, gizon bat erdaraz kantatzen hasi zen, ez gaizki ere, baina amaitzeko asmo gabe. Hartan, gizon txatxar bat han sartu zen, «Kikiro» zeritzona, esanez:

- Hemen ere andaluzak?
- Bat bai! –Tafanok.
- Hi andaluza?
- Harro, gainera! Aspaldian ez diat inorengandik entzun hain hitz gozorik.
- Popatik! –Kikirok–. Horrela ez zegok haserretzerik!

Eta lagun jarraitzea proposatu zion. Tafanok erantzun zuen aurretik munduko txapelarena konpondu behar zuela. Erantzun zioten zaila izango zela hil bati txapela kentzea, eta Tafanok:

- Txapela kentzea zaila? Hortzak kentzen dizkiete, ba!

Hilerrian hilotz

Heriotza alaia da, apustua tarteko bada. Hilak kanpoan dabiltzala gutxik sinetsi du, baina beti dago zalantza barruan ez ote diren zerbaitetan ari. Eta beti izan dira balienteak, sineskeriez burlatu direnak. «Hilerrira gauez bakarrik sartu ez? Baita panteoi barruan lo egin ere!». Halaxe sortu zen apustua. Denentzat afaria, galtzen bazuen, eta denek afari bana berari, irabazten bazuen. Eginbeharra zen bera bakarrik sartzea hilerrian, ilargi gabeko gauerdian. Frogatzat erabaki zen: «Hilerriko atean, barruko aldetik, iltze hauxe josita utziko duk».

Negu gorrian, ilargi gabeko gauerdian, ez zegoen epelik hilen hezurretan. Gizonak, soinekoen gainetik, kapa beltz handi bat jantzi zuen, «hilen errespetuagatik». Eliz-dorreko kanpai izoztuak hamabi dandak jo zituenean, urrats finkoan abiatu zen. Hilerriko atze-hormatik saltatu eta aurreko ateraino ez zuen aurkitu ilunpe osoari dagokion prekaizioaz beste trabarik.

Iltze handia mailukatzen hasi zenean, gaua mugitzen hasi zen. Erdia inguru sartzea lortu zuenean, eskuaz haztatu eta betiraunari eusteko moduan gogortu zela konprobatu, bueltan abiatu zen, mailua gerrian zintzilik. Bi urrats ematerako, norbaitek atzetik heldu zion. Saiatu zen disimuluan indar egiten, baina atzekoak ez zuen amorerik ematen. Gizona zerraldo erori zen, atxikitzailearen aurpegirik ikusi gabe.

Biharamunean, lagunak hilerriko seinalea jasotzera sartu zirenean, hilotz izoztu bat aurkitu zuten lurrian, eta kapa beltz bat ateko iltzetik zintzilik. Zantzuen azterketak esplikazio bakarra uzten zuen: edo kapa-punta bat iltzearekin batera josi zuen, edo, mailukadak ilunetan ez huts egiteko, esku euslea kaparekin babestea pentsatu zuen, ertzen bat bertan iltzatuz. Gaueko lanak egunez agertzea berretsia zen berriz. Gizonak apustua irabazi zuen, baina afariak galdu zituen.

Mirari gaiztoa

Mide izeneko andre batek ia hitz berdinekin kontatzen zuen beti bere ama Hermideren sufrikarioa, herriko apaiz bat zela bide. Apaiz horren salaketaz, hainbat herritar fusilatuak izan ziren. Gero, barne-harrak edanera emanarazi bide zion apaizari, eta herriak asko estimatu zuen haren bizioa. Goiz partean arriskutsua zen, oraindik barautan. «Beuka egun on berorrek! Lagun bekio Jauna!». Eta abar. Eguerdian, nozio batzuk galtzen zituen, eta herrian alaitasun bat zabaltzen zen. Iluntzean, hura mozkor oso, herriguneak eremu liberatu bat ematen zuen. Hermidek ez zekien apaizaren zikloaren berri. Emakume gajoak goizeko apaiza bakarrik ezagutzen zuen. Bazetorren mendian behera, otzara bete-betearekin, oilaskoen buru gorriak ertzetatik bistan.

- Norentzat da, Hermide, otzarakada eder hori? –galdetzen diote bidean.
- Herriko apaizarentzat.
- Apaizarentzat? Zer on egin dizue, ba, horrek zuei?
- Onik ezer ere ez, baina txarrik egin ez diezagun.

Apaiz hura ere, noizbait, adinak bigunarazi zuen. Kristau bat ausartu zen ohiko topikoan tentatzen, aste santuko sermoi baten ondoren.

- Jesukristo ez al zaio berorri temoso samarra iruditzen? Urtero toki berera joaten baita, atxilotuko dutela jakinik.
- Jainkoa baitzen! –apaizak erantzun, eta kristauak jarraian:
- Eta Judasek zertarako behar zuen diru-poltsa hura, gero urkatzekotan?

Apaiza isilik gelditu zen, ideietan zimeldua zena diru kontuan zaildua baitzen.

Hermideren zortea gehiago okertu zen, itsutu egin baitzen. «Apaiz horrexen bisitek gaitz eginda», pentsatu omen zuen. Berrogei urtera, ebakuntza batek ikusmena bihurtu zion. Apaiza berriki hila baitzen, harexen miraria zela pentsatu zuen. Ispilura begiratzean, bere laurogeita sei urterekin, tristura handiz esan zuen:

- Hau ez da nire aurpegia! Apaiz demonioa!

Ez zen demonioena bakarrik. Ezta adinarena ere. Ispilua zahar-zaharra zen.

Eztula eta kondoiak

Kineto izeneko agureari galdetu zioten ea egia zen jubilatua bizi zirela ondoen.

– Bai eta ez –erantzun zuen–. Hiletetatik ihesi beti!

Urteak zenbat aurrerago, hainbat seguruago baitzen zendua norbere lagun edo kide bat izatea. Jubilatuen astia mugagabea izanik, inoiz ezin duzu zerbaitera huts egiteko aitzakia sanorik aurkitu.

– Tira, ba! –esan zion norbaitek–. Ea noiz elkar ikusten dugun hurrengo. Eta ez hil-kanpaien azpian.

– Hantxe ere ikustea onena! –erantsi zuen Kinetok.

Bitartean, eztulak eman zion –eztul «eternoak», berak esan ohi zuenez–, eta ez zuen bakerik eman, medikuaren aurrera eramana izan arte.

– Zelako eztula? Handia ala txikia? –itaundu zuen medikuak, eta Kinetok erantzun:

– Ikaragarria, jauna! Hiltzeko modukoa.

– Egingo al zenuke bat bertan?

– Airezko itzulia baino errazago.

Kineto agureak eztul bat egin zuen, ez berak bazeukala uste zuen bezain handia, eta medikuak hots egin zion:

– Hori ez da hiltzekoa, Kineto! Hori bizitzekoa da! Eztula txikitzen hasten zaizunean, orduantxe etorri.

– Berorrek ez al du inoiz entzun azken orroak izaten direla gogorrenak?

– Entzun dut, baina ez dirudi zure kasua denik. Hartu tanta hauek eta segi urte askoan horrelakoxe eztulean.

– Orduan, hemen, ez entzuteko moduko eztula egin behar al da? –tematu zen Kineto.

– Hil nahi baduzu, bai –medikuak–. Hilerrian entzun al duzu eztulik?

– Mediku txotxolook! –marmarka irten zen kontsultatik–. Apaizek, behintzat, galderak egiten zituzten konfesioan.

«Zituzten». Kinetok berak esana baitzen:

– Lehengo apaizek meza aurreko ordu erdia konfesatzen egiten zuten, eta oraingoek, elizpeko kondoiak batzen.

O tempora, o mores! Atso santujale bat alertatu zen, sakrilegio hura moztu zedin, eta parroko zaharrak, mundu handirik ez, baina bat ondo ikusia zuenak, esan zuen:

– Utziezu bakean. Era bat da elizara hurbil daitezen.

Kontsensuzko kreazioa

Jainkoak astoa sortu zuen eta erran zakon:

- Asto izanen haiz, eguzkitik eguzkira lan eginen duk, bizkarrean ezartzen zaikan guzia zamatuko duk, eta hogoita hamar urtez biziko haiz.

Astoak ihardetsi zuen:

- Jauna! Nahi duzun zernahi izanen naiz, baina hogoita hamar urte asko da. Zergatik ez hamar?

Eta Jainkoak astoa sortutzat eman zuen. Jainkoak txakurra sortu zuen eta erran zakon:

- Txakur izanen haiz, gizakien etxea zainduko duk, ematen zaikana janen duk, eta hogoita bortz urtez biziko haiz.

Txakurrak ihardetsi zuen:

- Jauna! Nahi duzun zernahi izanen naiz, baina hogoita bortz urte asko da. Zergatik ez hamar?

Eta Jainkoak txakurra sortutzat eman zuen. Jainkoak ximinoa sortu zuen eta erran zakon:

- Ximino izanen haiz, zuhaitzetan jauzi eginen duk, clounkizunak eginen dituk bertzeen libertigarri, eta hamabortz urtez biziko haiz.

Tximinoak ihardetsi zuen:

- Jauna! Nahi duzun zernahi izanen naiz, baina hamabortz urte asko da. Zergatik ez hamar?

Eta Jainkoak ximinoa sortutzat eman zuen. Azkenik, Jainkoak gizakia sortu zuen eta erran zakon:

- Gizaki izanen haiz, adimendun bakarra, mundua meneratuko duk, eta hogoita hamar urtez biziko haiz.

Gizakiak ihardetsi zuen:

- Jauna! Nahi duzun zernahi izanen naiz, baina hogoita hamar urte guti da. Zergatik ez eman niri astoak nahi izan ez zituen hogoiak, txakurrak errefusatu zituen hamabortzak eta ximinoak onartu ez zituen bortzak?

Eta Jainkoak gizakia sortutzat eman zuen. Eta horra zergatik gizakia hogoita hamar urtez bizi den gizaki. Gero esposatzen da eta hogoi urtez bizi da asto, ekitik ekira lan eginez eta haurren zama bere bizkar hartuz. Gero erretiratzen da eta hamabortz urtez bizi da txakur, etxea zainduz eta ematen zaiona janez. Eta azkenik, bortz urtez bizi da ximino, etxez etxe saltatuz eta clounkizunak eginez, ilbasoen libertigarri.

Kintzianoren kukuak

Goizalde berandu batez, Kintziano izeneko gizona kontuz-kontuz sartu zen etxera, andrea ez itzartzeko tentuan, eta hor hasten da kantuan erlojuko kukuak. «Diola! Hik ere oraintxe ekin behar!» –xuxurlatu zuen gizonak. Erlojuari begiratu zion eta hirurak ziren. Erlojuak hirugarren kukuak jo zuenean, Kintzianok berak jarraitu zuen «kuku, kuku» kantatzen, hamabi osatu arte. Oheratu zen, eta andrea lo zegoen.

- Bart zer ordutan etorri haiz? –galdetu zuen andreak biharamunean.
- Hamabietan! –erantzun zuen gizonak, eta andreak:
- Zergatik ez huen biligarroarena egin, kukuarena baino dotoreago egiten baituk?

«Gaueko lanak egunez agertu» esaerak goizaldeko ordu bihurrietan aplikazio bitxiak izaten ditu. Pizpildurik doanak uste du argi doala, baina argitasun gehiegi ere ez izan ona. Kintzianok, beste behin, erorita edo ertzen bat jota, bekokian ebaki bat egin zuen tabernatik bueltan. Etxean bainugelara joan zen eta odol markak garbitzen saiatu zen, ez gutxi kostata, soinekoak ere zizpriztindurik baitzeuden. Ispilura begira, ondo zegoela pentsatu zuenean, esparatrapuzko txaplata bat kurioso-kurioso ipini zuen zaurian, eta erizaina baino txukunago oheratu zen, andrearen ondoan. Honek ez zuen ezer esan, baina biharamun goizean itaundu zion:

- Esparatrapu hori nork itsatsi dik ispiluan?
- Ispiluan? –harritu zen Kintziano.
- Bekokian ez duk ipini, behintzat –andreak.
- Ispilu zerria!! –madarikatu zuen gizonak.

Otsoak ere ez al zuen putzu guztia edan, uretan ikusten zuen ilargia harrapatu guran, taloa zelakoan? Kintziano ez zen liskartia, baina bultzaka eta zatar-usainean zebilen mutil bati betondoko on bat emateko beste berotu zen behin. Hartzaileak, esku batekin begi itxiari eutsiz, bestearekin mehatxu egin zuen:

- Hau ez da honela geldituko!
- Ez –Kintzianok–. Hori beztu egingo zaik!

Lasterka buru gabe

Gerra ondoren, helduleku sinesgarriak behar baitziren, herri batean euren zaindariaren tailu berri bat egitea erabaki zuten. Santuginak galdetu zion:

– Santua nola nahi duzue? Bizirik ala hilda?

Ordezkarriak ezbaian gelditu ziren, «herriko ergeltxoak» esan zuen arte:

– Horixe ez dugu pentsatu, baina, badaezpada, zuk egin bizirik. Arazorik sortzen bada, geuk akabatuko dugu.

Galtzaileen bandotik mirariz bizirik itzulia izanik, santuginak edozein eskari onartu behar izaten zuen. Errege-erreginenak ere agintzen zizkioten, eta haurren artean ipuin ugari zabaldu zen pertsonaia fantastiko haietaz. Gero, ipuinezko izaki haiek egiazko izakiak zirela ohartzean, ez zen harritzekoa «herriko ergeltxoak» ugaltzea. Handik urteetara, bezero batek, santuarena gogoan, errege-irudi bat eskatu zion, «bizirik».

– Erregeek hilda izan behar dute! –argitu zuen santuginak–. Bizirik ez zaizkit irteten.

– Ba, kasik nahiago –konformatu zen agintzailea–. Horrela ez daukat neronek ezer egin beharrik.

Ipuinek errealitate latz bat gozotzeko balio zutenean, santuginak, bere haurra lotaratzean, ipuin bat hasi zuen:

– Bazen Ergeleerri bat...

– Ez, aita! Erregerri bat! –haurrak berehala.

Santuginak orduan gerrako pasarte bat kontatu zion, honela laburtua:

– Zure aitari Bizkargi mendiko frontea egokitu zitzaion. Airetik bonbak hastean, ziztuan abiatzen ginen aldasbeheran, barreneko sastrakadian babesteko. Arrapalada haietako batean, hantxe ikusi nuen gizon bat goitik behera lasterka, bururik barik.

Metrailak lepoa moztu, gizonak abiadan jarraitu eta santuginak une huraxe ikusi. Haurrari eszena originala iruditu zitzaion, gerrak ipuinak zirela uste baitzuen. Haurrena bakarrik ez da distortsio fantastikoen fenomeno. «Gure herria munduko onena da» lehen aldiz esan zuena herritik inoiz irten gabea izan zen.

Ezteietatik kuartelera

«Euskal Jaia» izeneko egun bat antolatu nahi zuten herrian. Musikariak deitzeaz arduratu zenak, motiboa azaldu ondoren, bazkaria eta bide-gastuak eskaintzen zizkien artistei, txaranga, trikitalari eta abar. Musika-talde bateko arduradunak erantzun zion eurek kobratuta ibiltzeko araua zutela, eta baldintza haietan ezin zirela joan. Deitzaileak borondatea eskertu zien. Pare bat hilabetera, deitzaileak musika-talde hartako arduradunaren telefonoa markatu zuen berriz.

– Aizu! Hain herritako Urlia Berendia naiz, eta datorren zapatuan arreba ezkontzen zaigu Begoñan. Gure koinatugaia zuen taldearen zale amorratua da, eta sorpresa bat eman nahi genioke. Ez da asko jo beharrik izango. Elizkizunean konpas batzuk, gero basilika aurrean agur bat, arroza botatzen zaien bitartean, eta bazkalostean ere, piezatxo batzuk bakarrik. Ordain kontuan ez da inolako arazorik izango. Ezteietan badakizu, beti ere, eskua zabalago ibiltzen dela.

Musika-taldeko buruak berehala onartu zuen eskaria. Eguna eta ordua iristean, joan ziren Begoñara, eta han zebiltzan basilika aurrean gora eta behera, hari eta honi galdezka, baina ez zuten ezeren lorratzik hartu. Azkenean, alde egin zuten, egunaz erratu zirela usterik. Bitartean, deitzailearen lagun baten argazki-makina bizkor aritu zen aurpegi harritu haiek angelu posible guztietatik harrapatzen. Hurrengo astelehenean argazki sorta bitxia jaso zuen musika-taldeko arduradunak, ohar honekin:

– Joan zen larunbateko ezkontzaz argibide gehiago behar bazenute, deitu telefono honetara.

Guardia zibilaren kuarteleko zenbakia zen. Erratu egingo zela erantzun zioten kuarletek. Hau ez al da, ba, 94-673...? Zenbakia zuzena zen. Musikariak galdetu zuen:

– Zuek ez al duzue eskatu musika...

– Guk hemen –mozten diote– musika jotzen edo joarazten dakigu, baina eskatu, nekez. Ez tematu deia luzatzen, beste sorpresa bat jaso nahi ez baduzu.

Bezperarik ez

Tabernako zoko batean eseri nintzen, kafea eta Berria egunkaria mahaian zabal-zabalik nituela. Ustez titular interesgarri bat aurkitu nueneko, emakume gazte baten ahotsa entzuten zen ondoko mahaian, lau-bost urteko mutiltxo bati serio-serio esaten:

- Begira, Elaintxo! Munduan hiru pertsona mota daude: txarrak, gaiztoak eta zantarrak. Zure gelako lagun hori txarra da, gaiztoa da eta zantarra da. Zeozer egin behar diozu, ze bestela bizi guztian atzetik ibiliko zaizu.
- Oskua! –pentsatu nuen–. Hauxe izango da heziketa alternatiboa.

Ahalegin pedagogiko guztiak eta zaintza eta prebentzio ideal guztiak amaitzen diren puntutik harantz, nola defendatu behar duzu zeure umea? Betertzetik begiratu nien, eta haurra itxuraz bizkorra eta zolia zen, eta gizontxo bat bezala ari zen amari entzuten.

Hartan, eguneroko eskale bat sartu zen. Inork ez zekien garbi nondik etorria zen, ez inora joateko asmorik bazuen. Nikias deitzen zela bakarrik, berak izen hori eman zuelako. Basobete ardo ordaintzen bazitzaion, alai-puntu argi batek ematen zion, eta egunkari bat oso-osorik irakurtzeko gai zen, eta ondoren –hau harrigarria!– edukia hitzez hitz errepikatzeko, loteria kantatzen ari bailitzan. Fenomeno mental hartan ez ninduen gutxiago txunditu, bezperako zerbait kanta zezan eskaturik, erantzun zuenean:

- Titularrak bakarrik. Bezperakorik ez dut gogoratzen ezer. Dedukzioz bakarrik dakit bezperaren existentzia.
- Ba, ahalmen hori harrigarriago egiten zait gogoratzekoa baino –ekin nion.
- Arantzazuko egutegi-takoa bezala da –azaldu zuen–. Egunekoa irakurtzeko, bezperakoa kendu egin behar duzu.
- Takotik kentzea ulertzen dut, baina gogotik?
- Adibide ulergarriago bat jarriko dizut. Arrautza bat irtengo bada, aurrekoak joanda egon behar du.

Bidaiarik onena opatu nion, inora joaterik pentsatzen bazuen.

Gaitan tratularia

Izen edo ezizen, «Gaitan tratularia». Txerrikumeak saltzeko, alerik onena markatuta eramaten zuen etxetik.

- Hori zer? –galdetzen zuten, eta berak:
- Honek besteak baino gehixeago balio dik, baina aginduta zegok.

Joño! Norbait txerrikume hartaz apetatuko zen, eta tratulariak, penaz:

- Zer esan behar zioat hitza eman diodanari? –Eta azkenean: –Egia esan, dagoeneko etorria behar zian.

Txerrikumeari hainbestean jareingo zion. Tratulariak hurrengo bururik itxurosoena markatuko zuen, eta halaxe, txerrikume guztiak saldu arte. Amarrua deskubritu zenean, esan zuen:

- Saldutako txerririk inork ez du itzuli. Honezkero, janda egon behar dute.

Bazuen asto bat ere, auzokide baten pinadian lotzen zuena. Pinadiaren jabeak bizpahiru aldiz esan zion:

- Ken ezak, mesedez, astoa hortik, ira zapaltzen dik eta.

Alferrik. Goiz batez, astoa Chagall erara pintaturik agertu zen, letrero honekin: «Nor da nire jabea?». Asto hura ezin izan zuen saldu ferian. Bueltan, tabernan sartzeko, aberea eliz kantoiko uztai bati lotu zion. Orduak gauean ere aurrera, mutil-talde batek elizpeko kanpai-sokari lotu zion aberea, artaburu batzuk utzirik muturra ez iristeko moduan. Astoa hasi zen tiraka eta herri guztia bildu zen plazara, su-kanpaiak zirelakoan.

Herrian estimatua zen moja-komentuan txahal bat zotz egiten zen urtero. Txartelak erruz erosten ziren. Eta urte batez, Gaitani tokatu. Tirrina jo zuen eta mojatxo batek:

- Zer dakarzu, Gaitan?

Honek «txahala» aipatzean, mojatxoak esan zuen:

- O! Ama nagusiari deituko diot.

Ama nagusia irribarrez agertu zen.

- Zer nahi zenuen, Gaitan?
- Zozketako txahalaren bila nator –tratulariak–. Hona zenbaki saritua.
- O! Txahalik ez dago, Gaitan! –ama nagusiak–. Inoiz ez zaigu bila etorri inor.

Gaitan tratularia irribarrez joan zen, pentsatuz berak uste baino zabalduago zebilela malezia munduan.

Itsaso koldarra

Soldadu euskaldun batek, itsasoaren handitasuna zela eta, eztabaida luzeak izan zituen Gaztelako soldadu-lagun batekin, honentzat Ebro ibaia baitzen handiena. Itsasoaren aldean Ebro ez zela ezer entzutea iraintzat hartzen zuen. Soldadutza amaitutakoan, euskaldunak Ondarroara gonbidatu zuen gaztelarra, eta Harrigorriko behatokitik itsasoa erakutsi zion. Mutila luzaro egon zen adi-adi, ikuspenaren biolentzia bere baitako irudietara egokitu ezinik bezala. Azkenean, hots egin zuen:

– Ebro baino zabalagoa izan daiteke, baina luzeagoa ez.

Geroztik, hainbat aldiz gonbidatua izan zen gaztelarra berriz ere, baina ez zuen kostalderantz agertu nahi izaten.

Gure herkide batek itsasoaren dimentsio zuzenak ekarri zituen Saharako Sidi Ifnitik, nahiz eta edukian erratu zen. Harkaitz batetik erakutsi zioten desertu infinitua itsasoa zela pentsatu zuen, fenomeno optiko beretzat ezezagun batzuk zirela bide. Pentsatzekoa da gosea ere ez zela urrun ibiliko, desertuan zehar barnatuz gero. Inor inon ez. Eta hara non ibilgailu bat agertu zen horizontean. Astiro baina seguru, etorri-etorri, azkenean ondo-ondotik pasatu zitzairen todoterreno ezezaguna.

– Jo ez gaituenean! –hots egin zuen soldadu batek, eta gure herkideak erantzun:
– Egon ere, erdi-erdian baikaude!

Funtsean, beharbada, gorabehera sekundarioa dateke itsaso ala desertu izan.

– Zuk zer diozu, Ama Lur? Lortuko al dugu planeta hiltzea?
– Gaizoak! Ez dakizue zertan ari zareten. Bizia sobera da unibertsoan, planeta koskor bat gorabehera.
– Eta adimena?
– Naturak ez du behar adimenik.
– Zer izango da, orduan, azkenaren ondoren?
– Azkenaren ondoren hasiera da beti.

Beharbada, egia izango da, lagun bati entzun genionez, itsasoa baino koldarragorik ez dagoela. Inor ez dagoenean, hor ibiltzen da bazter guztiak puskatzen, eta jendea dagoenean, geldi-geldi.

Ardien diruak

Kelando artzaina, bere makila eta txakur, geltokiko nasa luzean ibiltzen edo bankuan eserita aurkituko genuen, eguzkia berotzen hasi arte. «Hemen beti agertzen da baten bat, hitz egiteko modukoa». Ardien komunitate ebangelikoan bizi izana. Trenak ardi mordo bat harrapatu zionean, kontsolatu zen gaitzerdi klasikoan: «Ba al dakizu zer izango zen, trena alboz etorri izan balitz?». Adinak artaldea utzarazi zion arte. Galdetu zioten:

- Ardi gabe, nola betetzen du denbora artzain batek?
- O! Ardiak badabiltza!
- Ardiak non?
- Buruan!
- Toki txarrean zabiltza ardi zain!
- Ez hainbeste. Burukoak azkar ibiltzen dira, baina ez dute ihes egiten. Jaten ere ez zaie eman behar.

Kelando artzainari erretiratzeko adina iritsi zitzaion. Artaldea saldu zuen. Gauean bertan, diruak golkoan-da etxerantz zetorrela, norbaitek bidera irten eta dena kendu zion. Zorigaitz handia, hain mundualdi lantsu baten ondoren erretiratzen zen batentzat. Artzainak isilik gorde zuen zorigaitza. Berak eta bidelapurrak bakarrik zekiten. Ez zion esan andreari ere, zeinak uste baitzuen ardi-diruak bankuan zeudela. Denborari joaten utzita, goiz batez, han zegoen tren geltokian, eta ezagun nahiko hurbil batekin topo egin zuen, zeinak honela agurtu baitzuen:

- Egun on, Kelando, aspaldiko! Zelan gabiltza?
- Ondoegi ez, baina lasaiago orain.
- Jakin dut, bai, nolako okerra izan zenuen artaldearen diruekin.
- Heu izan haiz! –oihu egin zuen artzainak, lagunari lepotik heldurik.

Geroztik maiz entzun genion artzainari: «Egiarik handienak isilik egonda jakiten dira». Urte batzuk erretiro lasaian eginik, Kelando artzainak bazekien, bera hildakoan, etxeko inork ez ziola etxaldeari jarraituko, eta esan zuen:

- Beste penarik ez diat sasia bekokiraino sartuko zaizuela.
- Hil lasai, aita! –animatu zuen seme batek—. Bekokia jo aurretik, jiratuko gara.

Seme lapurra

Gizon sasoiko, pozik zegoen osatzea eta aurrera ateratzea lortu zuen familiaz, harik eta konturatu zen arte ostu egiten ziotela. Eta ez zuen huts egin susmatzean bere seme bat zela lapurra, zeinak buruera eta atrebentzia izan baitzituen aitaren logelan egiteko azioa, hura lo sakonean zela. Saiakera batzuk ondo joan ziren, baina egun batez aitak pentsatu zuen: «Ez, ba! Gaur jakin behar diat nor den». Gizona han zetzan beti bezala ohean lo, hots, lo plantan, azkura baino zoliago. Semea badator ttak-ttak, aitaren gelan kontuz-kontuz sartu da, eta badoa diru zorrora. Eskua zorroan sartu dueneko, aita atzetik dinbi-danba hasten zaio. Mutilak, dena aurreikusita balu bezala, oihu dagi: «Ai, aita! Ametsetan nabil!». Aitari ideia gustatu zaio eta: «Neu ere bai, semetxo! Neu ere bai!». Eta eman!

Nahiz eta bizkarra ondo berotu izango zion, gizonak gero pentsatu zuen: «Mutil hau argia eta ausarta duk. Honek aterako dik bizimodua». Eta morroi bidaltzea erabaki zuen, gazte oraindik, baina pentsatuz, seguruenik: «Hau etxean baino hobe duk auzoan eduki». Mutila konformatu zen, eta aitak herriko baserri modutsuenak obserbatzera eraman zuen, gauez eta disimuluan. Aita-semeek, kanpoko ilunpetik sukaldeko argitara, ondo ikusten zuten barruko berri. Jauregi antzeko baserri batean, mutilak sukaldeko sabaia bete-beterik ikusi zuen, zintzilik bertan urdaiak, urdaiazpiak, solomoak, saiheskiak, lukainkak, bakailaoak eta zer ez. Etxekoak errosarioa errezatzen ari ziren. Mutilaren begiak ia leihotik barruraino joan ziren, zioela: «Aita! Hauxe da etxe ona!». Aitak ezetz, aurrera jo behar zela. Hurrengo etxe modutsu batean, sukaldeko sabaia hutsik zegoen. Aitak esan zuen:

- Hementxe galdetu behar dugu.
- Baina aita! –ikaratu zen semea–. Hemen ez dago ezer!
- Ez dago ezer, janda daudelako –aitak–. Hemen jan egiten da. Bestean, eduki.

Biziak aurrera

Semea hamabi urtera iritsi zenean, aitak esan zion: «Borrokan egin behar diagu». Mutikoak gogoz jaso zuen erronka, ez baitzuen uste aitak halako jipoia emango zionik, ama ere ikaratzerraino. «Baina nola jo dezakek mutila horrenbeste?». Okerkeriaren baten ondoren, aitak borrokan egitera zigortzen zuen. Mutikoa mutil egin zen, mutila osatu zen, eta iritsi zen egun bat, borrokan bera nagusitzen hasi zena. Egun batez, aita ia zerraldo utzi zuen urrizpean, arnasa sustrai agerietatik xurgatu beharrez. Semeak amari deitu zion, esanez: «Hemen daukazu zeure senar balientea!». Amari bihotzekoak eman izango zion, senarraren eskuek lurretik keinu egin ez baliote, «lasai-lasai!» adieraziz. Gizonak, noizbait tentetzea lortu zuenean, semeari esan zion: «Ongi! Mundura irteteko moduan hago».

Mundu hura zaila eta urria baitzen. Herrian oiloak ohi baino gehiago falta ziren. Lapurra deskubritua izan zen, eta zigorra erabakitzeke, herri-batzarra deitu zuten, lapurra bertan egotera behartuz. Honek, hizlari guztien gaitzespenak entzun ondoren, esan zuen:

– Neuk ere hitz egin behar dut. Ni laster hilko naiz. Baina ni hil eta gero ere, oiloak falta izango dira herrian.

Oiloak baino gehiago ere falta izan zen, soldadu frankistak sartu zirenean. Altxamenduaren aldeko familia batek bere etxean hartu zuen tropa sail bat, zeukaten guztia emanez eta herkideen aurrean gailenki aldarrikatuz: «Oraintxe ez da ezer falta!». Gerra abiatu zenetik, urrezko piezak eta txanponak gari-kutxetan gordeak zituzten, badaezpada. Tropak aurrera jo zuenean, etxeoandrea gari-kutxak ikuskatzera igo zen, eta garrasi egin zuen:

– Gizona! Zatoz hona! Urre guztiak falta dira!
– Arraioa! –hots egin zuen gizonak, kutxara begira–. Geureen artean ere gorriak dabiltza!

Gero, gerra bere aldekoek irabaztea gertatu zen, eta harrotzen zen:

– Hilak hil eta biziak aurrera!

Astoaren ostikada

Gizona galtzak erantzeko premia larriak jo zuen, eta zeraman zakukada sagarra auzoko baselizako arkupean utzi zuen, santuari eskatuz: «Zaindu hau neu etorri arte». Baselizak San Gregorio zuen deitura, eta gizona, errespetuz, ahalik gehien urruntzen saiatu zen. Kontua da, bueltan, zakukada sagarra falta zela. Elizpeari itzuli bat eman zion, baina han ez zen ezeren lorratzik. Zurezko hesi bitartetik hatz erakuslea aldarerantz apuntatuz, haserre bizia egin zion santuari: «Zer eskatu dizut nik? Zu ez zara San Gregorio, ez Don Gregorio. Ezta Gregorio ere!».

Santu hark ekandurik behar zuen edozer entzutera. Urtero egiten zen letania bat, baselizaren malda barrenetik goiko tontorreraino, San Gregorioren aurrean geldialdi bat eginez. Nahiz eta litaniak errezuaz joan, umeentzat erromeria dibertigarria zen, eta helduentzat ere ez gutxiago. Letaniak latinez, apaizak, erromesburu, santuen izenzerrenda luzea kantatzen zuen. «Sancti Gregorii», eta herriak atzetik «ora pro nobis» (“otoi gure alde”). Letaniekin, errogatibak ere kantatzen ziren, non Jainkoari zenbait gaitzetatik libratzeko erregutzen zitzaion, hala nola: «A peste, fame et bello» (“izurri, gose eta gerratik”), eta herriak: «Libera nos, Domine» (“libra gaitzazu, Jauna”).

Aurrelari gurutzea zihoan, akolito baten eskuan. Hartan, mutikoak erreparatu dio zozo-habia bati, eta hor hasi da gurutzearekin dinbi-danba, adarrak jotzen eta sasiak apartatzen, habiaraino iristeko. Atzean herriak «libera nos, Domine», eta aurrean gurutzeak «dindi-danba, Domine». Bigarren «dinbi-danba» hori sakristian ere izango zen bueltan. Apaizaren ukabilkada batek betondoa beztu zion mutikoari. Apaiza bera ere beldurtu zen eta mutikoari agindu zion: «Esan etxean astoak ostikada eman dizula». Hala pasatu zen, mutikoa ez baitzen ausartu egia kontatzen, nagusitu arte. Etxekoak ere ez ziren ausartu ezer esaten, nahiz eta argiro susmatu betondo hark ez zeukala asto baten ostiko itxurarik.

«Nobedadea»

Etxean jaio, nahiz kanpoan sortu. Apaizetxea izango zen bakarra, bertan jaiotzarik izaten ez zena. Idi trabatuak biraoka ateratzen ari zen itzain bati apaizak kargu hartu zion:

- Gizona! Zaindu aho zikin hori!
- Aho zikina? –itzainak–. Nik ez dut oraindik neskamerik Errioxara bidali, “haizeak aldatzera”.

Apaiza marmarrean aldendu zen. «Ihiztari zaharrak» ere Parisera bidali zuen «urzo xuri pollit bat». Zeren «gaitza berri zueno, nahi zuen saldu, erostun tontuen bat harrapatu balu».

Umeak ilaran jaiotzen ziren, eta ‘jaiotza’ hitza ‘nobedade’ hitzaz ordeztzen zen. «Joan amamarenera eta esan ‘nobedadea’ dagoela». Izan zitekeen hamaikagarrena, eta hura ere «nobedadea». Bitartean, hilak edo hilda jaioak ugari, natur lege primario baten arabera: «Denak aurrerako izan balira, honezkero elkar janda geunden». Agian, txakur haiek bezala. Hain amorruez borrokatu ziren, non elkar jan ondoren, bi isats gelditu baitziren tente, oraindik lehian. Ez da harritzekoa herri hartan trenik ez egotea. Behin saiatu zen iristen, eta zakurrekin izuturik, eurt egin zuen.

- Baina, ume! Heuk ez al dakik zapatilak lotzen?
- Bai, baina gaizki.

Eta «nobedadeak» aurrera.

- Aita! –deitu zion mutikoak–. Gurean «nobedadea» gertatu da.
- Zenbat? Bat ala bi? –aitak kezka, lehen ere haur ugari baitzen etxean.
- Ez bat, ez bi. Hiru!

Emakume bat neskato batekin gurutzaten da.

- Nora zoaz, ume?
- Aitak tabakotan bidali nau.
- Hain bide luzean? Berak ezin al zuen etorri?
- Ama zaintzen geratu da.
- Zelan, ba? Ezbeharren bat?
- Medikua etorri da ume berria ekartzera, eta ama gaixorik zegoen ohean.

Hurrengo erditzean, aitak ere presente nahi zuen. Haurra ondo jaio zen, baina medikuak esan zuen:

- Et, et! Geldi! Hemen beste bat dator.

Bigarrena jaio zenean, ondo zorionez, hirugarrena ere ba ote zetorren. Aita beldurtu zen eta agindu zuen:

- Itzali kandelak! Hauek argitara datoz!

Alukeriak

Aspaldiko adiskide bat aurkitu nuen barraren mutur batean, itxura kezagarrian. Basoerdi bat edaten ari zen, begiak itxita.

- Baina, gizon! –hots egin nion–. Gaitzen bat iritsi al zaizu begietara?
- Bai, baina iragankorra da. Konfesoreak penitentzia ezarri dit astebetean ardorik «ikusi ere» ez egiteko, eta horretan nabil.

Bitartean, barra erdiko multzoan eztabaida ozena zebilen ea ardoa ongarri ala kaltegarri ote zen. Non eta tabernan horrelako debate bat! Eta ez nolanhiko gizalegez, batek oihu egin baitzuen:

- Zerri galanta haiz hi!
- Utziok, mozkor baitago –esan zion solaskide batek zerritzat joa izan zenari, eta mozkorrak argudiatu:
 - Bai, bai! Orain mozkor nagok, baina hori mozkortu aurretik pentsatua nian.
 - Ba, hartzea daukak popatik! –eraso zion zerritzat joa izan zenak.
 - Ez zaidak gustatzen! –erantzun zuen mozkorrak.
 - Hara! –besteak orduan, irri zuriz–. Probatua duk, beraz!
 - Jakina! –mozkorrak ozenki, hitzak kostata menperatuz–. Hirea probatu nuelako ez zaidak gustatzen.
 - Hik zer uste duk? –oihu egin zidan eztabailarietako batek barraren muturrera.
 - Uste zertaz? –galdetu nuen benetan, ez bainekien zehazki zeri erantzun.
 - Ardoaz ez al gintuan ari?
 - O! –lasaitu nintzen–. Ni infusio bat hartzera etorri nauk.
 - Baina sagardoa daukak aurrean!
 - Zaudete isilik! –agindu zuen kontrako barra-muturretik konkor baten ahotsak–. Ardoa ona ala txarra den erabaki bitartean, ez al duk onena izango pixka bat gehiago edatea?

Eta hara, nondik eta zergatik ez nekiela, paralelismo ustegabe batek astindu ninduen:

- Bizitzak merezi duen ala ez erabaki bitartean, ez al da onena izango pixka bat gehiago bizitzea?

Hain laburra ez balitz! Alukeria. Hain luzea ez balitz! Beste alukeria bat. Hemen guztia begira daiteke alukeriaren batetik. Eta bitartean, ondorio argietara iritsi bazara, amaitu da dibertsioa.

Oporrak Belauntzan

- Gaztetu egin zara!
- Igartzeko beste?

Herkide aho-handi bati entzun nion 55 urterekin gailen egona zela. 60rekin, gailenago. 65ekin, pixka bat jaisten hasi zela. «Eta orduantxe ondu! ». Ez nuen garbi atzeman zer zen “ondu” hura. «Ni ere ondu naiz, ba!» –esan zuen ondotik zurrutero batek. Zerk ondu zuen galdeturik, ez zuen dudarik izan. «Ezinak!». Badago aldea ontzetik ezintzera, baina hor konpon. Bakoitzak antolatzen du mundutik pasatzeko zer figura komeni zaion.

- Hilei errespetua? –hots egin zuen Kikario iturginak–. Ba, a zer modua! Ez dute entzuten, eta kantatzen diegu. Ez dute ikusten, eta argiak pizten dizkiegu. Ezin dute jan, eta ogia jartzen diegu. Zer dago hori baino burla handiagorik?
- Baina, Kikario! Heriotza albora utzita, horiek eta gu, denak gara amaren umeak – ihardetsi zion batek.
- Ba, ni ez! –harrotu zen–. Ni zaharrena naiz, eta gure ama neuk egin nuen ama.

Nik ere zerbait diferentearen bila joko nuen Belauntzara, egunkari batean iragarki bat irakurrita: «Oporrak Belauntzan. Udako ikasketak». Gipuzkoako herri txiki hori ezagutzen bainuen, harritu ninduen eskaintzak. Nobedadea probatzea erabaki nuen, esaera bat irakurria bainuen nerabezaroan, euskara klandestinoki maitatzen hasi ginenean. «Belauntza, ganbela bete arraultza». Tolosa ondoan, Ibaratik haratxoago, iritsi nintzen Belauntzara, eta galdetu nuen tabernan:

- Aizue, non dago Belauntzan oporlekua? –Martiziano bati bezala begiratu zidaten–. Udako ikasketak egiten direna.
- Sega pikatzen-edo ez bada –erantzun zidaten–, ez dakit hemen zer ikasketa izan daitekeen.

Komunera jo nuen, argizulo baten bila. Sakelean neraman ebakin publizitarioa berrirakurri nuen, eta aibadios! «Oporrak Belauntzian. Udako itsasketak». Izorrai! Toki aproposera arribatua nintzen surfera. Garaiz bakarrik erratu nintzen, Belauntza ere, noizbait, itsaso izana omen baita.

Zortzi egun

Errakuntza batek ohitura sexualak aldatzeraino eramán dezake. Senar-emazteek ezin zuten familiarik lortu. Apaizari aholkua eskatzerik ez zegoen haien buruetan, nahiz eta andrea hilerok konfesatzen zen. Gizona ere bai urtean behin, Paskoetan, baina kanpoko fraile batekin. Medikua urtean bi edo hiru aldiz pasatzen zen zaldian etxe ondotik, inguruko norbaiten dei larriren bati erantzunez. Bueltan, etxe hartan egiten zuen beti gosaria, edo askaria, orduen arabera. Gizonak esan zion andreari:

- Hurrengo pasatzen denean, zergatik ez diozu medikuari berari galdetzen zerbait? Zu ni baino trebeago zara horrelako gauzak azaltzen eta ulertzen.

Medikuak, hamarretako gozoaren ondoren, gogo onez eta zuzen eman zizkion andreari azalpenak. Era ulergarri eta praktikoan laburtzeko, esan zion hilekoaren aurreko zortzi egunak eta atzeko zortziak «libreak» zirela, eta beraz, bitarte horretan saiatu behar zela. Gizonak, feriatik bueltan, medikuak zer esan zuen galdetu zionean, andreak erantzun zuen:

- Ba, esan du «zortzi egun aurretik eta zortzi egun atzetik».
- Neuk ere horixe susmatzen nuen –baietsi zuen senarrak–. Gaur atzetik hasiko gara, eta gero aurrera pasa, ea non dagoen akatsa.

Denbora ez hain luze baten buruan, metodo okerrak «deskuido bat» ekarri zuen, ume bat alegia, metodo zuzenetik gertatu ohi ziren deskuido ezjakín ugarietara gehitu zena. Eta ez baitzekiten argi zein aldetatik iritsia zen emaitza, metodo berdinean jarraitu zuten, bizpahiru ume bakarrik sortzea Jainkoari beso bat moztea bezala baitzen. Emakume hura nire apaiz-itzaletik pasatzea gertatu zen, eta errakuntza hartaz jabetu nintzenean, esan nion:

- Baina, Felisa! Bost umeren guraso izanik, nola ez zinen iritsi prozedura zuzena jakitera?
- Ni ez nintzen arduratzen nola sortzen ziren, nondik jaiotzen ziren baizik. Eta hori ikusten nuen.

Ez egin inori

Seguruenik, inor ez dagoke behin edo behin esan ez duenik: «Ez egin inori norberetzat nahi ez denik». Ño! Argia eta erraza dirudi. Baina ezinezkoa! Umeek, adibidez, maiz eskatzen dituzte ezin direnak edo komeni ez direnak. (Helduen adibide inpresentableak ez ditugu aipatuko). Agindu bakar hori hausten dutenak nonahi aurkituko dituzu, eta zehatz betetzen duenik nekez. Ezta zeu ere. Beharbada hildakoan, baina hori...

- Hildakoan, denak onak!
- Onik ez dago, txarrak eta txarragoak baizik.
- Ez al daiteke izan txarrenetan onena?

Agindu esentzialera itzulirik, nola izan daiteke ezinezkoa hain gauza argia eta erraza? Badirudi «animalia arrazional» bakartzat jo genuena kontrako bidean doala.

- Zenbat eta atzerago, aurrerago, beraz?
- Dударik ere ez! Ailorbe zakua Bilbotik tranbian bizkarrean ekartzen nian nik, hiru orduko bidean.
- Herriko tontoa hintzenean?
- Tontoa bai zakuarena ordaintzen zuena! Nik doan ekartzen nian.
- Eta nik tranbian lo egin, izorra! –hirugarrenak–. Tranbia bete-beterik, goizean goiz, dinamitara, eta ni lo.
- Neu ere inoiz joan izan ninduan erdi lo –laugarrenak–, eta bertan hortzak galdu nitian. Konturatzean, gidariari oihu egin nion: «E! Geldi! Jo atzera!». Tranbiak atzera egin zian. Hortzak aurkitu nitian, eta denak pozik aurrera, heu izan ezik, loti hostia hori.
- Lo banindoan, zer egin behar nian?
- Pulpa-zaku ustela! Egunean zenbat denbora egiten huen, ba, itzarrik?

Itzartu zen ondo ere, zapo hura akabatu zuenean! Soro lanean ziharduen lur bigun-bigunean, eta oina barrura. «Demonioa! Hau duk zapoa!». Eta zapoa zelakoan, ezker oineko behatz nagusia moztu zuen.

- Merezi ere ez besterik, sardinaz baten lanik ez huen sekula egin eta.
- Aizak! Angulak onak izango dituk, baina bat izatekotan, nik sardinaz bat nahiago gero!

Orduan pagoak ere oraingoan hamarrekoak ziren hemen. Tiroak erreskan jaurti eta usoak goian, zorriketan. Titorik entzun ere ez. Ez zen harritzekoa, ze Jainkoa bera ere, zen handian, ez baitzegoen toki guztietan.

- Nolako ezetz? –haserretu zen apaiza–. Zuen labean ere derrigor egon behar din Jainkoak.
- Ez, jauna –neskatoak.
- Baita sutan denean ere! –apaizak autoritatez.
- Ez, jauna –neskatoak berriz ere–. Gurean ez dago laberik.

Bai zegoen apaizentzat lana, hainbeste bekatu txiki barkatzen eta handiei albo egiten. Gizona hilzorian zegoen, eta apaizak galdetu zion:

- Gaizki egin dizutenei barkatzen al diezu?
- Segituan hil behar bada, bai. Bestela, ez.
- Orduan, zapatuan auzolana dago, eta hantxe ikusiko zaitut, bide bazterrak garbitzen.
- Nirekin ez konta. Ni erditik ibiltzen naiz.

Egun on bakarrik

«Arnabate kalean, mozkorrek atean-atean». Katano zuen grazia. Mozkortzen bazen (botila erdi nahikoa, bi gehiegi, hiru behar), beti zegoen lagun bat (jatorra bazinen, «lagun jator bat», alua bazinen, «lagun alu bat»), etxera taxian bidaltzen zuena. Atarira iristean, nola edo hala itzartu zen, eta oraindik eguna zabaltzeke egon arren, izan zuen hainbat argitasun adina gizalege taxistari galdetzeko:

- Zenbat da hau?
- Ezer ere ez –dio taxistak–. Etortzea ordainduta dago.
- Eta joatea? –galdetu zuen.
- Joatea debalde da beti.
- Orduan goazen atzera!

Taxiak, «egon pixka batean, oraintxe nator» esanda, han utzi zuen, baina Katano ez zegoen ondo-ondo. Abiaduragatik edo bihurguneak ohi baino estuagoak izan zirelako, larritasunak intxaurrondoaren kontrara okertu zuen, almitza jandako txakurra pendizean botaka bezala, ipurtzuloa eztarriraino etorrira. Katano etxean sartzerako, eguna argitua zen.

- Andreari zer esan zenion? –galdetu zioten biharamunean.
- Egun on bakarrik. Beste guztia berak esan zuen.

Katanoren lagun Erminiori, inoiz Katanok berak taxian bidali izan zuenari, analisiak egin zizkioten, eta medikuak esan zion: «Odolean ura daukazu». Gizonak, harriturik, ia haserreturik, hots egin zuen: «Nola ura, ardoa besterik ez baitut edan?». Zepa piloan urre bila ibiltzen zen gaizoa, urrea baitzuen amets. Mozkortutakoan, zepa artean urrea ikusten zuen, eta hantxe ibiltzen zen azterka, baina azkenean, urrerik ukitu gabe hil zen gizajoa. Benetako urrea zegoen meategian sartzeko, mila duro aurreratu behar zituen. Mila duro aurreratzeko, edateari utzi behar. Baina edateari utzita, ez zuen urrerik ikusten. Zer nahi duzu destino zekenagorik?

Katanorena hilean bi aldiz bakarrik zen. Batean oinez, eta bueltan taxian, eskatzeko moduan bazegoen. Eta bestela, trenean. Kostatu zitzaion erabakia, ez trenagatik, jende ezaguna topatzeko beldurragatik baizik. Baina probatu gabe ezin utzi.

- Nora? –galdetu zioten lehiatilan.
- Bai! Andreari ez diot esan eta zeuri esango dizut!

Gero trenean, poliziak salbakonduktua eskatu zion.

- Hau kadukaturik dago! –erasan zion poliziak.
- Hor konpon! Niri lagun batek utzi dit –erantzun zuen Erminiok.

Trena gainera

Trenbidearen erdian geldi zegoen, eta trena gera zedin zortea ukan zuen, baina gidariak haserre bizian eraso zion:

- Aizu, jauna! Ez al duzu beste biderik?
- Nik bai, zuk ez.

Kamioiarekin ibili zenean bezala. Zarata arraroren bat entzunda, Katano baztertu zen ustez toki egoki batean, eta autozale batek hor jo zuen atzetik. Katanok hots egin zion:

- Aizu, adiskide, edo oraintxe ez dakit zer! Ez al zenuen beste biderik, albotik edo gainetik?
- Zergatik ez duzu seinalerik jarri? –zakartu zen autozalea bera ere.
- Seinalea? Loiolako basilika baino kamioi handiagoa ez duzu ikusi, eta seinalea ikusiko zenuen?

Ai, Katano! Joan zen astean, astoan jaitsi zinen tabernara. Asto begibakarra, bidea zuzen asmatzeko hobe zela eta. Astoa majo kargatu zenuen andreak aginduriko jeneroz. Gero zeu ere kargatu zinen, eta asto gainean etxerantz, abere gaiztoa gainean jartzen zaion guztia eramaten ohituta zegoela eta. Bideak apur bat gorantz egin zuenean, atzerantz erori zinen, baina hankak otzaretan, saskietan gatibu, zintzilik eta buruz behera geratu zinen. Erruki handirik ez zenigun eman, baina bertatik pasatzea egokiturik, ezin genion zu libratzen saiatzeari utzi, baina esan zenigun: «Zer behar duzue? Astoa larrean ari da, eta ondo dago. Ni ere ez nago gaizki».

Autodidaktek uste dute eurek dakitena eurek bakarrik dakitela. Nik marraskiloak aise harrapatzen nituen, nire lan erritmorako oso egokiak zirelako. Garbitzea ez zitzaidan askorik kostatzen. Neure mukiak ere musuzapian gordetzen nituen, eta pentsa. Lagun batek esan zidan marraskiloak, erraz eta ondo, garbigailuan garbitzen zirela. Jaramon egin nion, ez metodo tradizionala gorroto nuelako, baizik garbigailu kooperatibista bat zelako. «Susta dezagun geure industria!» –pentsatu nuen. Marraskiloak triskaturik eta tresna izorraturik gelditu zen. Zein garbigailutan sartu dituzu? –galdetu zidan lagunak. Aparatuaren marka eman nion, beldur handiz zerbait oker egin ote nuen, eta lasaitu nintzen, esan zuenean: «Otseinen ez, mutil! Edesan garbitu behar dira!»

Beharbada, garbigailu espezifiko bat asmatu beharko litzateke marraskiloentzat. Gure izeba zahar batek zioen –pentsa noizko kontuak!– aurrerapenaren garantia dela aparatu utilak asmatzea geroz grina inutilagoentzat. Beharbada, koordinazioan zegoen guztia. Bi adiskide min batu ziren. Batak irakurtzen bazekien, baina erdaraz ez, eta besteak erdaraz bazekien, baina irakurtzen ez. Orduan biak elkarren ondoan jartzen zituzten, lanean zein aisian. Hotsak ziren alemanak aurrera zetoze. Biak ere politikan oso kezkatuak izanik –nola ez, ba, mundu-gerra bat baitzen!–, lanetik irteeran zalgurditxo bat hartzen zuten, egunkaria irakurtzeko. Irakurtzen bai, baina erdaraz ez zekienak ozenki irakurtzen zuen, eta galdetzen zion irakurtzen ez, baina erdaraz bazekienari: «Zer ipintzen du?». Eta irakurtzen ez, baina erdaraz bazekienak erantzuten zuen: «Hauek aleman zerriok!». Marraskiloak belaunetan gora zetozen, eta jarraitzea erabaki genuen.

Eguerdian lan eske?

«Heldu, mesedez, txakurrari». Ez duela ezer egiten? Muturra majo sartzen du, ba, zokorik ezkutuenetan! Prekauzio inoiz aintzat hartu gabe hori neuretzat gorderik, orduko etxeetan gabeziatik askatzen hastearen adorea nabari zen. Industria halako espantsioan zihoan, ezen ate bat ixtea nahikoa baitzen, bi zabalik aurki zenitzan. Bazen lana, baita nahi ez zutenentzat ere. Hauetako bat, goiz ibiltzeko beranduegi jaioa zela-eta, eguzkia gainean zuela aurkeztu zen lantegi batean.

- Eguerdiko hamabietan lan eske? –akar egin zion lantegiko nagusiak.
- Ez da neuretzat. Anaiarentzat da. Oraindik ohean dago.
- Hara! Ez al zuen beste gizonik, komisio hori egiteko?
- Bai. Saiatuz gero, atzemango zuen, baina zuretzat neu ere nahikoa nintzela pentsatu du.

Ohean zegoen anaiari amak orduerdi geroago deitu zion, esanez: «Jaiki, seme, siesta ere egin beharko duzu eta». Horrelako salbuespen ez hain bakanak aparte, langile gehienak, gogoz edo larruz, finak eta saiatuak ziren. Ordu extrak ere erreskan, lantegi urrunetakoek bidean lo eginez eta hala. Emakumeak ere hasi ziren lan-merkatuan sartzen, eta orduan gizonaen bideko loak –tranbian, trenean, autobusean– asko zaildu ziren, umiliazio bat iruditzen baitzitzaien emakumeen bistan lokartzea. Nagusiak langile bati esan zion:

- Aizak! Hik egin behar duk gorantz zakuak beterik ekarri, eta beherantz zaku hutsak eramán.
- Eta bitartean zer egingo dut?

Sator jalea

Gure osaba batek ez zuen aurreratu nahi, eta borda batean bizi zen, bizi da, bakarrik. Satorrei larrua kendu, babekin egosi eta huraxe janez moldatzen da, indartsu eta sano.

- Zer moduz sator okela aurten? –galdetu nion, eta erantzun zuen:
- Oso ona, baina harrapatzen zaila.

Elur oraindik mehean oinatz garbiak utziz, bera goitik behera zetorren, aterki handi baina deformatu baten azpian, txakur ileitsu bat ia hankapean blai zekarrela. Nolabait agurtu behar eta esan nion:

- Egun on, osaba!
- Hau demonioa! –hots egin zuen aterkipetik bururik atera gabe–. Lehen hitza, gezurra!
- Ba, ni artzain ospetsu baten iragarpenean fidaturik etorri naiz.
- O! Hik buruan daukaan artzainak ez dik mendirik zapaldu hamabost urte zituenetik, eta baditik laurogei.
- Ez dirudi zure kasua.
- Nik eguraldiari, egun batetik bestera, ia beti igartzen zioat.
- Horixe jakitera nator. Bihar zelako eguna egingo du, Gorbealara igo nahi banu? – Ezin nion esan amak beragana bidali ninduenik.
- Bihar? –Zeruko alde ezberdinak behatuz (nik ez nekusan ezer diferenterik inon), jaulki zuen: –Ba... igual egingo dik ona, igual egingo di txarra.
- Orduan, neu ere igual joango naiz Gorbealara, igual ez naiz joango.
- Hor konpon! Baha ere, bazekiat itzuliko haizela.

Konkorra eta okerra

Pentsa konkor bat eta oker bat (begibakar bat), egunaren lehen argian, kalean elkarrekin topo egiten.

- O, gaizoa! Goiz-goizik kargaturik! –diotsa okerrak konkorrari.
- Bai, bai! –darantzu konkorrak–. Goiz izan behar du, ez baituzu zabalik leiho bat baizik.

Gure osaba artzain bati osaba Kilon deitzen genion, eta durduzaturik gelditu nintzen, behin bidelari batek galdetu zionean:

- Nola duzu izena?
- Ni –erantzun zuen berak sikuan.

Bat-batean, hiru ataritako txakur lotuek euren kate eta guzti ni jateko amorrua zaunkatzen zutela, bizi guztian ikustea gertatu zaidan irudirik sarkorrena eta beldurgarriena aurkeztu zitzaidan aurrean, nire motorra jo eta horman errebotatuz desagertu zena: katu beltz bat, lapiko gorri bat buruan zeramala. Etxe artetik emakume bat agertu zen, bera ere izu, galdezka:

- Zer gertatu da hemen?
- Ez dakit. Uste dut zeuen atartetik irten dela.
- Katu barrabana! Infernuan ere lapur jarraituko duena!
- Ba, infernu zati bat atzeman duela esango nuke.

Etxekoandreak argitu zuenez, katua sukalde barkartian sartu zen, ahal zuen guztietan bezala, eta hara non aurkitzen duen txokolate egin berridun lapiko txiki bat, estalki gabe, barruko salda gozoa hoztu zedin. Sartu zuen burua kostata, baina gero kostata ere ezin atera. Hura mamua sukaldetik irten zena, hegal joka eta salda irakina zeriola!

Gure izeba Sofrone, ezkongea, bera bakarrik geratu zen, etxe bakarti batean. Eta, antza, basa samarra baitzen, gustura bizi zen, edo behintzat, horixe zioen. Galdera bat egin nionean, asko intrigatu ninduen.

- Izeba! Nola bizi nola zara aker batekin?
- Ongi! –erantzun zuen irmo–. Hau zintzoa duk.
- Eta kiratsa?
- O, gaizoa! Ez duk kexatzen.
- Baina, izeba! –ekin nion, potrozorri puntu batez–. Ez al zara beldurtzen gauetan, horrela ... bakarrik?
- Zeren beldur izan behar diat? –erantzun zuen–. Emakumeek ez nautek beldurtzen, eta gizonentzat behar diren guztiak baditiat.

Hemen zegok kiratsa!

Animaliekin dabilenak dena animalietara dakar, bizimodua bada, bizimodua, eta poesia bada, poesia. Gure aitita txerri-saltzailea zen, eta txerriak oinez eraman ohi zituen ferietara. Artean baziren trenak, baina txerrikume aldra bat geltokiraino gidatzea metodo segurua zen erdiak kale artean galtzeko. Elgoibarrera sarreran, gure aitita honela agurtu zuen herriko maisuak:

- Egun on! Bazatozte andana bat.
- Bai, eta beti gehitzen ari –erantzun zuen aititak.

Bertsoaren sorgin miragarri batek ere jaulki zuen arrazoi berdintsu bat. Bazuen txerritegi txiki bat, bera ere ez baitzen handia, eta lagun bat –hau bai handia!– saio baterako bila iritsi zitzaionean, gizon txikia txerri-gobernua ari zen. Filtro gutxiko gizon handiak hots egin zuen:

- Hemen zegok kiratsa!
- Hi ere etorri haiz eta!

Gizon bat ikusteko irrika bizia neraman. «Tasola» esaten zioten denek, etxe eta kanpo, herentziazko izenetik. Tasolak maite zuen medikuarekin hitz egitea, hau menditik bueltan zetorrenean. Hitz egin edo bazilatu, esanez, adibidez, harrigarria zela jendeak zeukan grina mendi tontorretara, gero berehala jaisteko. Hizketarako gogoak berehala aldegin zion Tasolari, ez hainbeste bera gaizki egon zitekeela pentsatu zuelako («zuek odolean gatzura daukazue!» –esan ohi zuen), baizik apalmen bat irizten ziolako inoiz egin beharrik ez izanaz harrotu ohi zen gauza bat egin beharri.

- Orratz punta mehe-mehe batek ez du ikaratuko basajaun bat, ezta? –animatu nahi izan zuen medikuak.
- Ni orratz puntak ez naute ikaratzen, ikusteko modukoak badira –erantzun zuen Tasolak.
- Zer sartuko dizut, ba? Iltzea? –medikuak aluki.
- Mailuak gordeta daude gurean, umeez ez harrapatzeko.

Hizketan-hizketan, Tasolak igarri gabe, indizioa sartua zen. Ikusten? Ba, ez zuen ikusi, eta medikuak esan zion:

- Tasola! Indizio bat baino gehiago hartu behar duzu. Gaur bat eman dizut, bihar beste bat emango dizut, eta horrela.
- Konforme! –onartu zuen Tasolak–. Baina denak gaur sartu didazun zuloatik sartzekotan.

Tasola

- Tasola! –tentatu nuen behin–. Sinesten al duzu ilargira iritsiak direnik?
- Iritsiko zituan. Baina handik inork ez dik patatarik ekarri.

Badirudi denok daukagula geure burua hobeto ikusiko genukeen beste leku bat. Irrika hori berezkoa da, nonbait. Beharbada, gizatasun orokor bati aplika dakioke teoria bat, baina kontua da gizatasun partikularrak bakarrik existitzen direla.

- Zuen herrian zenbat mozkor dira? –ziztatu zuten alberritar bat, mozkor samar ibili ohi zena.
- Zuen herrian gizonak adina.
- Gure herrian zenbat gizon dira, ba?
- Orain bat –erantzun zuen alberritarrak–. Ni joandakoan, bat ere ez.
- Ja, ja, ja! Neu ere bai gizon, zuen herrian! –hots egin zuen eztabaida abiatu zuenak.
- Zaude isilik! –agindu zion herkide batek–. Zu bezalako hamarrekin ere ez dago gizon bat osatzerik.
- Asmatu duk bapo! –ebatzi zuen mozkor samarrak–. Batekin gertuen, hamarrekin eta urrutiago!

Jende aldrebesa trebeena da jende aldrebesa definitzen.

Entrenatzaile zahar batek esan zionean bezala: «Neuk uste baino hobea zaude, baina zeuk uste baino txarragoa». Horrelako korrektibo bat garaiz ez hartzeagatik, hainbat txapeldun zapuztu izango ziren bidean, arlo guztietan, baina inoiz ez da jakiten «amatxik potroak izan balitu», aitatzik zer egingo zuen.

Arantzazuko basilika monumentalean ere, alferrik da zuk, urtean behingo konfesorako, dentifriko-tutu osoa eta kolonia-flasko erdia gastatu izana, konfesoreak halitosia badu. Aurrekoari galdetu zion nolako konfessore modua zen, eta harritu zen entzuteaz: «Ez diat ondo ikusi ilunetan, baina uste diat ipurdiz gora dagoela».

Melina

Pikaroak suposizio on bat dauka beti alde. Alegia, bere espeziea, beharbada ez nahitaezkoa, oso estimatua dela mundu guztian. Horrelako batek alukeria galanta egin zidan, mesede intimo bat eskatu nionean.

- Aizu! Zuen auzoko Urlia neskari egingo al zenioke mandatua neuretzat?
- Bai pozik ere! –onartu nuen–. Lagunak zertarako dira, ba?

Eta bidean, nire lagun pikaroak pentsatu zuen: «Neskarik ederrena inorentzat? Neuretzat inoiz mandaturik egin ez, eta orain beste batentzat?». Eta hala, badaezpada, lehenik, mandatua beretzat egin zion neskari.

- Ezkontzerik pentsatuko bazenu, ni pozik.
- Pentsatuko dut eta erantzungo dizut –esan zion neskak.

Eta nik begiz joa neukan neskak baietza eman zion «laguntzaileari». Beste erremediorik ez nuen izan bihotzez zoriontzea baizik, biak. Ezkontzara ere gonbidatu ninduten, eta esan dezaket bizitzan egun bat behintzat izan dudala, benetan zorionsu izan naizena. Hala ere, handik denbora batera, laguna pixka bat intrigatzearren –garbi esanda, izorratzearren–, gezur bat jaulki nion, egia izatetik hurbil egon zitekeena:

- Aizak! Aurrea hartu hidan, baina uste diat zure andrea beste batekin dabilela.
- Hor konpon! –erantzun zuen deblauki–. Neurekin ere bai!

Ezkontza hartan bazen andere ezteiliar adintsu bat, bistan zeukana elegantziaren ikur izana zela, eta orandik ere bazena.

- Zuk zenbat urte dituzu, Melina?
- Bi zortzi ditut. Bi zortzi! –erantzun zuen andereak, zenbakiak hatzekin irudikatuz.
- Eztabaida bat baitaukagu –tentatu genuen–. Beste jolas horretarako gogoia noiz joaten da?
- O! Ni baino zaharragoengana jo beharko duzue.

Zerbaitegatik tentatu genuen andere hura, txori txorrotxio batek kontatu baitzigun gaztetan libre fama izana zuela. Arazo benereoren bat zela bide –gonokozia, nonbait–, medikuagana jo behar izan zuen, zeinak esan baitzion: «Zabiltza kontuz alternantziekin». Azkenean, batekin ezkondu zen, ez bestela ezin zelako bakarrik, baizik berak esan ohi zuelako: «Gizon ezkondua, bat ere gehiegi da». Medikuak zoriondu zuen emakumea, baina ezin izan zuen zirikatatu gabe utzi:

- Eta orain? Zenbat aldiz egunean?
- Hara, mediku jauna! –solemnizatu zuen Melina ezkonberriak–. Egia esango dizut. Behin bakarrik. Gauean hasi eta goizean amaitu.

Nor hil da?

Guztiak bertara erortzen diren inperioa. Gure jaiotetxetik iparrerantz, Gorozika, Ajuria, Ibarri eta Mendatako dandak (orduarenak) eta dindanak (buelako kanpaienak) entzuten ziren, baita Ariatza eta Maumekoak ere, haizea alde zebilenean. Gorozikako kanpaia neutral hasiko zen: «Din-dan! Din-dan! ». Mendatakoak galdera inportantea egingo zuen: «Nor hil da? Nor hil da?» Maumekoak, beti ere albo-herriko norbaitegatik, erantzungo zuen: «Baten bat! Baten bat!». Ajuriakoak, dena jakin guran, jarraituko zuen: «Nun dao? Nun dao?». Ariatzakoak, han dena baitzekiten, erantzungo zuen: «Zeruen! Zeruen!». Ibarrikoak, ibarriaren troka lainotsutik: «Bai gero? Bai gero?». Mojen komentutik: «Eztakit! Eztakit!».

Sortetxetik hegoarantz, Etxanoko eliza, Dudeako San Migel, Zornotzako parrokia eta mojen komentua, eta Larrako karmeldarren komentua entzuten ziren. Inoiz, haizearen arabera, Bernagoiti eta Lemoa ere bai. Denek ordu exaktoan joes gero, kaos ozen bat, munduaren azkena iragartzeko, baina hori ez zen inoiz gertatu. Larrako karmeldarrak hasten ziren goizen: «Go-ra! Go-ra!». Etxanotik: «No-ra? No-ra?». San Migeldik, zoli-zoli: «Ze-ru-ra! Ze-ru-ra!». Zornotzako parrokiatik, sakon-sakon: «No-gaz? No-gaz?». Mojatxoek, azkenik, bizkor-bizkor: «Geugaz! Geugaz!». Inoiz, haize onez, Bernagoititik: «Gu be bai? Gu be bai?». Eta inoiz, haize zakarrez, Lemoatik: «Le-lo-ak! Le-lo-ak!».

Lapurrareen ezpainak

Gogo-jardun batzuetako sermoi baten ondoren tentatu ninduten, jada elizpean, nire parrokiatik urrungo entzuleek.

- Gaurko apaiz gazteen martxa ez dut ondo ulertzen –jaulki zuen gizon batek–. Lehen, apaiz guztiek zeukaten neskamea. Oraingoak bakarrik bizi dira.
- Horrexegatik etorri naiz misio hauetara –jarraitu nion ziriari–. Ea auzo honetan, bide batez, norbait egokia topatzen dudan.
- Uuu! –ulu egin zuen beste gizon batek, inguruko emakume eta neskei begira–. Auzo honetan ateak joko dituzu, baina apenas aurkituko duzun bakarrik lo egitekorik.
- Nork esan du bakarrik lo egin beharko duenik? –galdetu nuen inozo-inozo.
- O! Horrela bada –esan zuen emakume batek–, ez daukazu ate guztiak jo beharrik.
- Ama! –oihu egin zion tartean zegoen alaba batek, eta amak erantzun:
- Nik ez zionat esan geure etxetik hasteko gero!

Baserri batetik odolkiak ekarri zizkieten, baina iluntzerako norbaitek ostu. Apaiz demonioak isilik gorde zuen azioa. Igandeko sermoian, unerik beroenean, hots egin zuen:

- Bart odolkiak faltatu zaizkit, eta lapurra hementxe dago. Odolkiak jan ditu eta ezpainak markaturik dauzka.

Gizon batek muturrak garbitu zituen, eta halaxe salatu zuen bere burua. Apaiz horrek pikardiatik adina gaiztotik ere bazuen, eta gure aititak susmatzen zuen bere salaketatik iritsi zitzaiola isuna. Gure aititak zoritxar bikoitza izan zuen gerran: gerra bera eta derrota. Hirugarren zoritxar bat ere iritsi zitzaion: gerraostea. Joanak joanda zeudelakoan, isun arbitrario bat jaso zuen udaletxetik, zeinaren zentzu bakarra zigorra gehitzea baitzen, eta dirua biltzea, beronen lorratzik ere ez zegoen etxe baten bizkarretik. Eta ordaindu egin behar, uzkiraino zorpeturik, berriro kondenatua izango ez bazen. Billeteak lehiatitilik banan-banan eta astiro-astiro pasatu zituenean, beste aldeko buruak, udal idazkariak, esan zion:

- Agiri bat nahi al duzu?
- Ez dago beharrik, jauna. Hau ez zaigu ahaztuko.

Euri-jasa bat perretxikoak ernetzeko bezala, gerraosteak aproposak dira ume aluak ugaltzeko. Gure aititaren izaera ez zen irainak eragitekoa, baina herkide erdi mozkor batengandik entzun behar izan zuen:

- Zu ere putakume galanta, asko bezala!
- Hara! Etxeko berri jakiten baita azken –erantzun zuen aititak–. Zu bazinena banekien aspaldi, baina neurerik ez.

Aita kantuz, aita ez dena negarrez

Hauts zara eta hauts bihurtuko zara. Nola? Hautsa bazara, ezin zara hauts bihurtu. Errakuntza bibliko bat, behar zuena: «Hauts zara eta huts bihurtuko zara». Izan daiteke hauts eta huts sinonimoak izatea ere. Ez dakit.

- Emango al didazu hutsontzi bat, mesedez?
- Zuk «hautsontzia» esan nahiko duzu.
- Ez! Nik «hutsontzia» ikasi dut, eta horixe behar dut.
- Hutsak ez du ontzirik behar. Zenizero bat emango dizut.

Antzina deskubritu nuen sinesmena edo fedea non dagoen ugari, kristau bati, apaiz garaian, misiolari joateko asmotan nenbilela esan nionean. «Misiolari zertara?» –galdetu zidan, eta erantzun nion, ba, horixe, fedea harantz eramatera. «O! –espantu egin zuen gizonak–. Fedeak derrigor egon behar du lur haietan, hemendik joandako guztiak han utzita etortzen baitira». Gero hemengo apaizeria estintziorantz abiatu zenean, hangotar misiolariak etortzen ikusi genituen.

- Baina, gizon! –eraso zion apaiz handiak itzain bati–. Zer hizkera modu da hori, okotza ere okertua baituzu maldizioka?
- Jauna! Okerra bego okotzean, baina guk ez dugu inor bidali haizeak hartzera.

Apaizak neskamea «haizeak hartzera» bidaltzea (Errioxara eta) metafora argia zen herrian. Eta gaitzerdi, neska gajoari probintziara itzultzea debekatzen ez bazitzaion, umeak apaizaren antza zeukala agertu ez zedin. Ez, jauna. Ez ziren haizeak, txahala egiteko zegoen gure behi batek errape handia zeukanekoak, zeren berorrek jakingo duenez, haizeak dira batzuk bustiak, beste batzuk lehorrak. Neu nago etxean ikusia: bigai ederra hazi, ama onaren umea, kupela baino errape handiagoa, eta erle bat mantentzeko esnerik ez. Bazen gurean beste animalia bat, urte guztia jaten eta libra bat mejoatzen ez zena. Kanario bat. Hain harrigarri al deritzo berorrek maldizio batzuk jaurtitzeari?

Behin baino maizago gertatzen zen «haizeak hartzera» bidalitako neskamearen umea hiltzea ere. Halako haurtxo baten hiletan, otoitz ofizialen azpitik, honako salmoak korritu zuen ahopean:

*Aita dena aurrean kantuz, aita ez dena atzean negarrez.
Hamaika gauza pasatzen da mundu honetan aldrebes.*

«Aurrean kantuz» zihoana apaiza zen.

San Mamesen sermoia

Don Nemesiok, fedea itzuliko bada, mezua gaurkotu eta entzuleak atxiki behar zirela eta, ezkontza batean sermoi deportiboa egin zuen. Denak dotore eta okasioko, ezkonberriak artega baina distiratsu, apaizak honela jardun zuen:

Kristau-lagun maiteok, eta bereziki, ezkongai eta laster ezkonberri dohatsuok! Gaurko eguna zuentzat ez ezik, neuretzat ere oso berezia da. Orain hogeita hamairu urte, gaurko egunez apaiztu nintzen. Ezkontza bat gauza handia izango da, baina hura ere ez zen zernahi. Goizean apaiztu eta arratsaldean San Mamesera joan nintzen. Orduko Athleticak Madrilgo Atleticoaren aurka jokatzeko zuen, eta bat eta huts irabazi zuen. Gola Agirrek sartu zuen. Alineazio osoa gura baduzue, hona hemen izenak, ea zuek zenbat gogoratzen dituzuen. (Alineazio guztia). Arbitroak Zorriketa kanpora bota zuen, eta hala ere, irabazi egin zen. (Hain zuzen, Zorriketa futbolaria elizan bertan zegoen, ezkonberrien senide bezala etorria). Zergatik bota zuten berak esango dizue gero nik baino hobeto, eta ahaztua balu, neuk gogoraziko diot. Ezkongai lagun eta laster ezkonberriok! Zuek ere hemendik hogeita hamairu urtera, gogora dezazuela egun hau, apaizak esan zizkizuen lelokeriengatik bada ere. Eta orain, Jesukristoren gorputz-odol salbagarriak geuganduz, has gaitzen alde aurretik gozatzen gero egingo duzuen oturuntza jaukala.

Gauza jakina da labeek –ore freskoa ogi gozo eta usaintsu bihurtzen duten tabernakulu miragarri horiek– gainalde borobila eta leuna izan ohi dutela. Eta ahuntzaren gorotza edo kaka-pikorra borobila baina txiki-txikia izaten dela. Ba, apaizak, samurki, ia kantuan, jarein zuen:

– Ahuntzak labe gainean egindako kaka-pikorrak zabaltzen diren bezala zabaldu zituen Jainkoak bere grazia eta dohainak munduan.

Banengoen, ba, munduak usain dibinoa zeukala! Oraindik badira profeta ezpalekoak.

- Aizu! Bilbora hemendik joaten al da?
- Gu goazenean, hemendik joaten gara.
- Eta etorri?
- Ez zaigu sekula gertatu.

Senarraren prakak

Urri-aroa izanik, Agalia tabernariak, ozpina botatzeko, hatz txikia jartzen zuen botila ahoan, eta olio botatzeko, hatz lodia. Olio-tantak ondo neurturik jausiko ziren, jausten baziren. «Txanoduna» esaten zitzaion gizon batek galdetu zuen:

- Agalia! Nolako entsalada da hau?
- Ez al dago ona?
- Honela jartzekotan, baratzean bertan jango ditut.

«Txanodunak», Elien zeritzonak, baratze batetik zuzen etorria zirudien Bilbo ingurura. Agalia tabernariak bazituen zazpi txakur etxe inguruan. Gerrak ez zituen animalia guztiak hil, eta txakurrek bazekiten arrimatzen, harrikaden edo makiladen beldur ez izateko tokira.

- Baina, Agalia! Nola dituzu zazpi txakur? Hauek jaten dutenarekin, zekor bat hazi zenezake.
- Jaten dutenarekin ez, baina jango luketenarekin!

Elienen bizitza, besteen konparazioz, ez zen hain miserablea izan, nahiz eta morroi irtetea egokiturik, morroi-lanetan zeraman bizimodua. Herkideen begientzat gizajo samarra zen, baina berak oso aintzat zeukan bere burua. Adimenak maliziatik kendu ziona duintasunaren senera erantsi zion, eta hala, inork emandakorik ez zuen onartzen ezer. Medikuairen andreak praka pare bat eman nahi zion, eta haren ezaugarrien jakile, huskeria baten prezioa jarri zion. Elien «gizajoak» konfiantzakotzat zeukan herkide bati esan zion:

- Ño! Ni estu bizi naizela, baina senarraren prakak saldu behar dituen ere ez dabil hain nasai!

Azkenean, ezkontzeko zortea «merezi» izan zuen, berak esan ohi zuenez. Eta hain zuzen, Agaliarekin ezkondu zen. Seme bat ere «merezi» izan zuen, bera baino indartsuago zetorrena, bere esanean, baina oraindik «artopil batzuk falta» zituena, hau ere bere esanean. Aita-semeak, anegako arto-zorro banaz, urrungo azoka batera abiatuak ziren goiz-goizik, salmenta duin baten itxaropenez. Semea ez zen berehala nekatzekoa, baina artean bide erdi bakarrik zeramatela ohartu zenean, esan zuen:

- Aita! Egingo al dugu atsedeen bat hementxe?
- Atsedeen hemen? –haserretu zen Elien—. Hemen atsedeen egitekotan, beste anega erdina hartuko genuen.

Bazen ohitura deboto bat, hilotzak frantziskotar, karmeldar edo halako beste habitu batez beztitzeko. Elien «txanoduna» hil zenean, auzoko batek, hilkutxan hala erreparatu zionean, ilaran pasaeran, esan zuen: «Ai Elien, Elien! Bizi guztia abarka zaharren gainean, eta hiltzeko fraide jantzi al haute?».

Gurean irentsi

- Jainkoari eskatzen diot jaiki aurretxoan hil nadila, berak hala nahi badu –esan zuen lotiak.
- Ba, nik –esan zion lagunak–, Jainkoak nahi duenean hiltzea izatekotan, nahiago dut berak hil nazala.

Dopina ere betikoa zen, baina askok praktika berria zela uste zuten, garai bat izan baitzen, non sinesten baitzen okelak eta arrautzek bakarrik indartzen zutela gizona. «Gizona» diogu, orduan gizonezkoek bakarrik egiten baitzituzten indar-jokoak. Garai bat, non, gizon batek, otordu bakarrean, hiru dozena arrautza jan baietz apustu egin baitzuen. Eta lagunei ahopean agintzen zien: «Jokatu beldur gabe! Gosaritan probatu dut, eta aise jan ditut». Garai bat zen, non apaizak kargu har zezakeen:

- Nola jaten duzue ardia haratuzte egunean?
- Jauna! –ikaratu zen emakumea–. Gure ardiak ez du belarra besterik jan.

Non beste apaiz batek gizon bati eraso ahal zion:

- Haratustea errepetatzen al duzue?
- Bai, jauna!
- Nik zerbait aditu dut, ba, lehengo ostiralean zuen etxean haragia jan zela.
- Oker aditu du, jauna! –erantzun zuen gizonak–. Gurean ez da haragirik jaten. Gurean irentsi egiten da.

Badakigu Jainkoa bakarrik dela betikoa, baina orduan nork egin zuen bera? «Bere ahalguztiak! –ukabilkatu zuen sutsuki pulpituia sermoilariak–. Jainkoak bere burua egin zuen lehenen!». Korupean marmario bat entzun zen, batek esan baitzuen: «Hankak-eta non arrimaturik ibili ote zen!».

- Itzalean ez da bururik estali behar –esaten zuen.

Banekien hantxe egongo zela, eta banekien, motorretik jaitsiz batera, bigarren hitzean esango zidala:

- Zer dakarzu berririk, munduan lehenago gertatu gaberik?
- Ba, begira! Gaur jakin dut borroka batean azpikoak gainekoari esan ziola: «Gazta hori baino hobeto estutzen ez baduzu, gatzura geldituko zaio».

Txankarra kalean nenbilen. Mikonos kafetegian, sobre komertzial batzuk uztera sartu nintzenean, elkarrizketa bitxi bat entzun nuen:

- Zer, Kelito? Hotz ala? –galdetu zion nagusiak bezero bizardo, iletsu, bufandatsu eta kaputxadun bati.
- Hotza edo! Katarro puta honek ez baitu alde egin nahi –erantzun zuen Kelitok.
- Horrela zaintzen baduzu, berriz ere ez du alde egin nahiko!

Hortzak ontzian

Izenez Kelito, ezizenez “Bizardo”. Hileta batera joan behar eta hortzak falta Kelitok.

– Aizu, Kasio! Utziko al dizkidazu hortzordeak hiletarako?

Batak eskatu, besteak eman, hala joan zen Kelito Bizardo Bilbora, zeremonia bera baino konpletoago. Bueltan hortzak entregatzera jo zuenean, Kasio hortz jabeak galdetu zion ea nola moldatu zen, eta Kelito Bizardok erantzun:

– Ahoa bete harrirekin bezala ibili naiz.

Gertakari honetan, hortz emailea deigarriago egin zitzaidan eskatzailea baino, ze norbere hortzak ahotik atera eta inori uzteko borondatea daukanak gibelean ezin du harririk eduki. Baina ez nintzen hainbeste harritu, ezagutzen bainuen andre gazte bat, esan zuena:

– Bihar Bilbora noa. Hagin berriak ipini behar ditut.

– Bilboraino zertarako? –eraso zion amamak–. Neuk dauzkat estreinatu ere egin gabeak.

Hortzeriak urontzietan, lorontzi bat gehiago bezala, beste lorontzi baten ostean. Gizonak andreari ikaraturik esan zion:

– Eulali! A zelako hotza dakarren gaur! Haginak ontzian dardarka dagoz!

Andreak, haginez errukiturik, amantalean lehortu eta komoda gorde zituen. Hemen ez ziren asko epelago aurkituko, baina ilunetan behintzat.

Ontzia kaiaren kontrara baitzegoen, hur-hurretik zekusan dena. Halako batean, mendi-auzo betetik jaitsia zen gizon batek itaundu zuen ea zertarako ematen zioten galipota ontziari. «Arinago ibiltzeko» –erantzun zioten. Ez dakit galipotaren egiteko nagusia ontzia azkarrago ibilaraztea den, baina horixe erantzun zioten, eta menditarrak ez zuen alferrik entzun. Etxerakoan, astoari gorputz guztian galipota eman zion, ez baitzen, nonbait, bizkor ibil zalea. Abere patxarosoia mamu likin baten itxuran geratu zen. Abian, pentsa nolako irudia.

Zaldiz joan beharreko beste mendi-auzo batean, urteko posta bakanetako bat entregatu behar nuen.

- Oinez ezin al zinen etorri? –galdetu zidaten, eta erantzun nuen:
- Zaldia oinez dator!
- Zu ere horretan? Osasun hutsa, bera da nahikoa osasuna galtzeko.
- Ez, zumaiarrena egiten baduzu –jaurti nion txantxan, baina zakarrera hartu zuen.
- Zer gertatzen da Zumaia alu horretan?
- «Ura egon balitz, ardoa edango genuen. Urik ez dagoelako, ura edan behar».

Arrantzaleek ulertuko dute arrazoia.

- Misterioa barik zerri-lana zegok hor, seme! –haserre egin zion aitak gure anaia gazteari–. Enborra motzegi ebaki duk!
- Bai? –aztoratu zen mutila–. Ba, bai. Alde bietatik dago motzegi, gainera!
- Hori ere badiagu? –haserretu zen gehiago aita.

Gizon bat ikusi genuen pantailan (marrakki bizidun bat), ile zuri-zuria eta bizar bel-beltza zeramana.

- Bai gauza arraroa, ilea zuri eta bizarra beltz! –hots egin zuen anaia gazteak, eta aitak barre egin zuen, esanez:
- Hori normala duk! Bizarrak hamazapi urte gutxiago zeuzkak.

Astoz eta buruz

Amamak bazekien aitita behin edo behin kontaktetan erratuko zela, eta goiz batez galdetu zion:

- Gaur zer ordutan etxeratu zara?
- Hamabietan. Aldapeko Teuker horrek ez zidan alde egiten uzten.
- Orduan erlojuak nola jo ditu bigarreanean hiru bakarrik?

Lehenengoan ere, erlojuak hiru «kuku» jo zituen, baina aititak, eskailerapean kukuturik, berak jarraitu zuen haimabigarren kukuraino, ohartu gabe erlojuak bigarrenez ere joko zuela.

Gure amama, gaztetan, emakume gehienak bezala, karga guztiak buruan eramana zen. Noizbait astoa erosi zuen, eta esan genion:

- Indartzen ari zara, amama. Lehenago buruz eta orain astoz.
- Ez, ez! –erantzun zuen gure amamak–. Lehenago astoz eta orain buruz.

- Eskerrik asko! –esan nien bertso-saioaren amaieran–. Ez ditugu sarritan honen hur eduki horrelako bi lore.
- Eskerrik asko! –beraiek ere–, baina gu itzalera etorri gara, han eguzkiak jotzen baitzuen.

- Bizarrari igurtzi bat, ileari ukitu bi –agindu nion bizarginari.
- Hori bakarrik? –galdetu zuen berak.

Baietz erantzun nuen. Hori bakarrik, eta berari duintasunak zemaiona. Aldameneko jarlekuan, ispilutik, lehoia zirudien buru bat nekusan, nahiz piztia horren guztiz kontrako jarreran, oso burumakur. Hainbeste ilez eta bizarrez, zuri-beltzen proportzio berdintsuan, aurpegirik ez zen hautematen ispiluan ere. Alborantz berari zuzenean begiratzeak beldurra emateko modukoa zirudien. «Lehoia» konpontzen ari zen bizarginak galdetu zuen:

- Nola moztea nahi duzu ilea?
- Larrua bertan utzita –erantzun zuen lehoiak.

- Astelehenean Gasteizera joan behar duzu –agindu zidan nagusiak.
- Ondo dago –esan nuen.

Bitartean Donostia eta Bilbo nituen, baina astelehenekoa bakarrik kontatuko dut. Eguerdi inguruan, nagusiak banakus eta diost:

- Herenegun esan nizun, ba, Gasteizera joan behar zenuela.
- Bai. Goizean joan naiz –erantzun nuen.
- Nola goizean, ez bainizun zertara esan?
- Joateko esan zenidan eta joan naiz.

Nagusiak aurpegi enigmatikoa jarri zuen, baina ezer esan gabe aldendu zen. Nik uste dut logikako manualen baten bila joan zela.

Orbel guztiak piloan

- Egun on, Apoline! Bai dotore zaudela!
- Tokia esan nahiko duzu zuk.
- Nik zeugatik esan dut.
- Zuk etxe guztietan esango duzu hori.
- Egia denean bakarrik.
- Dotore ... Ni josten egoten nintzen dotore. Orain ezin diot jostorrazari haririk sartu, eta ez daukat inor, behar den bakoitzean sartzekorik.
- Horrek badu erremedioa. Utz deizula norbaitek haria goizean sartuta egun guztirako, eta eginda.
- Eta gero tiratu nondik? Kanpandorretik?

Azken sakramentuak ematera etorri zitzaion apaizak une batean esan zion, animatze alde:

- Bai, amama! Zu Jainkoak zeruan ere gorengo jarriko zaitu.
- Eta nire amama non jarriko du?

Zelan zebilen aita, eta bazkalosteko kuluxkan, esan zidan. Bestela, ibili, ahatekumea amari jarraika bezala. Ea nola zen hori, eta: «Oinak bizkor eta gorputza aurrera».

Turisten aurrean, «sakristau zaharra» gelditu egiten zen, saskiko diruetara begira zekarren burua aurpegi berrietarantz jasoz. Turista batzuei ez zitzaigun bururatu dirua prest edukitzerik.

- Ikusten bakarrik ari gara –desenkusatu ginen.
- Diru pixka bat bota arren, berdin ikusiko duzue –esan zuen sakristau zaharrak.
- Gu ez gara hemengoak.
- Baina zuen diruak balio du hemen.

Monitoreak galdetu zuen ea igeri bagenekien. Berehala ohartu zen nik ez nuela besorik jaso, eta galdetu zidan:

- Eta zuk?
- Nik erdia dakit –erantzun nuen.
- Erdia? –harritu zen monitorea.
- Goitik beherantz badakit, baina behetik gorantz ez.

Presaren barrera gainera uretara begira geundela, lagunak esan zuen:

- Zuk badakizu igeri, ezta?
- Ur gainean ondo egoten naiz. Azpian, ez hainbeste.

– Gainean ondo egoten bazara, azpian ez daukazu egon beharrik.

Eta brast bultz egin zidan. Ez nintzen ito, baina ez dakit nola. Beharbada, une batez, hila nintzen.

Pentsa zure auzokoak orbel batzen ari direla. Badakizu orduan orbela ondasun handia zela baserrietan, abereen azpitzat. Susmoa daukazu, ziur zaude, zuen aldeko orbel ugari auzoko aldera pasatua dela, haizeak eramanda. Hurbildu zara baso-eremuen mugara, eta onez onean galdetzen duzu:

– Hor batzen ari zareten orbel guztiak zuenak izango ote dira?

– Ba, begira! – diotsu auzokideak–. Hortxe daukazu guztiak piloan. Aparta zeureak eta eroan.

Patata ere gora

Luizi baten kalte-ordainak planteatu zirenean, lurjabe batek beheragokoari aurre egin zion, haserrez:

– Luizaren kalte-ordainak? Gure lur guztiak zeuen aldera joan baitira!

Gure amama hiltzen ari zela, medikuak oxigeno-tutua graduatu eta ahora jarri zion. Amamak asperen egin zuen:

– Hil egin behar eta musika jotzen ikasi behar al dugu?
– Bai, amama! On egingo dizu –esan genion.
– Joko dut, ba!

Gure aititaren azken hitzak izan ziren. Juanete bat zela-eta, kontsultara jo zuenean, medikuak galdetu zion:

– Familian aurrekari hurbilik izan al duzu?
– Ba, aitita biak urte berean hil ziren. Amama biak ere bai, hamahiru urte geroago. Aita iaz hil zen, eta ama aurten joan da, gajoa.
– Ño! Orduan, argi dago zeu ere hilko zarela –esan zuen medikuak.
– Baina ni juanete bategatik etorri naiz –gure aititak.
– Ez dio ardura. Juanete zein Juanote, aurrekariak beti daude hortxe.

Bezero batek okela gisatua eskatu zuen jatetxe txiki batean. Ordaintzerakoan, garesti samar iritzi, nonbait, eta tabernandrea, izeba Kalipsa, justifikatu zen:

– Badakizu, ba. Patata ere igo egin baita!
– Eta hainbeste bota?

Amamak noizean ukondokada bat sartzen zion aititari, esanez:

– Baina, Medeo! Nolako gaua da gaurkoa? Proba ezazu berriz. Dagoeneko, egunak aurrera behar du nahitaez!

Izeba Kalipsa eguerdian guraso zaharren logelara igo zen.

– Jaikitzeke asmorik ez al daukazue?

Izebak kontraleihoak ireki eta eguzkia ohabururaino sartu zenean, aitita ikaratu zen bere buruaz eta munduaz. Zertan aritua zen, orduan? Txanpinoi mintegia bezalako logela ezultsu hartan, ilunetan desorientaturik, gaztainazko komoda sekular baten ateak irekitzen zituen, kontraleihoak zirelakoan.

Ama negarrez, aita dolorez

«Eskela-orriko alineazioarekin ere egingo nuen horrenbeste!» –amorratu zen entrenatzailea. Talde konpaktoagorik zaila, noski, eskela-orrikoa baino. Baina azkena beti baita azkena, aitita Medeori ere iritsi zitzaion eguna, amama Klotik aldarritu zuenez:

– Zertarako da ehun urtera iristea, berrehun urte lehenago jaio bazara?

Amama Kloti tabernandrea zen. Batzuetan, telebisio katea bet-betan aldatzen zuen, film gordin samarra ematen ari zirenean. Ez horregatik, baizik bi apaiz mostradorean zeudelako, kafe bana hartzen. Apaiz batak, barran burua esku bien gainera pausatuz, auhen egin zuen bestearen sorbaldara:

– Hau ere bada gero! Lehen geuk ez genien uzten ikusten, eta orain eurek ez digute uzten.

– Entzutea ere ez duk gutxi, lagunzaharra! Konfesioa hor gelditzen zaiguk!

Konfesioa kasik joana zen, baina oraindik kristauen gogoan zirauen. Aitita Medeo ez zen oso elizkoia, eta behin apaizak agiraka egin zion, honela:

– Hainbeste urte konfesatu gabe? Zer egingo zenuen hil izan bazina?

– Geldi-geldi egon! –erantzun zuen gizonak.

Eta amama Klotik kantatzen zuen:

Domusantu, santu
umea zuloan sartu.
Ama negarrez
aita dolorez
abadea kantuan
errealen pozez.

Istripu baten kalte-ordainak

Istripu bat izatear zeunden. Ohituta ez zeunden aldasbehera zorrotz, estu, malkar eta babesgabe batean abiatu zinen, amildegia zeure aldetik zenuela. Non jakin nahi duzu? Ba, Izpegin behera edo Iratin gora, herriska bat pasa eta bertan. Ez zegoen zuhaitzik, dena garbi-garbi. Soroak eta artaldeak bai, baina tope egitekorik ezer ere ez. Dardaritzen bazinen, errazago huts egingo zenuen; beheko barreneko zuloa hain argi, hain urrun, hain zuzen ikusteak larritzen zintuen. Ez begiratzea erabaki arren, behin ikusia ezin zenuen bistatik kendu. Azkenean, arriskuak, zeuri kendutako indarrez, tiratu zizun eta amildu zinen. Triskantzak egin zenituen, eta txarrena zen bizirik geratu zinela. Sendakuntza, aseguroa eta demonioak aparte utzita, indemnizazioak erabakitzeko eguna iritsi zen, epaile aurrean. Auzoak deituak izan ziren, eta bakoitza bere kalteak izendatzen hasi zen:

- Niri dozena bat ardi akabatu zizkidan.
- Niri borda osoa aurrean eraman zidan.
- Niri baratzea goitik behera arrastatu zidan.
- Urlia jauna! –sartu zen epailea, batek ezer ez zioela ikusiz–. Zuk ez al daukazu ezer erreklamatzekorik?
- Ez, jauna. Gure terrenoetatik airean pasatu zen.
- Orduan, zertara etorri zara hona?
- Ba, besteen kalte-ordainak ikusita, ea abantailaren bat sar nezakeen tasazioan, terrenoa saltzea pentsatuko banu.

Emakumea zelarik, gehiago kostatu zitzaidan aurre egitea, baina azkenean, pasaera bakoitzean intxaur mordoa batzen baitzuen, kargu hartu nion:

- Aizu! Intxaur horiek jabea daukate e!
- Lurrean baitzeuden.
- Zeu ere lurrean zaude. Nahi al duzu eraman zaitzadan?
- Nola eraman?
- Ez dakit. Intxaur eta guzti ez, behintzat.

Intxaurrak eta garunak

Etxekoandre batek zerbait igarria zuen eta galdetu zidan:

- Ulises! Intxaurrak ez al zaizkizu gustatzen?
- Ezin ditut jan.
- Onak dira, ba!
- Neure garunen antza hartzen diet.
- Ikusi al dituzu zeure garunak?
- Ez, baina intxaurren antza dutela esan didate.
- A! Orduan zuzen zabilta.

Zuzen nengibilen, baina ez nekien zergatik, egunero jarraitu baikenuen hark eskaini eta nik ezeztu. Tema hartan aritzen ginen, behin esan zidan arte tonto jartzean nintzela autentikoena. Orduantxe erabaki nuen intxaur miragarriak berriro jaten hastea.

Neure posta-zorroari eraginez, lan atzeratuak aurreratu beharko nituela esanik, kale-gurutze batean utzi nuen gizona. Noranzko berrian dozena bat urrats neramatzala, norbaitek ziotsala entzun nuen:

- Zer, Keleo? Galduta?
- Zeure bila!
- Hara! Pozten naiz.
- Ni ez hainbeste –Keleok.
- Ez al zenbiltzan, ba, neure bila?
- Bai. Banuen gogoia zuri zerrikeria bat esateko, baina handiago bat asmatu nahi nuke.
- Orduan, autua aldatzea izango dugu onena –proposatu zuen besteak–. Gaur zer egin duzu?
- Ezer ere ez!
- Ezer ere ez? Atzo ere horixe esan zenidan.
- Bai, baina amaitu gabe utzi nuen.

Kale-garbitzaile baten gurditxoak ia jo ninduen hurrengo kantoian. Txikaro deitua bera, hitz gutxikoa baina popularra, edozein kale zokotan edonoiz aurkitzen ahal zenuen. Horixe zen bere harrokeria: herri guztia zebilela «bere garbi-lanen gainean». Potrozorriren batek esan zion arte:

- Ez zenuke bazter guztietan ibili beharrik, bat ondo garbituko bazenu.

Txikarok ez zion hari gehiago hitzik egingo, ezta bururik jaso ere, nahiz eta berezko jitea ere bazuen hori, ofizioak eragina edo. Esan bezala, bere gurditxoak ia jo baininduen, esan nion:

- Altxa buru hori, Txikaro, zerua ikusgarri baitago!
- Zeruan begiak baino gehiago ikus dezake erratzak zoruan.

Aholkua aintzat hartu nion. Posta-banaketa amaitu nuenerako, herri guztiak bazekien arestiko Keleoren urgentzia zein izan zen. Parke bazterreko zuhaitz baten orpora txiza egiten harrapatu zuten udaltzainek, eta alto eman zioten, esanez:

- Keleo! Hori ezin duzu egin!
- Arrazoi duzue, baina utzidazue amaitzen.

Beste era batera izan balitz, barkatuko zioten, adibidez honela, behin egin zuen moduan.

- Aizu! –esan zion udaltzainari–. Txizari eutsi ezinik nago. Hemen egin dezakedala uste al duzu?
- Eutsi ezin badiozu, zergatik ez?

Lurra jo behar dut!

Toribio atabalaria eta Argos saxofoilaria. Inauterietako bikote hutsik gabea. Denok harritzen ginen Toribioren martxaz. Atabala bezalako sabela zeukan, eta gorputza ere araberakoa. Argos zimela baina sudur-handia zen, eta lagunari esan zion:

- Hirea erraza duk. Atabala huts egin arren, sabela jo dezakek.
- Heurea ere ez duk zaila, saxofoia sudurraren kopia baituk –erantzun Toribiok.
- Atsedeen ere hartu beharko diagu, Toribio! –hots egin zuen noizbait Argosek.
- Atsedeen? Oraindik goiza bakarrik egin baitugu! –Toribiok.

Toribioetatik eguneko hogeita lau orduak martxan egin beharko zituzten, baina Argosek tragotxoia ere behar zuen atsedena adina. Iluntzea nabaritzen hasi zenean, Argosek oihu egin zuen:

- Uf! Gehiago ezin diat. Lurra jo behar diat!
- Lurra gero joko duk. Orain jo saxofoia! –agindu zion Toribiok.

Kalejira pasatzen ari zela, greban zeuden lantegi baten aurrean, langile grebagile bati galdetu nion ea zelan, eta dio:

- Hementxe, arre eta iso, baina astoa geldi.
- Zatozte orduan zeuek ere musikara –esan nion.
- Ez, ez! –muzindu zen felinoki–. Astoa mugitu arte, hementxe egon behar da.

Azeri baten gorabehera zen guztia. «Piztia hura baino gauza politagorik ezin zuen egin Jainkoak!» –asperen egin zuen Abelinak. Argi zegoen bera ere hunkipenetik mintzo zela.

Kontua zen senar alteratuak, Arestides zeritzonak, azerikume bat harrapatu zuela. Harrapatu edo habia aurkitu, umeak jaioberri zirela. Bat jaso eta, oraindik begiak irekitzeko zituela, etxera ekarri zuen, bertan hazteko. Piztia bakar-bakarrik ezarri zuen, ondo eta laztanki elikaturik, baina inolako joera harraparirik ikasteko aukera gabe. Handitzen joan ahala, benetako jostailu bizi bat zen etxean. Gizonak susmoa zuen, eta frogatu nahi zuen, azeri-grina ez zela garatuko azerikeriak «ikasi» gabe. Azerikumea nerabetu zen, heldu zen, gainez gobernaturik bizi zen, eta ez zuen inondik ageri joera bihurrik. Egun hartara arte! Hots, egunsenti batez, oilo bat lumatu zuen arte. «Senarra biraoka etorri zait –hots egin zuen Abelinak–. Dio oilo mamala hark, seguruenik, berak probokatu zuela piztia».

Aipatu Arestidesek tema luzea zeraman azeriekin, kume hura etxera ekarri baino askoz aurretik. Batez ere, behin, azeri bat oilategi barruan aurkitu zuenetik. «Hor haiz, barraban hori?». Gizonak piztia akabatzeko bidea ikusi zuen, baina proposatu zion: «Joaten utziko diat, sartu haizen zulutik irtetekotan». Gizonak jakin nahi zuen oilategiak nondik zeukan zuloa. Azeriak pentsatzeko astia eskatu zion. Azkenean, «hemendixe sartu naiz» esanda, piztia joan zen. Arestidesek zuloa ondo itxi zuen, eta

hara biharamunean ere azeria barruan zebilela.

- Ni ez naiz atzokoa! –esan zuen azeriak.
- Nola dakizkatzo hemen azeri bat egon zela?
- Herenegun egon nintzenetik oilo bat gutxiago dagoelako.
- Etxekoandreak ezin al zian oilo bat jaso, salda egiteko? –argudiatu zuen Arestideseak.
- Zaila! –azeriak–. Etxekoandreak ez du lumatzen erruten ari den oilorik, eta falta den oiloa errulea zen.

Zelako prakak?

Baliteke Arestidesez pentsatu izana ezen, azeria desagertzen bazen, arrautzak ez zuela hainbesteko gusturik izango. Ez dakit, naturan gauza arraroak gertatzen dira. Gorilakume jaioberriari agure dekrepito baten antza hartzen diozunean, pentsatzen duzu aurrekoz atzera goazela. Euli izorrantea noizbait harrapatzea lortu eta gero, erabakitzen duzu bizirik jaurtitzea, ahurrean aplastatzeak higuintzen zaituelako. Zenbat aldiz desiatu dudan arrain sortu izana, eulietatik libratzearen! Bai, bai! Tximeletak xarmantak dira, gogaikarriak ez balira.

- Zelako prakak nahi dituzu? –galdetu zion jostunak Arestidesei.
- Zapatak kendu barik erantzeko modukoak –aurreratu zen erantzuten Abelina.
- Eta brageta bere tokian –zehaztu zuen Arestidesez.
- Aurrean ala atzean? –jostunak.
- Berdin dio –erantzun zuen Arestidesez. Eta andreak ere konforme zirudien.
- Hauxe da elkar erraz ulertzea! –pentsatu zuen jostunak, zeinaren izenik inork ez zekien herrian, «jostuna» besterik.

- Guk nahikoa dugu geure burua ikusteaz! –hots egin zuen zuen mitinlariak–. Eta horretarako, ispilua daukagu.

Ispilutik laster, emakume batek sutan moztu zuen mitinlaria:

- Aizu! Emagaldua zeure andrea edo andregai izango da, entzun?

Mitinlariak, zerbait bigundu guran, esan zuen:

- Barka, baina nik ez nuen inoren lanbiderik iraindu gura, eta gutxiago zurea, hala balitz.
- Halaxe da, bai, eta zer? Ni puta naiz, ez emagaldua!

Kontuan hartzeko zehazpena horixe, baina soluzio zailekoa. Irainak ez dira biguntzen, izenak aldatuta, ikasle baten kasuan bezala.

- Irakasle puta baten erruagatik! –oihu egin zuen ikasleak.
- Ken berehala hitz hori! –agindu zioten suminki.
- Hitza kenduko dut, baina edukia ez.

Senar-emazteak mozkortzea ondo dago, baina ez biak batera. Edan txarrak senarrari esanaraz diezaioke emazte bati esan dakioken zitalena: «Sar hadi puta, eta igual joango naun». Eta emazteak erantzun dezake senar batek entzun dezakeen zitalena: «Doan egingo diagu, zerbait aportatzen duala pentsa ez dezaan».

Everest

– Everestera igo dira! –esan ohi da.

Dirutzak xahutzen eta biziak galtzen dira. Izatez, inor ez da igo Everestera, ez ikusi Everestik, elur-zoru bat zapaldu baizik. Handik elur-mailaren barrena jaistean, bai egin dezakezu desagertzearen elur-multzo bat eskuetan hartu eta muin eman debozio osoz. Berrito zokoan uzten baduzu, txorikumea bezala geratuko da, han ere desagertzen jarraitzeko, ez zure bistan, baina zuk aurrera egindakoa, hark eta haren antzeko mirari txiki isolatu guztiek euren ezerezerantz jarraituko dute, isiltasun xuabea, gordetasun totala. Gozotasun horixe nahi nuke, izatek desagertzeko.

– Eguzkiaren onena itzala zela uste nuen –jaulki nuen topikoa. Osorako ñabardura bat falta zitzaion gizaseme dohatsu horietako batek kontra egin zidan:

– Eguzkiak ez dauka itzalik, zuhaitzak baizik.

– Arrimatu, nahi baduzu, e! –esan zion neskak, Karise zeritzon dantzalagunak.

– Ez naiz ausartzen –erantzun zuen.

– Neu arrimatuko naiz orduan?

– Hobe ez. Inork ez luke sinetsiko neure ahalegina izan ez denik.

Distantzian ere sentimenduek korritzen dutela nabaritu zuten. Zorte kaskarragoa izan zuen, mereziagoa ere bai, nire lagun marinel batek, zeinari andregai posible batek esan baitzion:

– Zuk eta nik bikote ona egingo genuke, zu bazina ni eta nik ahal banu neu izaten jarraitu.

Marinelak ez zuen arrazoia ulertu, eta hantxe amaitu zen izatekoa.

Gutunak itsasotik

Itsasoa bakartia izan daiteke, baina ez isila. «Antero» esaten ziotena marinel mutua zen. Haserrean beldurgarria, baina bihotzez onbera eta sentikorra gizajoa. Berak ez baitzekien idazten, emaztearentzako gutunak neuk idazten nizkion. «Karise laztana: Hemen naiz berriz ere...». Mutuak keinuz diktaturiko mezuak interpretatzea maitasunaren misterioan egiazko murgiltze bat zen niretzat, nahiz batzuetan guztiz irrealak zirudien. Ez nekien irakurtzen ere bazekien eta, beraz, ez nengoen ziur nik idatzia zenbateraino ulertzen zuen, baina dena iruditzen zitzaion zoragarri. Neu deklaratzeko ari banintz bezala idazten nuen, eta azkenean horretantxe ari nintzen: maitasun ideal bati gutun errealak idazten, non geunden esateko ere bihotzik ez zeukan itsaso baten gainetik. Eta hara, bat-batean, kolpe txar baten ondorioz, marinel mutua hil egin zela, itsasontzian bertan.

Kapitainari eskatu nion ez igortzeko zorigaitzaren berri zenduaren etxera. Bizi zitezela pozik, ontzia porturatu arte, hilabeteren buruan. Kapitainak muzin zakarrak egin zituen, baina azkenean onartu zuen. Itsasoak badaki koordinada mentalak aldatzen. Eta gutunak idazten jarraitu nuen, maizago, maiteminek apartsuenak jota bezala.

- Azken gutunak ere zeuk idatziak al dira? –galdetu zidan gero, lehorrean, Karise desolatuak.
- Azkenak, aurrekoak eta guztiak.
- Baina azken horiek ezin ziren izan nire senarrak diktatuak!
- Ezin ziren izan zure senarrarenak, baina bai benetako bihotz batenak.

Alargun gazteak negarrari eman zion, baina malkoek ez zieten deus eragin sentimenduen kontra apartzen ziren olatuei. «Nahi al duzu gutunak idazten segi dezadan?». Buruarekin baiezkoa egin zuen. Denbora batera, porturatze bakoitzean, harremana maizagotzen joan zen, dantzalekuetara joaten ere hasi ginen, eta azkenean, marinel mutuaren hutsunean plantatu nintzen, erdigunea hari kendu gabe.

Santua ez bada, txerri-aska

Neskamea zirudien jatetxeko zerbitzariak ez zuen zerikusirik izango, baina lotsatu nintzen nire lagun batek galdetu zionean:

– Aizu, neska! Ogi honen egilea hil zela zenbat urte dira?

Ez dut uste ulertu zuenik. Ez ulertzeak asko babesten du komunikazioa. Neure adiskide Alteoz gogoratu nintzen. Ez zeukan izen hori, baina nolabait izendatu behar zen. Mutilzahar predestinatua bera, banekien autoan joaten zela errepidean letrak idazten bezala. Eta beti letra berriak. Behin, neu ere berarekin, eta:

– Alteo! –ikaratu nintzen–. Esango nuke ez goazela santu-santu.

– Zertarako? –berak–. Lehen ere santua ugariago zegok ehun kiloko kalabaza baino.

–Zertarako behar duzu horrelako kalabazarik?

– “Santua ez bada, txerri-aska egiteko”.

– Baina txerriak kalabaza jango dizu.

– Eta nik txerria jango!

– Orduan zertan gabiltza?

– Horiek jakingo diate.

Ehun bat metrora, ertzainak ageri ziren. Geratzeko eta jaisten uzteko eskatu nion, esanez:

– Ondo joan, Alteo! Zeu konpondu horiekin.

– O! –hots egin zuen gailen–. Horiek neure lagunak dituk. Nire karneta eurek zeukatek.

Gizona ez zegoen fededun bati dagokion bezain gogotsu hiltzeko, eta kontsolamendu gisan esan nion:

– Ez izan penarik, Kasandro. Eternitate guztia daukazu zain.

Gizonak beldurretik apaltasunera bitarteko begirada ia gelditutik galdetu zuen:

– Hau apur bat luzatzeak hura txikituko luke?

– Ba, agian bai –erantzun nion zentzugabeki. Ezetz esan banio, nondik jarraitu behar nuen gizona animatzen?

Elma

- Emakume batek nola dabilela esango ote luke senar gabe? –galdetu zuen.
- Hori berehala jakingo dugu –erantzun nuen.

Hiriko erdigunean, taberna aurreko espaloira irtetea besterik ez genuen izan.

- Aizu, Elma! Hemen eztabaida txiki bat izan dugu. Honek dio bera emazte gabe ez dela ondo ibiltzen. Zu senar gabe nola ibiltzen zara?
- Ni elegante! –erantzun zuen Elmak, eta konbikzioz iruditu zitzaigun.

Horra, ba! Ez ondo, ez mondo. Elegante! Definizioak airean utzi gintuen.

- Aizu, Elma! Zer da «elegante» hori?
- Ba, horixe –erantzun zuen emakumeak–. Ni senar gabe ibiltzen naiz zuek emazte gabe bezala. Baina elegante!
- Alegia?
- Hobeto nabilenik inork igarri gabe.

Sardinak eta konfiantza

Alde Zaharreko taberna sekular batean sagardo lasai bat edatea pentsatu genuen, gauari hasiera suabe bat emateko.

- Joño! Hau sagardo pila! –hots egin genion tabernariari, Grifon zeritzona bera.
- Basoerdi ez al duzue eskatu? –galdetu zuen berak.
- Baso hauek handiak dira, ordea!
- Erdiak ez dauka zerikusirik handi-txikiaz.
- Honelako basoerdirik ez digute sekula atera.
- Ba, Bizkaian hauxe da basoerdi –hanpatu zen Grifon.

Hurrengo tabernan, barra gaineko pintxoei begira geunden, zer egin ezin erabakiz, eta tabernariak diosku:

- Heldu lasai! Ez dagoz bero!

Ez genion erantzun, baina pintxoei hautsa nola kendu pentsatzen ari ginen. Tabernaria konturatu zen barretxo bat irten zitzaigula, eta berari zegokion zerbaitegatik izango ote zen errezeloz-edo, atrebentzia izan zuen tentatzeko:

- Zerbaitek grazia egin dizuela dirudi.
- Egin digu, baina geure buruko kontuak dira.
- O! –hots egin zuen magistralki–. Buruan sartuz gero, irteera zaila dago.

Arrazoi polita iritzi genion, baina grazia egin ziguna izan zen pintxo-hautsek gogorarazi ziguten dendari batena. Sardina batzuk seinalatuz, galdetu genion ea konfiantzazkoak ote ziren, eta dendariak deblauki:

- Izango ez dira, ba, hilabeteen hemen daude eta?

Datua eskertu genion eta hurrengo hilean itzuliko ginela agindu, sardinek konfiantza gehiago har zezaten. Ez ginen itzuli. Pare bat hilabetera, portuan berarekin topo egitea gertatu zitzaigun, eta dendariak:

- Aizue! Sardinak konfiantzatik pasatzen ari dira, e!

Kuadrillan probalari ohi bat generaman. Gizon-proban, zaldi-proban eta plaza usaineko edozertan ibilia zen, eta esan zuen:

- Gu ere gaztetan astakeria asko eginak baikara.
- Astakeriak egina ala astoak izanak? –galdetu genion, eta berak:
- Hobe astoa izan banintz! Astoak ez dik astakeriarik egiten.

Ezetz, ba, koño!

«Zuk ezagutzen nauzu, ezta, Fran?» Baietz erantzun zion. Nola ez, ba? Duela... Hogei bat urte, Fran kantuan beste batekin, eta hura hantxe afari luze batean. «Gogoratzen zara, ezta?». Baietz berriz ere. Franek kalea trabes hartu zuen, ea hark luzetara jotzen zuen, baina ez. «Zuk ondo ezagutzen nauzu, ezta, Fran?». Nola ez, ba, duela hogei urte halako afalondo animatu batean egonak izan ondoren? Bizpahiru kale horrelaxe sigi-sagatu ondoren, agur, eta Fran taberna batean sartu zen. Sagardo bat eskatu zuen, eta esku batek zapla astindu zion bizkarra.

- Baina zuk ondo ezagutzen nauzu, ezta, Fran?
- Ezetz, ba, koño!! –oihu egin zuen Franek, barra-muturra ukabilkatuz.
- Hori al da gizon bati hitz egiteko modua? –aurre egin zion gizonak.
- Ez, beharbada –apaldu zen Fran–, baina zoaz, mesedez, barraren beste puntara, hala ere nahiko gertu egongo zara eta.

Fran harritu zen gizonak zer otzan obeditu zuen, esanez:

- Modu onean hitz eginez gero, bazekiagu jator jokutzen.

Hurrengo kalean, aspaldi ikusi gabeko lagun batekin topo egin zuen Franek. Beldur zen aurrekoaren antzeko eskarmenturen bat gerta zedin.

- Zelan hemendik? –galdetu zuen Franek laburki, bostekoa luzatuz.
- Ba, hementxe –lagunak ere, bostekoa hartuz.
- Denbora izango da elkar ikusi ez duguna –esan zuen Franek, zerbait esatearren.
- Asko, bai, asko. Sentitzen diat benetan.
- Nik bat ere ez! –irten zitzaion Frani.

Hala ez zen zaila izan berehala banantzea. Franek ez zuen izan astirik bere zakarkeriagatik bere burua larderiatzeko, emakume oso ezagun batekin topo egin baitzuen hurrengo kantoian. Atsegina, elegantea, gustagarria. Eta katuzalea. Hirugarren hitzerako, emakumea bigarren katuaren laugarren mirarian zihoan, eta Franek esan zuen:

- Aizu, geurean ere badira katuak, e!
- Ba, esan zerbait! –entusiasmatu zen emakumea.
- Baina nik ez dut katuez hitz egin nahi!

Apaiz abstemia

Don Orfidiok dagoeneko hila izan behar du, orduan ere adintsua baitzen. Gotzainak bisita pastoral bat antolatu zuen haren parrokiara. Kristaueri guztiaren aurrean, meza solemnea kontzelebratzen ari ziren. Jaunartzean, liturgiak agindu bezala, gotzainak kaliza opatu zion, eta don Orfidiok atzera-keinu bat egin zuen, apalki esanez:

- Abstemia naiz, Jauna.
- Abstemia? Zer ordena mota da hori? –galdetu zuen gotzainak, harriturik.
- Ez dut alkoholik edaten –Don Orfidiok.
- Hau Kristoren odola da, ordea! –gotzainak.
- Substantzian bai, baina ni akzidenteek hondatzen naute, jauna –Don Orfidiok.
- Egizu edan-planta bat eta gero hitz egingo dugu! –erabaki zuen gotzainak.

Meza amaitutakoan, gotzaina sutan zebilen sakristiako arropategi luzearen kontran, zezena kate korrituan bezala.

- Jesukristoren odola ezin edan? –eraso zion garrazki apaiz beldurtuari–. Orduan nola ematen duzu meza?
- Urarekin, jauna. Meza garbia.
- Meza garbia zer da?
- Ardoaren osagai nagusia ez al da ura?
- Honelako profanaziorik ez da ageri liburu zaharretan ere. Mahats-ura izan behar du!
- Barka tematzea, gotzain txit agurgarri –defendatu zen apalki Don Orfidio–. Nik ezin dut mahats-urik edan.
- Ezin? Apaiz errukarri! Luzeago eta sakonago hitz egin beharra daukagu. Bitartean, ministerio guztiak etenak dituzu.

Gotzaina ez zen gutxiago txunditu, apaiz «errukarriak», audientzia pertsonalera deitua izanik, adierazi zionean alkoholiko ohia zela. Alkoholari usainik ere ez egiteko agindu medikua zeukala.

- Zulotik irtetea hainbeste kostatzen eta gero, ez naiz berriro bertan eroriko, ezta? – auhendu zen Don Orfidio, apalmenu itogarri baten hondotik.
- Apaiz bat eta mila demonio! –espantu egin zuen gotzainak–. Ikusiko dut teologo forentseek zer dioten, baina has zaitezke beste lanbide bat pentsatzen.

Ez apaiz, ez demonio, Don Orfidio sobrioki hil zen.

Onea baino hobea

Ganadu feria barik giza feria esango nuke, non abereek pose exhibizionista bat hartzen baitute, inork ez dituela erosiko sumatzen dutenean. Jabe batek ezin zuen etsi, eta behi-ilara baten aurrean geundela, esan zuen:

- Zeri begira zaudete?
- Onea zein den erabaki ezinik –jaulki zuen batek.
- O! –animatu zen gizona–. Nabar hau bezalako behirik! Mutur fina, adakera txairoa baina sendoa, bizkar luzea eta guri-guria. Munduan ere ez berdinik! Eta ondoko beste «Txata» hori berau baino hobea.

Feria hartan gure aitak ere behi bat saldu zuen. Bueltan, iluntzean, negar zorian zebilen kortako lanak egiten, esanez:

- Hau da hutsunea geratu zaiguna kortan!
- Horrenbesteko pena baduzu –amak–, zoaz eta erosi berriro.

Eta horixe egin zuen, tratu ruinoso batean. Zoritxarrez, pobre guztiak ez dira hain sentiberak, eta gure herkide batek beste bati agindu zion:

- Zaude isilik, mesedez, zure buruarekin oinez ikastea ere nahikoa egin zenuen eta!

Baziren bi ahizpa neskazahar, urteetan aurrera zihoazenak. Herriko parrokoak nonbaitik lortzen zien laguntzatik bizi ziren. Parroko zaharra hiltzean, ondorengo berriak ez zien jaramonik egin, eta ahizpak ezer gabe gelditu ziren.

- Zerbait egin edo norabait jo beharko dinagu, ba!

Eta honako gutuna bidali zuten Caritasera:

Lehengo parrokoarekin agnus dei, oraingoarekin kitolis.

Gu orain ez gaude peccata mundi, eta miserere nobis.

Caritasen, mezua ulertu bide zuten, eta ahizpa zaharrak berriz hasi ziren laguntza zerbait hartzen. Gaztetan erromerietan ibiliak izango ziren. Baita, agian, belarrondoko zenbait emanak ere, nahiz eta ez, seguruenik, merezi adina, ondorengo lerroek diotenez. Mutil batek esan zuen:

- Ni abentura kontuan atzerati samarra nauk, gehienetan porrota izaten baita.
- Gehienetan porrota? –beste batek–. Portzentaia horrekin aurrera ere jo zitekek!

Errezildik Nekezbizira

Baikorra bai, ausartegia ez, intsumisioa abiatu zenean, ez zuen kemenik izan soldadutzari uko egiteko. Kuartelean, zein alderdi politikotakoa zen galdetu ziotenean, erantzun zuen: «Ni artzain beti». Gero beste galdera pila bat, eta kamainara, aluminiozko txolet-koilarak eskuan zituela.

– Hau duk Errezildik Nekezbizira pasatzea! –pentsatu zuen, herri horiek ezagutzen ere ez zituela.

Adin horretan, koldarrenek ere bizirauten baitute –beharko!–, mutilari gaitz arraro bat sartu zitzaion, eta ebakuntza urgentera altxatu zuten, esanez hartzeko kontua lasai.

– Gaitz honen arriskua ez da iristen milatik batera ere.

– Bat hori hilda al dago? –galdetu zuen mutilak.

Informazio zehazgabetik ondorio zehatzak ateratzea gaitz zaharra baita, umetan oso deigarri egiten zitzaigun auzoko behe-su bat, hondotzat burdinazko plantxa bat zeukana, suak horma ez jateko. Plantxa hark oilar bat, txakur bat eta lore apaingarriak zituen erliebean. Geroztik bigarren belaunaldiko hangotar bati galdetu nion:

– Aizu! Zuen etxeko beheko su hura martxan al dago?

– Ez! Su hura itzali zuten –erantzun zuen–. Orain egunero berria egiten dugu.

Eskerrak ez nion galdetu etxea martxan zegoen, erantzun ez zezan:

– Ez! Etxe hura bota zuten. Orain egunero berria egiten dugu.

Euskaldunok hain frankoak ginen non, bakoitzak nahi zuena jan-edanik, eskotean ordaintzeko harmonia esportatzen baikenuen. Afaltiar batek esan zuen:

– Afaria ez da txarra izan, baina montekristoak kalte egin dit.

– Erre al duzu, ba?

– Baina ordaindu dut!

Lagun horri geroago entzun nion, apur bat baretu zenean, eskotean ordaintzeko otorduetan horrelako erregai edo edari garestia eskatzen dituztenek «aitzurra burutik behera» behar luketela. Ikaratu nintzen, pentsatuz ez ote litzatekeen zuzenago bakoitzak bere diferentziak ordaintzea, baina, beharbada, seguruena aitzurra izango da, bai.

Tomatearen indarra

- Sardinak? Goazen berehala!
- Berandutxo ez al da izango?
- Uztailean eta gau izarratuan, beti dago argi Santurtziko portuan.

Ez ginen bakarrak inguruan, barkuak ere martxan itsasoan. Jan genuen ezpainak pitzatu arte, edan genuen pitzadurak berdintzeko beste, eta azkenean hor amaitu genuen kafetegi ilunsko batean, non harritu baikinen mikroonda beltz bat ikusten zela hondoan, oso handia, okupen lokal batean bezala.

- Goazen aurrera! –esan nuen.
- Lasai, lagun! –atxiki ninduen lagunak–. Niri Euskaltzaindiaren erritmoa gustatzen zaidak.
- Zer duk hori? –beldurtu nintzen.
- Haren lana amaitzerako, euskara galdua izango duk.

Pixka bat barrurago, berriz harritu ginen jendearen hibridotasun nagiaz. Ia hondoraino jorik, ohartu ginen mikroonda hura, diagonalki begiraturik, hilkutxa bat zela.

- Oskua! –ahopetu nion lagunari–. Nora sartu gaituk?
- Zuek zer zarete zenduarenak? –galdetu zigun gizon esmokindun batek.
- Gu kafe bat hartzera etorri gara –erantzun zuen lagunak.

Hura asedio espektrala gaineratu zitzaiguna! Tanatorioko atarian despeditu ginen, au revoir, entzun baikenuen:

- Frantsesak ez du ezertarako balio.
- Ez badakizu, ez!

Inoiz jatetxe bat irekitzen badugu, jarriko dugu: «Hemen japonieraz egiten da». Galdetuko dute: «Hemen nork egiten du japonieraz?». Eta erantzungo: «Eurek, datozenean». Eta sarreran, koplak hau:

Mahats onak behar du
hazi, ur eta su.
Tomate heldu bat baino
gehiago zara zu.

Tomatearen konparazioak grazia egingo diete bisitariei, mahastietan ez baita tomaterik ikusten. Kolorearena ere atzemango dutela uste dugu, beti izaten baita aurpegi gorri-gorrien proportzio bat, harrotasunez igurtziak eurak. Eta ausarten bat laster hasiko da tomatearen apologia eginez, haren propietateak, indarra eta abar gorai patuz, norbaitek ihardetsi arte:

- Tomateak indarra? Bere buruari eusteko ere ez baita gauza!

Ekologista aktiboa

- Jainkoarengan sinesten al duzu?
- Ezetz esatea ez da erraza, baina zeuk sinesten al duzu?
- Nik bai!
- Zurea zailago da, orduan.
- Zailago zergatik?
- Ba, atzo, adibidez, Valentzian izan nintzen, txalupan. Teruelen hegazkin bat erosi nuen. Banindoan bidean ttar-ttar, eta gasolina amaitu. Laino gainean bultzaka ederki eramán nuen, baina lainoak gastatu ziren, eta orduan gaizki. Gasolindegi bat derrigor behar da hor goian. Iritsi nintzen, hala ere, nolabait. Gero hegazkina etxera ekartzea pentsatu nuen eta ganbaran doi-doi sartu zen. Gaur goizean joan naiz, eta akabo bidaiá. Hegazkina hiru ume egin berri zen.
- Jesus! Hori da ezbehar piloa gizon bakar batengan!
- Ez hainbeste. Jainkoa neure gainean dabilela uste dut, oso-osorik.
- A, bai? Nola?
- Ba, bidaiarik ez baitzen, usotan joan nintzen. Kartutxoak amaitu eta etxera nentorrela, erbi bat ikusi nuen arbola orpoan, belarriak tente. Burdinazko botetatik iltze bat atera eta jaurti nion. Erbia belarri bat josita geratu zen arbolan. Hartu eta bizirik ekarri nuen. Beste behin ere gastatu zitzaizkidan kartutxoak. Uso talde bat ikusi eta ezkur bat tiratu nion. Bat jo nuen eta ahal bezala joan zen, baina ez zen erori. Hurrengo urtean uso bat pasatzen ikusi nuen, haritz landarea belarritik zeramala.
- Kartutxoak gastatzea probidentziala dela dirudi zuretzat.
- Ez daukat hainbeste fede. Ni, funtsean, ekologista aktiboa naiz. Asko huts egiten dut.
- Jesus! Ehiztariak gezurtiak zirela, baina hainbeste ere!
- Ez guztiak. Nire bi lehengusu, bat goitik eta beste bat behetik zihoazen. Erbia irten zen erdian, eta behekoak danba tiratu zion.
- Eman al diok? –galdetu zuen goikoak.
- Bai! –erantzun behekoak–. Belarri bat moztu zioat.
- Ondo egin diok! –goikoak–. Erbi horrek ez zeukan ibili beharrik hiru belarriekin.

Mantsotuko haiz

Niri kostaldea ez zaidak gustatzen. Itsasoa baino koldarragorik! Jendea dagoenean, bare-bare egoten duk, eta inor ez dagoenean, bazter guztiak apurtu behar. Begira dagoenak esateko moduan ze:

– Bahabil? Bahabil? Mantsotuko haiz ezkontzean.

Ba, bai. Itsasoa entzuten genuen, isil gintezen eskatuz bezala. Sagardotegi batetik irteten ari ginen. Egunez sartu, egunez irten. Sartu ginenean, artoak ereiten ari ziren inguruko baserrietan, eta irten ginenean, artoak erneta zeuden. Bueltan, haranzkoan pasatuak ginen lantegi baten aurretik pasatu ginen berriz. Greban zeuden. Galdetu genien ea zer moduz zihoan martxa, eta batek erantzun:

– Hementxe, arre eta iso, baina astoa geldi.

Gosaltzera gonbidatu genituen, bi erditan txandaka, eta aurrekoak irmoki erantzun zuen:

– Ez, ez! Astoa mugitu arte, hementxe egon behar da.

Taberna batera sartu ginen, azken zurruta jotzera, eta betiko ezagun bat aurkitu genuen, kaña bat eskuan eta begiak pantailan. Zer moduz eta abar, eta berak:

- Hementxe, animaliei begira.
- Futbola ikusten ari zara, ordea!
- Zuek futbola ikusten duzue, baina nik animaliak.
- O! Horrela bada...–utzi genion, eta berak:
- Kasu honetan, horrelaxe duk. Animaliei begira, asko kostatzen zaidak haiengan gizakiak ikustea, baina alderantziz oso erraza duk.

Harritu ginen gizon hura han ikusteaz, beti ari baitzen kalakan auzo-herri ganorabakoz inguraturik zegoela. Berak azaldu zuen behin edo behin irtetea ona zela, bueltan diferentzia gozatzeko. *Zure herria...* Bat-batean moztu zigun eskatuz ez aipatzeko bere herriaren izenik. Ea zergatik, eta berak:

- Herkideak asko haserretzen dituk, nongoa naizen esaten badut. Uste diate herriaren fama jaisten dudala.
- Hain gutxi estimatzen al zaituzte?
- Herrian bertan asko, baina ez diate nahi kanpoan jakin dezaten euren herrikoa naizenik.

Kasander, «Kasan»

Hilzorian zela, apaizak esan zion:

- Ez izan penarik, Kasan. Eternitate osoa daukazu zain.

Gizonak begirada ia gelditutik galdetu zuen:

- Hau apur bat luzatzeak hura txikituko al luke?
- Bai, agian –erantzun zuen apaizak zentzugabeki.

Ez hain zentzugabeki ere, zeren, ezetz esan balio, nondik jarraitu behar zuen gizona animatzen? Ai, denbora! Urte batzuk lehenago, urdaiazpiko-tortilla bat eskatu zuen, eta ogiak harrobitik irtena zirudien.

- Aizu, neska! Ogi hau egin zuena hil zela zenbat urte dira?

Zorionez, zerbitzariak ez zuen galdera ulertu. Ez ulertzeak asko laguntzen dio komunikazioari. Munduaz eta bestez solas beroan ari ginela taberna batean, Kasan ere tarteko zen, eta azken hitza berak eman zuen xuabe-xuabe:

- Hemen ez dago bakerik, eskela-orritik pasatu arte.
- Orain alkate berria ere baduzue! –esan zion solaskide batek, eta Kasanek:
- O! Gure ardiek ez dute igarri ere egin.

Gizona hasia zen adinaren zama igartzen, eta hura etxe atarian eserita ikusi nuen batean, galdetu nion:

- Zer, Kasan? Nekatuta ala? –Eta berak:
- Egiten nekatzen naizena ez da ezer, egin ezinik nekatzen naizenaren aldean.

Bakar hizketarako ere joera baitzuen, esan zioten:

- Zer, Kasan? Bakarrik hizketan?
- Aizue! –berak–. Bakarrik hitz egiteko ere zeresana behar da gero!
- Astoak ere bakarrik egiten baitu arrantza –tentatu zuten.
- Ez! –zuzendu zuen Kasanek–. Astoak ez du arrantza egiten. Astoak dakien guztia esaten du.
- Et, et! Ertzainak han! –alertatu zuen kopilotuak gidaria, eta atzeko jarlekuan zihoan Kasanek:
- Ertzainek ezin al dute hemen ibili?

«Katxin Sei»

- Katxin! Uzkerra bota al duzu? –kargu hartu zion amak hiru urteko haurrari.
- Baina atzerantz!

Hiru urterekin arrazoi hori atera zuen haurra, hamarrekin seminarioan sartu zen. Lehen hilaren azkenean, komunitate guztiaren aurrean, notak kantatzen hasi ziren. Mutikoa zutitu zen bere izen-abizenak entzutean, eta irakasle «prefektua» haren notak kantatzen hasi zen: *Latina, 4. Lengua Castellana, 4. Geografía, 4.* Eta halaxe guztiak, 4, 4, 4, suspentso biribilean, izan ezik azkena: *Musika, 5.* Mutikoak hots egin zuen:

- Kakazarra! Musikan 6 itxaroten nuen.

Geroztik, «Katxin Sei» deitzen genion, eta ez zen batere haserretzen. Batean aurrera, bestean atzera, urte batzuk gainditu zituen, eta heldutasun zerbaitera iritsi zenean, bere ikasketarako zailtasunak honela defendatzen zituen:

- Baserritarrari esan nahi duena ulertu behar zaio, ez esaten duena.

Haren etxeakoak euskaldun hutsak ziren, baina gutunak gaztelaniaz idatzi behar ziren, bai seminariotik etxera, bai etxetik seminariora. Behin gure mutiko jada nerabetuak gutun bat hartu zuen, honela hasten zena:

Querido hijo: Madre bien, tu padre murió...

Mutikoak negarrari eman zion, eta ezin izan genuen kontsolatu egun guztian, nahiz eta han isilka eta ezkutuan negar egin behar zen. Biharamunean esan genion:

- Baina zer edo nola izan dela dio gutunak?

Paper zimurtua eta beratua zabaldu zuen, eta irakurri genuen:

Querido hijo: Madre bien, tu padre murió el cerdo y ...

Katxin Seiren baserrian, atartetik hur, intxaurrondo immemorial bat zegoen. Eta hara! «Bahe» hitza, Bizkaian eta harago ere, «bae» edo «bai» esaten da. Artikuluarekin, «baie» edo «baia», azpieuskalkien arabera. Baserriz baserri bahe eta antzeko tresnak saltzen ibiltzen zirenak «baieroak» ziren. Saltzaile gehienak erdaldunak izan arren, hitz horrekin kantatzen zuten euren etorrera. «Baiero! Baiero!». Katxin Seiren etxean ez zuten baherik behar, eta andreak ez zutela behar esan zuen. Bahe-saltzailea ez zen mugitzen intxaurretik. Andreak berriz ere ez zutela behar baherik. Saltzailea egon eta egon, andrea kezkatu zen, beldurtu ere bai, eta ganbarako leiho txikitik balde bete ur jaurti zion. Saltzaile ijitoak amorraturik alde egin zuen, marmar batean.

- Hainbeste denboran egonarazi eta, gainera, ura bota?

Kontua da Katxin Seiren amak «no baia!» hots egiten ziola (“baherik ez”), eta ijitoak «¡no vaya!» ulertu. Ez joateko. Katxin Seik behin amari esan zion:

- Hagin-tarteak betetzeko ere ez daukat arto-zati honekin.
- Ba, kendu hagin batzuk –erantzun zion amak.
- Orduan bitarte handiagoak geratuko dira.
- Ba, kendu denak! –amak.
- Denak kentzekotan, irentsi egingo ditut –mutilak.
- Ondo egingo duk! –amak–. Jan eiok zati on bat tripazorri horri.

Kakapur

Katxin Sei Bermeoko auzo batekoa zen, baina bazituen senideak kalean, «Kakapurrenekoak». Bada Bermeon kanta ospetsu bat –*Jose Migelen batela*–, zeinaren estrofa batek dioen:

Jose Migelen batela
karga-karga dakarrela
txitxarroa Almiketik
Kakapurretik berdela.

Nik izen hori Singapur edo horrelako batekin lotzen nuen, baina ez. Bermeon bada familia oso bat «Kakapurrenekoak» deritzena, gertaera bitxi batetik. Familia horrek denda bat zeukan, eta dendariak, antza, azukrea, arrosa eta halako jenero xeheak hain astiro eta ondo neurturik ematen zituen ezen zain zegoen andre batek esan baitzuen:

– Jesus! Zuk kaka be apurka emongo zeunke. Hortik «Kakapur» eta «Kakapurrenekoak».

Katxin Sei apurra baino gehiagora ohituta zegoen, nonbait, behin esan zuenetik:

– Bizitzari bakarrik eskatzen diot janda hil nadila.

Gorpuzkera ederrekoa zen, eta badirudi berak ere bazekiela. Bermeotik Zornotzara trenez zihoala, «Gernikako txokolate-ontzia» esaten zitzaion hartan, Zugaztietatik aurrera, Gorozika azpian, trena aberiatzea gertatu zen. Batzuk oinez abiatu ziren Autzaganako mendatetik, eta bat edo beste trenbidean aurrera. Katxin Sei dudan geratu zen, nori jarraitu ez zekiela, tunelerantz zihoan batek oihu egin zion arte:

– To! Hator hemendik. Tuneletik lasterbide handia zegok.

Duda luzean jarraitu ondoren, azkenean Katxin Seik ere tuneletik joatea erabaki zuen. Sartu zen tunelean, bazihoan, bazihoan, ez beldur zerbait gabe, eta halako batean, argi-zulo txiki bat hauteman zuen irteera urrunean. Eta eurt egin zuen, esanez:

– Noan bestetik. Ni hortik ez nauk kabitzen.

Katxin Sei hogeigarren mendean hil zen, baina haren arrazoi batzuek oraindik bizi dira, eta ondorengo honek, duda gabe, betiko dirudi. Argiaren abiaduraz ari ziren batean, denak harriturik utzi zituen, esan zuenean:

– Argia baino azkarragorik ez dagoela? Bat bai!

– Zein? –galdetu zuten aho batez.

– Pentsamendua.

Nahiago nuke nire pentsamendua astiroago balebil.

AURKIBIDEA

Hitzaurrea.....	3	Seme lapurra	59
Zein ongi bizi zen Ulises I ...	4	Biziak aurrera	60
II.....	8	Astoaren ostikada	61
III	12	«Nobedadea»	62
IV	14	Alukeriak	63
V	17	Oporrak Belauntzan	64
Carpe	18	Zortzi egun	65
Grande kakazaharra	19	Ez egin inori	66
Eperra	20	Egun bat bakarrik	67
Heliora.....	21	Trena gainera	69
Praka ezkutuak.....	22	Eguerdian lan eske?	71
Haurren logika.....	23	Sator jalea	72
Onak eta txarrak	24	Konkorra eta okerra	73
Hilotza tente	25	Hemen zegok kiratsa!	74
Jan berriz.....	26	Tasola	75
Zopak	27	Melina	76
Zahar-etxean	28	Nor hil da?	77
Sandalio	29	Lapuraren ezpainak	78
Azkurak	30	Aita kantuz, aita ez dena	79
Ñoo!	31	San Mamesen sermoia	80
Arima goian	32	Senarraren prakak	81
Ezizen ozenak	33	Gurean irentsi	82
Hondamenen Jainkoa	34	Hortzak ontzian	83
Azken gaua	35	Astoz eta buruz	85
Hil al da?	36	Orbel guztiak piloan	87
Muxante	37	Patata ere gora	89
Tira, ba!	38	Ama negarrez, aita dolorez	90
Probatuko dut	39	Istripu baten kalte-ordainak ...	91
Tximur	40	Intxaurrak eta garunak	92
Eliseus	41	Lurra jo behar dut	94
Aita eta biok	42	Zelako prakak	96
Gidari alaiak	43	Everest	97
Sermoi apokrifoia	44	Gutunak itsasotik	98
Don Temisto	45	Santua ez bada, txerri-aska	99
Hik eta nik	46	Elma	100
Tafano bertso manoa	47	Sardinak eta konfiantza	101
Hilerrian hilotz	48	Ezetz, ba, koño!	102
Mirari gaiztoa	49	Apaiz abstemia	103
Eztula eta kondoiak	50	Onena baino hobea	104
Kontsentsuzko kreaioa	51	Errezildik Nekezbizira	105
Kintzianoren kukuak	52	Tomatearen indarra	106
Lasterka buru gabe	53	Ekologista aktiboa	107
Ezteietatik kuartelera	54	Mantsotuko haiz	108
Bezperarik ez	55	Kasander, «Kasan»	109
Gaitan tratularia	56	«Katxin Sei»	110
Itsaso koldarra	57	Kakapur	111
Ardien diruak	58		